

1. Aberriaren mugak [ABERRIA](#)
2. Agur Etxeko Anderea [AGET](#)
3. Agur Euskal Herriari [AGUREUSKALHERRIARI](#)
4. Agur Jaunak [AGURJ](#)
5. Agur Xiberua [AGURX](#)
6. Agure zaharra [AGURE](#)
7. Ai zer plazer(r)a (Ama) (1)
8. Ai zer plazer(r)a (Ama) (2)
9. Aita-emeak [AITASEMEAK](#)
10. Aitormena [AITORMENA](#)
11. Aitorren hizkuntz zaharra [AITORRENHIZKUNTZ](#)
12. Ala kinkirrin [ALAKINIKIRI](#)
13. Aldapeko sagarraren adarraren [ALDAPEKO](#)
14. Alzateko jaun
15. Ama (Maitatua Sobera) [AMA](#)
16. Ama zer duzu nigarrez?
17. Amak ezkondu ninduen [AMAKEZKONDU](#)

18. Amerikara noa
19. Amnistiaren dema AMNISTIARENDEMA
20. Amodioa zoin den zoroa AMODIOAZOROA
21. Anttoni eta Antton ANTTONI
22. Arbola gainean (Laborari) ARBOLA
23. Ardiak lerro lerro ARDIAKLERRO
24. Argiaren hiria ARGIARENHIRIA
25. Ari naizela
26. Arrantzale maitagarri ARRANTZALEMAITAGARRI
27. Arrantzaleak ARRANTZALEAK
28. Arrosako zolan ARROSAKO
29. Askatasun egarriz ASKATASUNEGARRIZ
30. Askatasunera ASKATASUNERA
31. Atharratzeko gazteluko kanta ATARRATZEOZAZE
32. Azken agurraren negarra
33. Azken dantza AZKENDANTZAHAU
34. Azken txanpa (Agur zorionak irabazleari) AGURZORIONA
35. Bagare BAGARE
36. Baionatik Bilbora BAIONATIKBILBORA

37. Bake mina BAKEMINA
38. Bakearen Urtxoa BAKEARENURTXOA
39. Bakezaleak Gara BAKEZALEAK
40. Baldorba BALDORBA
41. Bale Ihizi BALEIHIZI
42. Baratze bat BARATZEBAT
43. Batasuna
44. Bautista Bazterretxe
45. Bedatsian BEDATSIAN
46. Begiak parrez-parrez BEGIAKPARREZ
47. Behin batian Loiolan BEHINBATIANLOIOLAN
48. Behin betiko BEHINBETIKO
49. Bermioko portuan
50. Bertso berriak
51. Bi urtxoen kanta BIURTXOENKANTA
52. Bizkaiza maite
53. Boga-boga BOGA
54. Boneta ta txapela BONETATXAPELA
55. De Treville-en azken hitzak HERIOLATZA

56. Din dan don Eguberri on DINDANDON
57. Donostiako hiru damatxo
58. Donostiyako ziudadia
59. Edari goxoa
60. Egina (Eskurik esku) EGINA
61. Egun da Santi Mamiña EGUNDASANTI
62. Egunsentia
63. Elizondoko partida ELIZONDOKO
64. Elurra teilatuan ELURRATEILATUAN
65. Eki eder EKIEDER
66. Eñaut Bidegorrri JAKINDUKA
67. Ene maitia xarmagarria ENEMAITIA
68. Eperra EPERRA
69. Erran dut erranen et errango ERRANDUT
70. Erribera ERRIBERA
71. Errota zaharra
72. Esperantzarik gabeko amodioa ESPERANTZARIKGABEKO
73. Euskal Herri nerea
74. Euskal Herrian euskaraz EUSKALHERRIANEUS

75. Ez, ez dut nahi EZDUTNAHI
76. Forjarien kanta GAURFORJARIAK
77. Furra Furra Fandangoa FURRA
78. Gazte naiz eta lorios GAZTENAIZLORIOS
79. Gaztedi berria (Gu gira Euskadiko) AITAZEREGIN
80. Gaztelugatxe GAZTELUGATXE
81. Gernikako Arbola GERNIKAKOARBOLA
82. Gitarra xartxo bat det GITARRA
83. Gizon gazteak ezkontzeko GIZONGAZTEAK
84. Gogoaren baitan (erabaki nuen) GOGOARENBAITAN
85. Goizian argi hastian GOIZIANARGI
86. Goizian goiz jeikirik GOIZEANGOIZ
87. Goizuetan
88. Gora ta gora beti GORATAGORA
89. Greziako itsasontzia GREZIAKOITSAS
90. Guk euskaraz GUKEUSKARAZ
91. Gure bide galduak
92. Guretzat GURETZAT
93. Habanera HABANERA

94. Hator Hator mutil etxera [HATORHATOR](#)
95. Haur eder baten bila [HAUREDERBATEN](#)
96. Hela hela borta hortan norbeit bada [HELA](#)
97. Hemeretzi mende ta erdi [HEMERETZI](#)
98. Herio latza (De Trevilleren azken hitzak) [TREVILLE](#)
99. Iduzki denean [IDUZKIDENEAN](#)
100. Ikusi mendizaleak [IKUSIMENDI](#)
101. Ikusi nuenian (1)
102. Ikusi nuenian (2)
103. Ikusten duzu goizian [IKUSTENDUZU](#)
104. Ilun ikarak
105. Iluntzean [ILUNTZEAN](#)
106. Iparragirre
107. Iriyarena
108. Iruñeko ferietan [IRUNEKO](#)
109. Ixil Ixilik dago [IXILIXILIK](#)
110. Itsasoan urak haundi dire [ITSASOANURAK](#)
111. Itsasoari begira
112. Itsas ontzi baten [ITSASONTZI](#)

113. Itsua eta sastrea [ITSUASASTREA](#)
114. Ituringo arotza [ITURINGO](#)
115. Itzala
116. Itziarren semea [ITZIARREN](#)
117. Izai eder [IZAIEDER](#)
118. Izarren hautsa (1)
119. Izarren hautsa (2)
120. Izotz-ondoko eguzki
121. Jaun baruak [JAUNBARUAK](#)
122. Jeiki-jeiki [JEIKI](#)
123. Joseba Elozegi [JOSEBAELOSEGI](#)
124. Juana Bixenta Olabe
125. Kantatuaz, kantatuaz
126. Kantatutzera noa xelebrequeriak
127. Kantore berri [KANTORE](#)
128. Kantu jira kantuen bidez
129. Kantuz SORTU [KANTUZSORTU](#)
130. Kaseta huntan [KASETAHUNTAN](#)
131. Kaskazurik bere buruari

132. Kattalin KATTALIN
133. Kontrapas KONTRAPAS
134. Kontxesiri
135. Kupela KUPELA
136. Langile baten semea
137. Lau haizetara
138. Lau teilatu LAUTEILATU
139. Lepoan hartu ta segi aurrera LEPOAN
140. Lili bat ikusi dut LILIBAT
141. Limosnatxo bat (Mutil koxkor bat) MUTILKOXXOR
142. Loretxoa LORETXOA
143. Loriak udan LORIAKUDAN
144. Lürralde zilarra
145. Maitasun aroak
146. Maitasunez hil
147. Maitatua sobera (Ama) MAITATUASOBERA
148. Maite zaitut MAITEZAITUT
149. Maitiak galde egin zautan MAITEAKGALDEGIN
150. Maria Solt eta Kastero MARIASOLT



151. Maritxu nora zoaz? [MARITXUNORA](#)
152. Markesaren alaba [MARKESAREN](#)
153. Martxa baten lehen notak [MARTXABATEN](#)
154. Matalaz [MATALAZ](#)
155. Mehetegiko xakurra [MEHETEGIKO](#)
156. Mendian gora [MENDIANGORA](#)
157. Muñagorriren bertsoak
158. Nafarroa (jota)
159. Nafarroa arragoa [NAFARROAARRAGOA](#)
160. Nafarroako ereserkia
161. Nere herriko neskatxa maite [NEREHERRIKO](#)
162. Nere maitia jeiki ta jeiki
163. Nere sentimentua
164. Nevadarat [NEVADARAT](#)
165. Nigarrez sortu nintzen [NIGARREZSORTU](#)
166. Nirekin (Emoixtaxux muxutxuek)
167. Oi ama Eskual Herri [OIAMA](#)
168. Oi gu hemen [OIGUHEMEN](#)
169. Oi Kanta Berri [OIKANTABERRI](#)

170. Oi Pello Pello [OIPELLO](#)
171. Olentzero joan zaigu [OLENTZEROJOANZAIGU](#)
172. Olentzero pentsatu Eguberriari [OLENTZEROPENTSATU](#)
173. Olentzeroren oparia [OLENTZERORENOPARIA](#)
174. Orhiko xoria
175. Otxagabian
176. Pasaiako herritik
177. Pello Joxepe
178. Pottoka mendian [POTTOKA](#)
179. Primaderako florian [PRIMADERAKO](#)
180. Prima eijerra [PRIMAEIJERRA](#)
181. Salamankara
182. San Simon eta San Juda [SANSIMON](#)
183. Saratarra naizela [SARATARRA](#)
184. Topa dagigun
185. Trapu zaharrak
186. Triste bizi naiz eta [TRISTEBIZI](#)
187. Ttiki-ttikitik [TTIKITTIKITIK](#)
188. Txatxamatxalinatxu

189. Txikia TXIKIA
190. Txori ttikia
191. Txoria txori (Hegoak ebaki banizkio) HEGOAK
192. Ume eder bat UMEEDERBAT
193. Urtxintxak oihanean URTXINTXAK
194. Xalbadorren heriotzean XALBADORREN
195. Xarmagarria zira XARMEGARRIA
196. Xorieri mintzo zen XORIERI
197. Zaku berean
198. Zazpiak oihal batetik ZAZPIAK
199. Zenbat gera?
200. Zibilak esan naute
201. Ziburutik Sarara ZIBURUTIK
202. Zugana Manuela
203. Zure begiek

Nire aberria lurra bezain zaharra da,  
baina ez da lurra bakarrik;  
haizeak bezala inguratzen nau eta  
lotzen, askatzen nauelarik.

Nire aberria suaren antzekoa da,  
beti bera, berria beti,  
epeltzen nau kanpoan hotz dagoenean,  
ta erretzen ere badaki.

Aberriaren mugak, euskararenak,  
gure baitan daude gehienak;  
euskara zabalduaz lau haizeetara  
zabalago egiten gara.

Nire aberria harrizko herria da,  
hitzezkoa eta hitzekoa,  
altzairuzko txakolin, ardo zurezkoa  
eta hondar anonimoa.

Nire aberria burdin bihurria da,  
oroimenean arindua;  
itsas laminen baten herdoilezko kantu,  
etorkizunez fosildua.

Aberriaren mugak, euskararenak,  
gure baitan daude gehienak;  
euskara zabalduaz lau haizeetara  
zabalago egiten gara.

## AGUR ETXEKO ANDEREA

Agur etxeko-anderea,  
Gure diruen jabia,  
Berriz ere behar dugu arnoarekin ogia,  
Bai eta ere, arratsian, kartekilan argia.

Kartak hiruta kartak lau,  
Kartak eman deraut hau  
Hamahiru izan eta ezin galdu hamalau,  
Sakelan tudan diruekin afalduren ez naiz gaur !



Utzak jokua burutik  
Partitu gabe mundutik !  
Aditzia banian, bainan jokuak adar makurtik  
Hik nekez irabaziak ostalerrak juanen tik

Lau arrosa, lau begi,  
Bortz arrosa'ta bortz begi  
Gizon deboxaren haurrak maiz gose edo egarri.  
Ate ondoan jarri eta iguzkia janari

## AGUR EUSKAL HERRIARI

Gazte gaztetatikan  
herritik kanpora  
estranjeri aldean  
pasa det denbora.  
Herrialde guztietan  
toki onak badira,  
baina bihotzak dio  
"Zoaz Euskalerrira".

Agur nere bihotzeko  
amatxo maitea!  
Laster etorriko naiz,  
kontsola zaita.  
Jaungoikoak nahi badu

ni urez joatea,  
ama, zertarako da  
negar egitea?

Lur maitea uztea  
da negargarria.  
Hemen gelditzen dira  
ama ta herria.  
Urez noa ikustera  
bai, mundu berria...  
oraintxe bai naizela  
errukigarria.

## AGUR JAUNAK

Agur Jaunak Jaunak agur,  
agur t' erdi  
Denak Jainkoak eginak gire  
zuek eta bai gu ere.

Agur Jaunak, agur,  
agur t' erdi, hemen gira,  
Agur Jaunak.

1

Sor leküa ütirik gazte nintzalarik  
Parisen sartü nintzan kurajez beterik.  
Plazerez gose eta bürüan hartürrik  
behar nüala alagera bizi  
bostetan geroztik  
nigar egiten dit  
Xiberua zuri.



Agur Xiberua  
bazter güzietako xokorik eijerrena  
agur sor lekia  
zuri ditit ene ametsik goxuenak.  
bihotzan erditik  
bostetan elki deitadazüt hasperena,  
zü ütüz geroztik  
bizi niz trixterik, abandonatürik,  
ez beita herririk  
Paris ez besterik  
zü bezalakorik

## 2

Palazio ederretan gira alojatzan  
eta segur goratik aide freska hartzen,  
gain behera so'ginik beitzait üdüritzen  
Orhi gainen nizala agitzen  
bena ez dira heben  
bazterrak berdatzen  
txoriak kantatzen.

Agur Xiberua  
bazter güzietako xokorik eijerrena  
agur sor lekia  
zuri ditit ene ametsik goxuenak.  
bihotzan erditik  
bostetan elki deitadazüt hasperena,  
zü ütüz geroztik  
bizi niz trixterik, abandonatürik,  
ez beita herririk  
Paris ez besterik  
zü bezalakorik



3

Ametsa, lagün nezak ni Atharratzera  
ene azken egüinen han iragaitera.

Orhiko txoriaren kantüz behatzera

parka ditzan

nik egin nigarrak.

Hots, Xiberotarrak

aitzinian gora

üxkaldün bandera.

Agur Xiberua  
bazter güzietako xokorik eijerrena  
agur sor lekia  
zuri ditit ene ametsik goxuenak.  
bihotzan erditik  
bostetan elki deitadazüt hasperena,  
zü ütüz geroztik  
bizi niz trixterik, abandonatürik,  
ez beita herririk  
Paris ez besterik  
zü bezalakorik



## AGURE ZAHARRA

Agure zahar batek zion bere etxe aurrean  
goizean goiz lantokira irteten nintzanean :  
Ez al dek, gazte, ikusten gure hesola zein dan ?  
Desegiten ez badugu, bertan galduko gera.

Baina guztiok batera saiatu hura botatzera,  
usteltzen hasia dago-ta, laister eroriko da.

Hik bultza gogor hortikan,  
ta bultza nik hemendikan,  
ikusiko dek nola, nola, laister eroriko dan.

Baina denbora badoa, nekea zaigu hasi,  
eskuak zartatu zaizkit eta indarrak utzi.  
Usteltzen badago ere, karga badu oraindik,  
berriz arnasa hartzeko esaigun elkarrekin:

Baina guztiok batera saiatu hura botatzera,  
usteltzen hasia dago-ta, laister eroriko da.

Hik bultza gogor hortikan,  
ta bultza nik hemendikan,  
ikusiko dek nola, nola, laister eroriko dan.

Agure zaharra falta da gure etxe ondotik,  
haize txar batek hartu ta eraman du hemendik.  
Haur batzuk ikusten ditut eta, inguraturik,  
aitona zaharraren kanta nahi diet erakutsi:

Baina guztiok batera saiatu hura botatzera,  
usteltzen hasia dago-ta, laister eroriko da.

Hik bultza gogor hortikan,  
ta bultza nik hemendikan,  
ikusiko dek nola, nola, laister eroriko dan.



## AI ZER PLAZER(R)A (Ama) (1)

Ai zer plazer(r)a bost urten bürían  
sorlekülat ützültzia!

Ene herria, etsitü nian zure berriz ikustia;  
aski sofritüz nik hanitxetan desir nükian hiltzia,  
ezpazüntüdan hain maite üken, oi ama Eskual Herria.

*Tralara lara, lara, lara...  
ezpazüntüdan hain maite üken, oi ama Eskual Herria.*

Hanitxen gisa partitü nintzan etsaia güdükatzera;  
gogua bero, bihotza laxü, eta kasik alagera,  
ezpeinakian orain'ordian, zer zen amaren beharra,  
hari pents' eta biga-bostetan aiher zütazün nigarra.

*Tralara lara, lara, lara...  
hari pents' eta biga-bostetan aiher zütazün nigarra.*

Erresinola kantari eijer libertatian denian,  
bena trixtüran higatzez dua kaloia baten barnian;  
gü ere, ama, hala güntüzün tirano haien artian,  
zure ametsa kontsolagarri, trixtüra handienian.



*Tralara lara, lara, lara....  
zure ametsa kontsolagarri, trixtüra handienian.*

## AI ZER PLAZER(R)A (Ama) (2)

Ai zer plazer(r)a bost urten bürian  
sorlekülat ützültzia!

Ene herria, etsitü nian zure berriz ikustia;  
aski sofritüz nik hanitxetan desir hükian hiltzia,  
ezpazüntüdan hain maite üken, oi ama <sup>bis</sup> Eskual Herria.

Hanitxen gisa partitü nintzan etsaia güdükatzera;  
gogua bero, bihotza laxü, eta kasik alagera,  
ezpeinakian orain'ordian, zer zen amaren beharra,  
hari pents' eta biga-bostetan aiher <sup>bis</sup> zütazün nigarra.

Erresinola kantari eijer libertatian denian,  
bena trixtüran higatzez dua kaloia baten barnian;  
gü ere, ama, hala güntüzün tirano haien artian,  
zure ametsa kontsolagarri, trixtüra <sup>bis</sup> handienian.



Aita-semeak tabernan daude,  
ama-alabak jokoan. (2)

Berriz ikusi beharko dugu  
behi gizena auzoan,  
berriro ere ez da faltako  
trapu zaharrik kakoan.

Aita-semeak tabernan daude,  
ama-alabak jokoan. (2)

Eta lapurrek ohostu dute  
guk gendukana etxean,  
eta gu gaude erdi biluzik  
beti inoren menpean.

Aita-semeak tabernan daude,  
ama-alabak jokoan. (2)

Geurea dugu erru guztia,  
geurea dugu osoan,  
ez inori, ba, errua bota  
Euskal Herria hiltzean.

Aita-semeak tabernan daude,  
ama-alabak jokoan.

Baina gaztea naiz eta daukat  
etorkizuna eskuan,  
ez zaigu hilko Euskal Herria  
ni bizi naizen artean.

Aita-semeak tabernan daude,  
ama-alabak jokoan.

Ez dira betiko garai onenak azken finean gizaki hutsak gara barearen ostean dator ekaitza udaberri berririk ez guretzat. Denborak aurrera etengabian ta orain ezin eutsi izan ginana rutinaren morroiak bihurtu gara laztana lehen baino lehen aska gaitezan



Ohartu gabe arrunt bilakatuta  
ohartu gabe heldu gara mugara  
mundua jausi zaigu gainera  
maitia, lehen baino lehen aska gaitezan  
ez dakigu non dagoen hoberena  
bila dezagun beste lekuetan

Bai, zin dagizut,  
ez dizudala inoiz gezurrik esan eta  
zaude ziur ezin izango  
zaitudala ahaztu inoiz  
aitortzen dut izan zarela ene  
bizitzaren onena,  
baina orain, maitia, lehen baino lehen  
aska gaitezan.

## Aitorren hizkuntz zaharra

Aitorren hizkuntz zaharra nahi dugu zabaldu  
munduaren aurrean gizonki azaldu,  
baldin gure zainetan odolik badugu  
euskaldunak euskaraz hitz egin behar degu.

Lendabiziko hitza haurtxo nintzanean  
Amaren besoetan bular barreanean  
Hitzak esan zizkidan hizketa garbian  
Gorde euskara semetxo bihotzan erdian

Amatxok esan zidan heriotz aurrean  
Agur semetxo laztan laster naiz lurpean  
Euskaraz otoitz egin neure lur gainean  
Euskara entzun nai dut nik bai zorionean

Gora euskara maitea zoragarriena  
euskalduen artean maitagarriena.  
Munduan sortu zanik hikuntzik zaharrena,  
gora ta gora euskaldunak eta gure euskara.

Zein hizkuntza ederra euskara guria  
inun ez det aurkitzen beste bat hobia  
usai goxondun hizkuntz txukun ta argia,  
biraorikan ez duan hizketa garbia

## ALA KINKIRIN

Erran dut, erranen ta errango,  
ez naiz ixilik egongo,  
plaza huntako dama gazteak  
ez dira monja sartuko.

Ala kinkiri, ala kunkuru,  
ala kinkiri kunkuru kanta,  
ala kinkiri kunkuru kanta  
Gu bezalakoak dira denak.

Erran dut, erranen ta errango,  
ez naiz ixilik egongo,  
plaza huntako gizon gazteak  
ez dira fraile sartuko

Ala kinkirri, ala kunkurru,  
ala kinkirri kunkurru kanta,  
ala kinkirri kunkurru kanta  
Gu bezalakoak dira denak.

Erran dut, erranen ta errango,  
ez naiz ixilik egongo,  
plaza huntako gazte guziak  
ezkontzan dira sartuko

Ala kinkirri, ala kunkurru,  
ala kinkirri kunkurru kanta,  
ala kinkirri kunkurru kanta  
Gu bezalakoak dira denak.



## ALDAPEKO

Aldapeko sagarraren  
adarraren puntan  
puntaren puntan  
txoria zegoen kantari.

Xiru-liruli, xiru-liruli,  
nork dantzatuko ote du  
soinutxo hori ?

## ALTZATEKO JAUN

Altzateko jaun, hor zaude nunbait  
zure lurrera itzultzeko zai.

Gure izategren testigu zuzena  
makurtu gabeko zuhaitz lerdena  
desertuko haizeak legortu ez zuen lorea  
itsasoaren kolorea, hor zaude zu.

Hamasei salbe ta hamalau kredo erderaz entzunagatik  
bazenekizun hori ez zela sekulan guretzat egin.  
Urrezko dukat eta diruak ez dira engainu txarra  
bazter batera apartatzeko lehengo sinismen zaharra.

Merkatarien aldamenera amildégian goitik behera  
oharkabean eroriko gera;  
baina guztiok jakin dezagun bidea nundik dijoan,  
Altzateko jaun, hor zaude zu.

Bide batetik okertu gabe esan dezagun bertsua  
ixil-ixilik kanta dezagun euskaldunen sekretua:  
herri zahar baten oharpen haiek nora ditugun galduak,  
zenbat itxura alda lezazken eguna hil zuen gauak.

Bidasoaren ezker-eskubi, udaberrian lore gorriak  
ixilikako ur izkutua:  
mendetan zehar kantu leguna, noizpait latinez lurperatua,  
laister berpiztu behar duguna.

Hamasei salbe ta hamalau kredo erderaz entzunagatik

bazenekizun hori ez zela sekulan guretzat egin.

Urrezko dukat eta diruak ez dira engainu txarra  
bazter batera apartatzeko lehengo sinismen zaharra

Urrezko dukat eta diruak ez dira engainu txarra  
bazter batera apartatzeko lehengo sinismen zaharra

Larrun gainean sorginen dantzak nabaitzen ditut arratsaldean,  
lurrak badaki kontu hoiien berri eta hor dago ixil-ixilik.

Altzateko jaun, hor zaude nunbait zure lurrera itzultzeko zai...

## AMA ZER DUZU NIGARREZ

Ama zer duzu nigarrez,  
matelak bustirik urez,  
ala duzu goiz ihintzez ?

Argia hastian  
lilien artian,  
zintzabilenian  
baratze aldian.

Oi jeiki zira goizerik  
haur maitia zerengatik ?  
Aita ez da jin oraindik.

Ikusi nahian  
aitatto bidian,  
izan niz goizian  
baratze aldian.

Bidia da luze-luze  
han bakarrik dabil haize  
amak bihotza du leize.

Aita gau guzian  
gudari mendian,  
ama dagonian  
baratze aldian.

1

Amak ezkondu ninduen  
hamabost urtekin,  
hamabost urtekin.  
Senarrak bazituen  
laurogei berakin  
ai, oi, ai, neskatila gaztea  
agure zaharrakin  
agure zaharrakin.

2

Ama zertarako det nik  
agure zahar hori,  
agure zahar hori ?  
Hartu ta leihotikan  
jaurti behar det nik  
ai, oi, ai, neure leihotikan  
jaurti behar det nik,  
jaurti behar det nik.



3

Neska hago ixilikan,  
aberatsa den hori,  
aberatsa den hori.

Pazientziz pasa itzan  
urte bat edo bi ;  
hori hilez keroztikan  
biziko haiz ongi  
biziko haiz ongi.

4

Deabruak daramala  
interesatua,  
interesatua.

Ha baino nahiago'ut nik  
nere gustukoa,  
ai, oi, ai, hogeia bat urteko  
gazte loretsua  
gazte loretsua.

## AMERIKARA NOA

Amerikara noa nere borondatez,  
hemen baino hobeto izateko ustez;  
aspertua bai nago hemengo izatez,  
adios aita eta ama ondo bizi bitez.

Lehenago ere seme bat badit Amerikan,  
orain dela sei urte joana hemendikan;  
baldin topatzen badek haren biderikan,  
esan hakiok aita bizi dala oraindikan.

Kafia hartutzen det egunian bi aldiz,  
baita pasiatu ere nik nahi aina zaldiz;  
jan edanaren faltik ez, osasuna berriz...  
aita bizimodu hau Donostian izan balitz.

## AMNISTIAREN DEMA

Amnistiaren alde, zigortuen alde,  
gu ere haiekin bat, zigorpean gaude.  
Ez dugu izaterik aske haiek gabe  
Haiekin askatuko baigara gu ere.

**Amnistiaren dema garaipen eguna  
lortzen ari garena lortuko duguna**

Amnistiaren demak bakea du izar  
eta askatasuna oinarritzko indar  
herri dena abian hego eta ipar  
gaur borroka dugu ta garaipena bihar

**Amnistiaren dema garaipen eguna  
lortzen ari garena lortuko duguna**

Zaudete ziur haiek Ez dute etsiko  
ez ditugu guk ere horrela utziko  
Denak noizbait etxean zutik eta tinko  
egon ziur lortuko dugula betiko

**Amnistiaren dema garaipen eguna  
lortzen ari garena lortuko duguna**

Amodioa zoin den zoroa  
mundu guziak badaki.  
Nik maiteño bat izaki eta  
beste batek eramaki,  
Jainko maiteak gerta dezala  
enekin baino hobeki.



Azken bestetan egin nituen  
izarraren ezagutzak  
denen artetik ageri ziren  
haren begi urdin-beltzak  
irri polit bat egin baitzautan,  
piztu zauztan esperantzak.

Geroztik ere mintzatu gira,  
eia nahi ninduenez...  
Harek bietan baietz erranik,  
pentsa kontentu nintzanez!  
Ez nuen uste haren agintza  
betea zela gezurrez.

Orai bihotza urtua daukat  
gatza urean bezala  
izar onaren argien ordain  
izigarriko itzala  
ohoin txar batek hartu daut eta  
nola naiteke kontsola

Anttoni, Anttoni  
zure atean nago ni.  
Ai, Antton, ai, Antton  
ate ondoan hor konpon

Hormatxoriak negu gorrian  
ez du atsegin elurra ;  
zerua goibel, kabia hotza,  
ta janari gabe lurra  
Ai, maite, nere bihotzak duan  
zure hotzaren bildurra  
Biontzat kabi bat berotzeko  
bilduko nuke egurra.

Anttoni, Anttoni !  
zure atean nago ni.  
Ai, Antton, ai, Antton !  
ate ondoan hor konpon !

Enarak ez du behin egindako  
kabirik inoiz aldatzen ;  
urtero beti kabi haretan  
umeak ditu bazkatzen  
Baina zu, Antton, enara txarra  
zaitut neretzat bilatzen  
jai bakoitzean neska berria  
ikusten zaitut maitatzen.

Anttoni, Anttoni !  
zure atean nago ni.  
Ai, Antton, ai, Antton !  
ate ondoan hor konpon !



Enarak ere bere kabia  
galduta badu ikusten,  
biderik gabe, haruntz ta honuntz,  
kabitik du aldegiten.  
Egarri dagon nere bihotza  
zuk eman ezik edaten  
berriro ere ibiliko da  
gogorik gabe nunbaiten.

Anttoni, Anttoni !  
zure atean nago ni.  
Ai, Antton, ai, Antton !  
ate ondoan hor konpon !

Zure bihotza egarri dala,  
esan didazu bertsoan ;  
neronek ere ikasia det  
arrazoi dezula hortan ;  
zu beti zabiltz edari bila,  
ikusi zaitut askotan,  
baina neurritz gain egarri hori  
itotzen dezu ardotan.

Anttoni, Anttoni,  
kalabaza zale ez naiz ni.  
Ai, Antton ; ai, Antton,  
haize preskuari gabon

Arbola gainean xoria da kantatzen  
Kantatzen da eta bazterrak inarrosten  
Inarrosi eta hostoa da erortzen  
Euskal bihotza da bilaiz egoiten.

Bilaizi ondoan han dira errabian  
Xiloka beltzian handik elki nahian  
Handik elki eta kantatzerat abian  
Lagun zonbait bidian ikusiko agian.

*Laaaa, lara, lara, lara...*

Goiz argi eder bat beti jeikitzen nunbait  
Nunbait jeiki eta zorionean zonbait  
Bizi hobeago denek dukete gogo  
Bainan bakarrik ezin egin asmo.

Haur baten sortzeko sofritze beharrezko  
Bizi hobetzeko legeen bihurtzeko  
Nor da abiatzen lagun zonbaiten biltzen  
Herriaren salbatzen herioari kentzen.

*Laaaa, lara, lara, lara...*

Gaur Euskal Herrian zuhaina da landatzen  
Landatzen da eta gero fruitu ekartzen  
Fruitu ekar eta auzoa da kexatzen  
Iraultzalaria madarikatzen.

Jar giten ildoan igeri izerdian  
Izerdian eta lepo-zainak hegian  
Besoez ta botzez, hortzez eta haginez  
Lagun bat zorionez ikusiko dugunez.

*Laaaa, lara, lara, lara...*

*La, la, la, laralalala...*



# ARDIAK LERRO LERRO: EEB... (Em)

(ASTIRIA MENDIAN)

HITZAK ETA MUSIKA: M. PAGOLA

Ardiak lerro lerro mendi maldan doatzi  
Haize firfira batek deituz gorago beti  
Ibai zola erreketan denak lotan sartzen dira  
Zoin amultsua zautan gaua jausten mendira.  
La, la, la...

Egunaz ixil bazen gauaz pizten mendia  
Belar punta bakotxak nasai dakar bizia  
Gaztain ondotan kukuak joiten dauku soinua  
Eta izarrekilan pestan dugu zerua.  
La, la, la...

Orroituko naiz beti Arradoiko bazterrez  
Horrarat so gelditu bainaiz maiz bi begiez  
Baina orain ezin dut Zangorlk hor finkatu  
Bizi bihurri hunek bainau hortik urrundu.  
La, la, la...

## ARGIAREN HIRIA

Larogeitamaikaren martxoa huen  
niretzako hila bat miragarri  
nik neuk bertan ezagutu bait nuen  
bihotzaren argi betegarri.

Bost egun bakarrik izan ziren  
argiaren hiria ikusteko  
nahiko eta soberan izan nituen  
halako gauzez maitemintzeko.

Bainan eskuak orain lotuak ditut  
arimaren nahia asetzeko,  
ezinezkoa den altxorra nahi dut  
berandu da atzera bueltatzeko.

Gogoratzen hasten naizen guztietan

dorre izugarri bat ikusten dut  
begien malkoz dago bustia  
aire ziztu batekin lehortuz.

Bidai luze bat dut orain buruan  
gehiegi ez ote da niretzako  
beranduegi bai izan daiteke  
amets zahar bat orain berpizteko

## ARI NAIZELA

*Pello Errota:*

Ari naizela, ari naizela  
hor ikusten det Txirrita,  
eta zein ez da harrituko gaur,  
gizon hori ikusita:  
dudarik gabe egina dio  
andregaiari bisita,  
oso dotore etorri zaigu  
bi alkandora jantzita.

*Txirrita:*

Hauxen da lotsa eman didana  
lagunartera sartuta  
edozer gauza esaten degu  
ardo tantakin poztuta;  
bi alkandora ekarri ditut  
bat erantzia ahaztuta  
Pellok bi nola jantziko ditu  
bat besterikan ez du-ta.

**Arrantzale Maitagarri  
Gogoan diat hire irri  
Libertatez hain egarri  
Hautatu gure aberri  
Arrantzale maitagarri  
Gogoan diat hire irri.**

Abertzale bai gudari  
Guretako haiz erori  
Sasitar ta presoeri  
Laguntza nahiz ekarri.

**Arrantzale Maitagarri  
Gogoan diat hire irri  
Libertatez hain egarri  
Hautatu gure aberri  
Arrantzale maitagarri  
Gogoan diat hire irri.**



Tirokatu xoriari  
Pozik hago ihiztari  
Ez uste ken geroari  
Esperantzaren iturri.

**Arrantzale Maitagarri  
Gogoan diat hire irri  
Libertatez hain egarri  
Hautatu gure aberri  
Arrantzale maitagarri  
Gogoan diat hire irri.**

Gertatua Didieri  
Hautetsien Nahikari  
Lotu gaiten Borrokari  
Bizi dadin Euskal Herri.

**Arrantzale Maitagarri  
Gogoan diat hire irri  
Libertatez hain egarri  
Hautatu gure aberri  
Arrantzale maitagarri  
Gogoan diat hire irri.**

Arrantzaleak gire bai Donibandarrak  
Itsasoa da gure ama  
Ziburutarak gira bai mariñel seme  
Guk itsasoa dugu maite.

Gu gira gu eskual kantari tropa bat  
Izendatu arrantzaleak  
Maite dugu eskual kantua  
eta arnoa gorria.

Arrantzaleak gire bai Donibandarrak  
Itsasoa da gure ama  
Ziburutarak gira bai mariñel seme  
Guk itsasoa dugu maite.

Gure arbasoak joan ziren bezala  
Behar dugu abiatu  
Bainan aldiz ez arrantzarat  
Egun behar dugu kantatu

Arrantzaleak gire bai Donibandarrak  
Itsasoa da gure ama  
Ziburutarak gira bai mariñel seme  
Guk itsasoa dugu maite.

Etorri gira zuek alegeratzerat  
Bakearen ekartzerat  
Denek bepetan kanta dezagun  
Ez gira gu bate ilhun.

**Arrantzaleak gire bai Donibandarrak  
Itsasoa da gure ama  
Ziburutarak gira bai mariñel seme  
Guk itsasoa dugu maite.**

Arrosako zolan kantu zirimolan,  
nahiz eta telebistan ez gaituzten modan,  
euskararen garra, lokarri azkarra,  
gau ilun honetako gure artizarra

zazpiehun langilez, sutsu ta ekilez,  
oraina ta geroa ez ditaizke berez,  
kontzertu honen bidez, musika ez tiez,  
euskal izen ta izana, betikotz bat bitez

Koka ta hanburgesa, euskaldun baldresa  
gustua galtzea ere zer dugun errexa  
Kendu nahi digute bihotz ta bertute,  
izaki klonikoak egin nahi gaituzte

jo dezagun bada, goraki aldaba  
multinazional hoien herria ez gara,  
bretoi ta korsikar, kanak ta okzitandar  
nor bedera izaiteko har dezagun indar!



Munduko herrien ta irrati librean  
bilgune goxoa guk dugu urtero hemen  
uhainen ildoan, asmoak geroan,  
elkarren ezagutza daukagu gogoan

munduko erronkak, herrien borrokkak,  
bildu gara hausteko zapalkuntzen sokak,  
dantza ta irria, kantuz ilargia,  
gau hontan zorientsu da Euskal Herria.

## Askatasunera

Quale si ? Eskualduna naiz  
D'induve si ? Mendiko gizon naiz  
U to paese cumu si chjama ?  
Euskal Herri ene herria da

Nor zara ? Eiu so corsu  
Nungoa zara ? Vengu d'un paisolu  
Zein da zurz herriaren izena?

U mo paese ghje corsica.

**Simu fratelli  
Anaiak gara  
Circhemu a strada  
Askatasunera**

U populu corsu campa di stonde amare  
d'ii nostr'antenati a lingua si more  
L'usu nustrale di campà  
Senza rivolte smariscera.

Baita nere herrian  
Bainan euskara beti bizi da  
Eskualdunak izan nahi dugu  
Presoak etxean nahi ditugu

**Simu fratelli  
Anaiak gara  
Circhemu a strada  
Askatasunera**

Ghje ora avà tutt'inseme  
Per noi di custrui l'avvene  
E di lotta senza pianta  
sin'a l'alba di a libertà

Jeiki jeiki denak extean  
Orain ibili gara bidean  
Haurrek gurekin herriarentzat  
Eskuz esku askatasunera

**Simu fratelli  
Anaiak gara  
Circhemu a strada  
Askatasunera**

**Simu fratelli  
Anaiak gara  
Circhemu a strada  
Askatasunera**

# ASKATASUN EGARRIZ

Herria, jarri hadi zutik  
etsaia, dabil eta hortik  
arrotza, daukagu gaineratik  
geure etxean.

Dena onartutzen baduk  
beraien aldera hola,  
heure kezka zabalduz  
ireki za hola.

Herria, jarri hadi zutik  
etsaia, dabil eta hortik  
arrotza, daukagu gaineratik  
geure etxean.

Euskerarik gabeko euskadi,



baina zer da hori?  
gau eta egun etengabean  
euskeraz bizi!!

Muga guztiak apurtu  
geure lurra geure eskuetan hartu  
aberri aske bat sortu  
euskaldun guztien helburu. (3 aldiz)

Ozaze Jaurgainian bi zitroin doratü,  
Atharratzeko Jaunak bata dü galdatü;  
Üken dü arrapostü ez direla huntü,  
huntürik direnian, batto ükanen dü.

Portaliala joan zite, ahizpa maitia,  
ingoiti horra düzü Atharratzeko Jauna,  
otoi, erran izozü ni eri nizala,  
zazpi egün hoietan ohian nizala.

Klara, zuaza orai salako leihora,  
iparra ala hegoa denez jakitera,  
iparra balinbada, goraintzi Salari,  
ene korpützaren xerka, jin dadila sarri.

Ama, joanen gira oro elkarreki,  
etxerat jinen zira xangri handireki  
bihotza kargatürik, begiak bustirik,  
eta züre alaba tunban ehortzirik.

Ama, saldü naüzü biga bat bezala,  
bai eta desterratü, oi Españiala.  
Aita bizi üken banü, ama zü bezala  
enindüzün ezküntüren Atharratzeko Salala.

*Lara.....*

Aita bizi üken banü, ama zü bezala  
enindüzün ezküntüren Atharratzeko Salala.

## AXURI BELTZA

Axuri beltza ona da bainan  
Zuria berriz hobea  
Dantzan ikasi nahi duen horrek  
Nere oinetara begira

Zertan ari haiz bakar dantzatzen  
Agertzen gorputz erdia  
Su ilun horrek argitzen badik  
Agiriko haiz guzia



Nora zoaz eskual semea, arma hori eskutan ?  
Armen hartzera deitzen naute, frantsen aldera.  
Armen hartzera deitzen naute, frantsen aldera.  
Eskual Herritik urrunduz, ta atzerrira joanak,  
a ze negarra entzunen duzun Euskal Herrietan !  
A ze negarra entzunen duzun Euskal Herrietan !

Morts pour la patrie, morts pour la patrie,  
euskara baizik etzakiten haiek,  
morts pour la patrie.

Gure historian zehar, zenbat malko ta ezbehar ;  
Landetaratu gindutenekila dugu orai hil behar.  
Landetaratu gindutenekila dugu orai hil behar.

Bere ama agurtu du, etxolako atarian,  
bere amak bisitatuko du atzerriko hilobian.  
bere amak bisitatuko du atzerriko hilobian.

Morts pour la patrie, morts pour la patrie,  
euskara baizik etzakiten haiek,  
morts pour la patrie.



## AZKEN DANTZA

UUUU..

Azken dantza hau, maitia, zurekin,  
nahi zintuzket ereman nerekin,  
bainan gaurko xedea  
ezin daike betea  
badakit nik ere bihar dela joaitea

Bego pena hau, itzuliren naiz  
bai berriz Euskal Herrira.  
Bego urte hau, etorriko naiz  
betikotz zure ondora.

*UUUU...*

Azken dantza hau ez da sekulako,  
zin egina dut, zin egin betiko,  
hemen, gure lurrian,  
bizi behar dutala  
Hori ez bada, hilotz jar nadila

Bego pena hau, itzuliren naiz  
bai berriz Euskal Herrira.  
Bego urte hau, etorriko naiz  
betikotz zure ondora.

*UUUUU...*

## AZKEN TXANPA

Arraunlariak triste gaur ez dira irabazle  
Kaieko ur gazitan beso bihotz neketan  
Azken txanpan ahalegin  
Bainan arraun bat zaie hautsi  
Hurrengoan lagunok, garaipen zuekin (bis)

**Agur zoriona irabazleari,  
Itsasoa ez da agortuko oraindik.**

**Agur zoriona irabazleari  
Itsasoa ez da agortuko orain**

Egun luzez prestatu eta orai dena da galdu,  
Ametsen laburra da estroparen kulunka  
Arraunak elgar jotzen  
Izerditan dira galtzen  
Hurrengoan lagunok garaipen zuekin (bis)

**Agur zoriona irabazleari,  
Itsasoa ez da agortuko oraindik.**

**Agur zoriona irabazleari  
Itsasoa ez da agortuko orain**

## BAGARE

Araban bagare,  
Gipuzkun bagera  
Ziberun bagire  
ta Bizkaian bagara (bis),  
baita ere Lapurdi ta Nafarran.

Guztiok gara euskaldun,  
guztiok anaiak gara  
nahiz eta hitz ezberdinez,  
bat bera dugu hizkera. (bis)

Araban bagare,  
Gipuzkun bagera  
Ziberun bagire  
ta Bizkaian bagara (bis),  
baita ere Lapurdi ta Nafarran.

Herri bat dugu osatzen  
eta gure zabarkeriz  
ez daigun utzi hondatzen.



Bagare, bagera,  
bagire, bagara,  
euskeraz azkartzeko  
oraintxe dugu aukera.

Bagare, bagera,  
bagire, bagara  
Euskadi askatzeko  
oraintxe dugu aukera.

Araban bagare,  
Gipuzkun bagera  
Ziberun bagire  
ta Bizkaian bagara (bis),

baita ere Lapurdi ta Nafarran.

## BAKE MINA

(Hitzak: Peio Ospital)

(Musika: Irlandar herrikoia)

Gizadiak maite-mina,  
Izadiak arreta-mina,  
Etorkinak herri-mina,  
Herri umek bake-mina.

Laborari ta langile,  
Sinestedun ta bilatzaile,  
Bidez-bide, kalez-kale,  
Izan gaiten bakegile.

Zatiketak etsipena,  
Elkarketak itxaropena,  
Gorrotoak pairamena,  
Barkamenak askapena.

Solasbide, elkarbide,  
Maitabide ta askabide,  
Zuzenbide, bakebide,  
Oro dire zorionbide.

## BAIONATIK BILBORA

1

Baionatik Bilbora  
itsaso errea  
putzu honek ez du itoko  
gure haserrea.

2

Baionatik Bilbora  
itsaso petrala  
aspaldi esan zidaten  
besterik ez zala.

3

Baionatik Bilbora  
itsaso pobrea  
non du aurkitu behar  
Euskadik hobe.

4

Baionatik Bilbora  
itsaso aingura  
nadila zure albora  
oraindik ingura.

5

Baionatik Bilbora  
itsaso zakarra  
baldin baneki nora  
kamino bakarra.

6

Baionatik Bilbora  
itsaso euskara  
umorea badaukagu ta  
galduak ez gara

7

Baionatik Bilbora  
itsaso nafarra  
datorkigula behera  
amets honen afarra

8

Baionatik Bilbora  
hartzen du ekaitzak,  
arrokak ongi dakizki  
txaluparen gaitzak



9

Baionatik Bilbora  
itsaso gorria  
Baionatik Bilbora  
gure memoria.

10

Bilbotik Baionara  
aluba itsasoa  
igeri ez dakiena  
hondoraino doa

## BAKEAREN URTXOA

Bakearen urtxoa, oi urtxo ezitia  
Hegalez kurri zazu lur zabal guztia  
Kontsola gerla pean dagoken jendia  
Hilen haur, ait' et' amak, eta emaztia,  
Kolpatua errestan dabilan trixtia,  
Presoner dohakabe, hilik den bizia  
Errozute deneri :

**Jende gaixoak,  
Ez beha gau beltzari,  
Bainan bai izarreri  
Bakea dela zueri**

Bakearen urtxoa, jarraik bideari  
Zure lili ezitia eskainiz orori  
Mintza zaitte ezinik dagon eriari  
Bihotza bero zozu xahar hoztuari  
Esperantza emozu kezkan den amari  
Bere latza ken-ozu hilen ezkilari  
Errozute deneri :

**Jende gaixoak,  
Ez beha gau beltzari,  
Bainan bai izarreri  
Bakea dela zueri**

Bakearen urtxoa, hemen zaite geldi  
Lur hau da sakratua, deitzen da Euzkadi  
Zorte txar batez joak girade aspaldi  
Denak anaiak-eta, bizi bi alderdi  
Gerla da berrikitan pasa hemen gaindi  
Eskualduner urtxoa, otoi, mintza bedi  
Errozute deneri:

**Oi Eskualdunak,  
Ez beha gau beltzari,  
Bainan bai izarreri  
Bakea dela zueri**

## Bakezaleak Gara

Bakearen urtxo faltsu denen aurka  
justizian dago herrien oreka  
askatasunari ez biderik uka  
herri honek bere bidea badauka.

**Bakezaleak gara  
bakea nahi dugu  
bakezaleak gara eta  
bakean bizi nahi dugu.**



Ez gu anitz maita, Madril eta Paris  
ez gu otoi zaindu hainbeste poliziz  
ez gu defendatu misil eta untziz  
ez herri hau zanpa behin eta berriz.

**Bakezaleak gara  
bakea nahi dugu  
bakezaleak gara eta  
bakean bizi nahi dugu.**

Ez ken guri lanik eta kentzen jarrai  
ez ken izerdirik lana badutenei  
ez gu jar kapital basatien morroi  
herri hau saltzeko ez guri egin dei.

**Bakezaleak gara  
bakea nahi dugu  
bakezaleak gara eta  
bakean bizi nahi dugu.**

## BALDORBA

1

Ezki gabeko elizen  
eremu emankorra,  
giza-murzuriko  
zure ardientzat.

2

Oi Baldorba, oi Baldorba,  
eguzki eta haize idor,  
mahats-ardo ibai,  
galburuarena.

3

Lur gorri, harri landu,  
mailu eta zizelaren kantu,  
kitarrazko alakiketan,  
Armeniako kanun,  
ahots urratuan.

4

Oi Baldorba, oi Baldorba,  
esazu nor zen bidetik  
baztertu zintuen  
madarikatua.

5

Zure irriño romanikoa  
erdi izoztu eta leloturik  
utzi zuen madarikatuaren  
izena nahi dut.

6

Oi Baldorba, oi Baldorba,  
esazu nor zen bidetik  
baztertu zintuen  
madarikatua.

7

Oi Baldorba,  
zutaz oroit eta  
zuri nagozu.

8

Kantu bat laburra da eta  
pentsa zuk,  
esaten ez dizudan hartaz.

9

Oi Baldorba, oi Baldorba,  
esazu nor zen bidetik  
baztertu zintuen  
madarikatua.

## BALE IHIZI

Ni itsas xoria banintz,  
iparreko izotz lurretarat  
joan nintaike hegaldaka  
bale itsu gizenen ondotik.

Itsasoa harro dago,  
haizea oro txarrean,  
eta gu ezin kontsola,  
etxe goxoa gogoan harturik.



Zoin asto izan behar den  
Hala guziz miserian bizi  
Untzirat iragaiteko  
Bale bakantiaren hiltzaile  
Sos poxika batengatik  
Zonbat arriskurik ez den  
Ur untzia uzkailirik  
Buztan hasarretuak leherturik

Lana gustokoa zaio  
arrantzale gai den gazteari,  
bainan ikaretan dago  
bale basa hurbiltzen denean.  
Lot lanari, erna gaiten,  
dio kapitaina jaunak.  
Marinela eri dago  
gorputz arimak errotik daldaran.

Borroka hasten denean  
uhain zoroak jauzian gora.  
Aberea zaurituta  
odol basa zurrutan dario.  
Oligo hexur partea,  
sos guttirekin saritzat.  
Moltsa arin itzultzen da  
gaztea Ziburuko tabernarat.

## BARATZE BAT

Hau da egün ederra,  
mila xori(e)k kanta  
ziauri en'erregina  
besuak zuri dititzüt para.

Baratze bat nahi deizüt egin  
amets segretüenekilan  
liliak egün jauntsi ederre-netan  
mila kolorez dantzán bihotzetan.

Gaü beltz ta sakonetik  
elkitzen nüzü hoztürik  
bihotza hain tristerik  
zütaz hainen berantetsitürik.

Baratze bat nahi deizüt egin  
amets segretüenekilan  
liliak egün jauntsi ederrenetan  
mila kolorez dantzan bihotzetan.

Karroza bat hor dūgū  
kanpuan gure haidürü  
ez gal haboro denbora  
hiskor beitago amodiua.

Baratze bat nahi deizüt egin  
amets segretüenekilan  
liliak egün jauntsi ederrenetan  
mila kolorez dantzán bihotzetan.

Maitarzün berriari  
ilargiak dü argi  
emanen deikü aski  
gük alkar maita dezagün beti.

Baratze bat nahi deizüt egin  
amets segretüenekilan  
liliak egün jauntsi ederrenetan  
mila kolorez dantzan bihotzetan.

BATASUNA (Hitzak eta musika: Telesforo Monzon)

Aupa gizona, jeiki mutil  
atzar emazte ta neskatil,  
borrokarako dei eginaz  
irrintzi bat dabil.

Euskal Herria diagu zai  
presoak eta hilak ere bai  
abertzale izan ezkerro gaur,  
gauden denok anai.



Borrokari luza zaidak eskua,  
hona hemen nerea zabalik.  
Euskaldunok banan banan hiltzea,  
otso beltzak ez dik beste nahirik.  
Euskadiren alde loturik bagare,  
goaz borrokara nagusituko bait gare!  
Gerokoak geroko utzi,  
gaur herriak ziok: "nahi diat bizi"!.

Aupa gizona, jeiki mutil  
atzar emazte ta neskatil,  
borrokarako dei eginaz  
irrintzi bat dabil.

Euskal Herria diagu zai  
presoak eta hilak ere bai  
abertzale izan ezkerro gaur,  
gauden denok anai.

Otso beltza gauaren gauaz heldu,  
artzainak zebiltzala kalakan...  
goizean goiz, odolez gorrituak,  
hamaika ardi hilak belardian...  
Artzain kalakari, otsoak iduri,  
har makila eskuan eta lotu etsaiari,  
anaien aurka ez habila,  
otso beltzarentzat atxik makila

Aupa gizona, jeiki mutil  
atzar emazte ta neskatil,  
borrokarako dei eginaz  
irrintzi bat dabil.

Euskal Herria diagu zai  
presoak eta hilak ere bai  
abertzale izan ezkerro gaur,  
gauden denok anai.

Agur, agur andere askatasuna  
Agur, agur biharko Euskadi  
Iguzkitan dantzatuko gaituzu,  
errana diot maiteñoari,  
besoak loturik, ez dugu bestarik,  
nola dantzatuko biok belaunikaturik  
Lehenik urratu katea, gero libro izanen dantza  
egitea

Aupa gizona, jeiki mutil  
atzar emazte ta neskatil,  
borrokarako dei eginaz  
irrintzi bat dabil.

Euskal Herria diagu zai  
presoak eta hilak ere bai  
abertzale izan ezkerro gaur,  
gauden denok anai.

## BAUTISTA BAZTERRETXE

1

Bautista Bazterretxe

mutiko pijua,

neri gurdi ardatza  bis

ostuta dijua.

Beltzak eta txuriak

izango dituzu

neri gurdi ardatza  bis

emate ez baidazu.

2

Gurdi ardatza ezik

itai ta harria

besteren behar gabe  bis

badauzkat neriak;

sega, poto, labana,

gainera bostortza

perian erosia  bis

daukat nik zorrotza.

4

Zerorrek nahiko gauza

dezula diozu

baina gurdi-ardatza  bis

lapurtu didazu.

Ordaindu behar dezu

larrutik ederki

ardatza ez baidazu  bis

neri ekartzen aurki.

5

Buru gogorak badu

berekin kaltea

ez dedan gauza nola  bis

nahi dezu ematea?

Zentzuak galdurikan

arkitzen zerade,

bestela behintzat horla  bis

ariko ez zinake.

3

Nere idi pareak  
dauzka zintzarriak  
lepotikan zintzilik  
zildain jarriak;  
gainera uztarriak  
ta kopetakoak  
ontz urre gorri zaharrez  
erositakoak.

6

Gezur ta abar zabilta,  
Bautista, tranpian;  
zu bezain gezurtirik  
ez da Euskal Herrian;  
zure berri dakite  
inguruko denak,  
gordetzen dituzula  
gauza besterenak.



## BEDATSIAN

Bedatsian dirade züainak loratzen  
Udan ekhiarekin bazterrak berotzen  
Larrazkenian aldiz egünak labürtzen  
Negian haize hotza hezürretan sartzen.

Ez gal gure odol beroa  
Bizi bedi gure Xiberoa.

Aspaldian bizi da gure popülia  
Zazpi probintzietan oso berexia  
Kantore zahar eta jauzi emailia  
Xoriñua bezala txülüla joilia.

Ez gal gure odol beroa  
Bizi bedi gure Xiberoa.

Jendik erraiten die mündian gisala  
Hau bezalako lekü ejerrik ez dela  
Bena gure xokua hüsten ari dela  
Eta segür hiltzeko pündian girela.

Ez gal gure odol beroa  
Bizi bedi gure Xiberoa.

Tristeziaz besterik behar dūgū heben  
Bizitzeko lotsarik ez dezagūn ūkhen  
Oi Xibero maitia ez zira galdūren  
Zure mek zūtie bihar salbatūren.

Ez gal gure odol beroa  
Bizi bedi gure Xiberoa.

## BEGIAK PARREZ PARREZ

Begiak parrez-parrez,  
bihotza negarrez, (bis)  
halaxe joaten nintzan, maitia,  
zugandik dolorez, ai, ai, ai... (bis)

Ama zuriak neri,  
parian pasata, (bis)  
ez dit agurrik egin, maitia,  
burua jirata, ai, ai, ai... (bis)

Ama zuriak neri  
ez agur egiteko(bis)  
zer palazio dauka, maitia,  
zuri emateko, ai, ai, ai... (bis)

Palazio eder bat,  
haitzaren gañian (bis)  
ez da euririk sartzen, maitia,  
ari ez dunian, ai, ai, ai...  
ez da haizerik sartzen, maitia, ez dabilenian.

*La, la, la...*

1

Behin batian Loiolan  
erromeria zan,  
hantxet ikusi nuen  
neskatxa bat plazan  
txoria baino ere  
arinago dantzan;  
huraxe bai polita  
han politik bazan



2

Esan nion desio  
senti nuen gisan,  
harekin hizketa bat  
nahi nuela izan  
erantzun zidan ezik,  
atsegin har nezan,  
adituko zidala  
zer nahi nion esan.

3

Aurkitu ginenian  
inor gabe jiran,  
koloriak gorritu  
arazi zizkidan  
kontatuko dizuet  
guztia segidan,  
zer esan nion eta  
nola erantzun zidan.

4

— Dama polita zera  
polita guztiz ai  
Bainan, hala ere, zaude  
oraindik ezkongai,  
ezkon gaitezen biok  
esan zaidazu bai  
— Ni zurekin ezkondu  
Ni zurekin Jai-jai.

## BEHIN BETIKO

Behin betiko, behin betiko  
sinple bezain tinko, ez dugu etsiko

Behin betiko, behin betiko  
sinple bezain tinko  
euskaraz eta kitto

Etxean eta kalean  
Berdin-berdin jolasean,  
eskolan, lanean,  
tristuran eta pozean.

Dakitenek erabiliz,  
ez dakitenek ikasiz,  
herri bat osaturik  
euskaraz nahi dugu bizi.

Hasi etxetik eta kalera,  
hasi kaletik eta etxera,  
martxan jarri da lege berria:  
Euskaraz Euskal Herrian.

## BERMIOKO PORTUAN

1

Bermioko portuan  
goixeko ordu bidxetan } bis  
ez da entzuten besterik,  
ez da entzuten besterik,  
ez da entzuten besterik,  
Txo! atrakaixu batela.

Egidxe da, egidxe da  
neuk ikusi dotelako;  
egidxe da, egidxe da,  
por que lo he visto yo

2

Lau airoplano pasata, } bis  
bat itsosora dxekusi;  
ekarri, Sebastianak;  
ekarri Sebastianak;  
ekarri Sebastianak...  
Artzan enkalleta itxi.

Egidxe da...

3

Agoztuen hamabidxen } bis  
Patxi Bermiora etorri;  
ekarri katxalotie,  
ekarri katxalotie,  
ekarri katxalotie,  
puaf! Artzan ustelduta itxi.

Egidxe da, egidxe da  
neuk ikusi dotelako;  
egidxe da, egidxe da,  
por que lo he visto yo

4

El aviador de Kakapur } bis  
también quería volar;  
etzo itxi trinkadoriak,  
etzo itxi trinkadoriak,  
etzo itxi trinkadoriak...  
barrabaskeije eiñ barik.

Egidxe da... (bis)

## BERTSO BERRIAK

1

Bertso berriak jartzera noa  
euskara garbi batian  
hitz politen bila ez etorri  
hortaz gelditu atian.  
Barruak lasaituko ditut  
eztarriaren kaltian  
nire kantuak idurituko du  
zakurren zaunka katian.

2

Uztaila hontan beteko ditut  
nik nahi baino urte gehio  
ilea galtzearren nik ez dut  
ematen gizon serio.  
Ene hitz garbienak ere ez du  
inon ezer ere balia  
nire buruari sekulan ez dio  
inork jarriko prezio.

3

Gau ixil hontan ikusten zaitut  
iparraldeko izarra  
hamabost urteko neska baten  
ametsa bezain ederra.  
Urruti zaude mundu hontatik  
librea eta bakarra  
inoren menpe kantatzen ez duzu ta  
zure boza da zilarra.

4

Eguzkiaren hautsak horitzen  
duenean egun berria  
pozten zara gaztain iluna  
zabaltzen duzu orria.  
*Ez zara makinga beltz baten*  
*pioi zerbitzaria*  
*kalean arrastaka dabilen*  
*nire antzeko piztia.*  
*nire antzeko piztia.↓*

} bis.

## BI URTXOEN KANTA

Haize hegoak hurbiltzen ditu mendi urdinak bixtara  
Amodioak bihotz kartsuak biltzen tu elgarretara  
Uztaritzeko zeru pollitan xori airosak badira  
Bi urtxo ergel nahi ditugu hemen lumatu gostura

Haitzondo baten itzal freskoa zer lekua pausatzeko  
Aitamen eta bertzen ixilik elgarrez agradatzeko  
Kapito Harrin biltzar ederrak egin dira lehenago  
Hain amultsurik ez da sekulan itzal hortan ikusiko



Urtxo urdinak urtxo beltxari muxu eta amodio  
Beltxak ordainez urdinoari halabiz erraiten dio  
Bainan auzotik hustu on batek berexten ditu adio  
Adio eta biak nigarrez ihes doatzi aiaio !

Neska zirtzila desohorea ekarri duzu etxera  
Huna bi talo eta zoazi afaldu gabe ohera  
Amaren hitzak karrikan gaindi jin zaizkigu beharrira  
Mari mutiko arin horiek hola hoztu behar dira

Manexi aldiz aitak diozka galtzak berotu handizki  
Mizpira salda zer tisana den gizagaixoak badaki  
Xito ausarta hago kaiolan lumatu arte zuhurki  
Aitak bazakik kaiola hori noiz behar dauian ideki

Euskal Herriko jende leialak egin beza pentsamendu,  
Gure omena behar dugula gora eta garbi zaindu.  
Aiten errana segi dezagun zahar-gaztek ponduz pondu  
Amodioak, ez goiz ez berant, bere sasoina behar du.

## BIZKAIA MAITE

1

Bizkaia maite,  
atzo goizean ikusi zintudan  
soineko xuriz jantzia  
buruan orlegi, bihotzean sua,  
nere gogoaren ertzetik pasatzen  
zure usain goxoa, lana,  
amodioa, itsasoa  
nere baitan sartzen.

2

Atzo goizean entzun nuen  
zure berbaren oihartzuna  
zure kantaren fereka,  
bihotzean kilika  
eta oihartzunaren haunditasunean  
murgilduz joan nintzen  
jauzika, hegaka.

3

Bart arratsean  
arbasoen baratzaren ondoan

4

Bizkaia maite,  
atzo goizean ikusi zintudan  
soineko xuriz jantzia  
buruan orlegi, bihotzean sua;  
olerkari  
penatuaren gozo eta mina  
amodio eta kanta,  
zure berba leun  
zure gatzaren bizia  
zure burdinaren  
goria dira gaur  
neretzat aterbe.

5

Bizkaia maite,  
atzo goizean ikusi zintudan  
soineko xuriz jantzia  
buruan orlegi, bihotzean sua,  
lirain, sendo, eder.

bertsotan eta dantzan  
lotu zinen alai,  
piper eta gatza,  
sabel emankor.

## BOGA-BOGA

Boga, boga, mariñela, mariñela  
joan behar degu urrutira, urrutira.  
Bai, Indietara ! Bai, Indietara ! (bis)

Ez det, ez det , ez det nik ikusiko  
zure plai ederra, plai ederra.

Agur, agur, agur  
Ondarroako itsas, itsaso bazterra.  
itsas, itsaso bazterra. (bis)

Mariñela,  
b o g a !  
Mariñela.

Iragan egun batez egin dugu irri,  
hortaz nahi deizat eman zerbait berri  
Parisetik jin zaiku bidajez Phetiri,  
urthe bakotx fortuna eginik uduri.

Agur, eta zertan hiz, Phetiri gaizua ?  
Ene haur denborako khantuko aixua !  
Iragan duk orduko denbora gozua,  
Eta hi aberastu, espehiz zozua !

Parisetik horra nuk zien ikhustera  
Han untsa bizi gutuk, adixkide Pierra  
Hiaurrek ikhusten duk egin diat aphaera  
txapela ezarri diat burutik behera.

Txapela baduk biena arhin barnekura  
Nun utzi duk boneta uxkal-herrikua.  
txapel horrek eztereik edertzen kaskela  
Basta ederragatik, asto duk astua.



Eztiak ez axolik lai duen batere !  
Han ezagutzen diat hanixko andere !  
Itxurari so-ginez aberats bai ere  
Eskunturen ahal nuk, ez erran deus ere.

Arren, baduk ideia hala eskuntzeko ?  
Lagun franko badutek hortan segitzeko.  
Ofizio bat balit Parisen hartzeko  
Aberats izan gabe, ahuer bizitzeko !

Ez nuk ez hi bezala lanian akitzen  
Lan anplexagorik duk hiria agitzen  
Ene alde hasi nuk Parisen bizitzen  
Arruaren xokoan oskien argitzen

Ofizio ederra oski argizale  
Har-ezak emaztea ziraje saltzaile  
Kaurrak jinen zazkie gose bazkazale  
Utziren duk Parise ahal bezain zale

Ni ja nahi nuk egon buneta kaskuan  
Ene sor leku maite Euskal Herrikoan  
Ihurk e jakin gabe zer dutan gogoan  
Kobla zunbaiten huntzen sutondo xokuan.

## DE TREVILLEN AZKEN HITZAK

Herio latza hüllantzen ari hiz  
Dolürik gabe orai nitarat,  
Otoizten hait ixtant bat ützi nezak  
Ene azken adiuen egitera.

Hori bera da denen ixtoria  
heriuak bardintzen handi txipiak,  
zeren ilüsi one bat bera da  
Lurr(ar)en gañeko gure pasajia.

Ene jauregi pare gabekua,  
hi altxatüz banian fiertate,  
hitan igaran, denbora gozua  
Hain llabür nükila ez nian uste.

Hori bera da denen ixtoria  
heriuak bardintzen handi txipiak,  
zeren ilüsi one bat bera da  
Lurr(ar)en gañeko gure pasajia.

O Basabürüa miragarria,  
bortüz eta mendiz üngüratürik.  
Bostetan nik begixtatü zütiet  
ürgüllükin terraza huntarik.

Hori bera da denen ixtoria  
heriuak bardintzen handi txipiak,  
zeren ilüsi one bat bera da  
Lurr(ar)en gañeko gure pasajia.

Adi-os arren Marie-Maidalena,  
zük ingana nezazü lotarik,  
ene ondotik baratzen direnez  
Izan ez nadiola ahatzerik.

Hori bera da denen ixtoria  
heriuak bardintzen handi txipiak,  
zeren ilüsi one bat bera da  
Lurr(ar)en gañeko gure pasajia.

DIN DAN DON, EGUBERRI ON !

Din dan don, din dan don !

Eguberrri on !

Zorion, zorion !

gabonak, din-dan, don !

Din dan don, din dan don !

Eguberrri on !

Zorion, zorion, Gabonak Gabon !



Izar bat hasi da dirdizka zeruan  
Berri onak zabaltzen ari zaigu munduan.  
Sortu da, Sortu da, Jaunaren Semea,  
Askatxo batean dago, lastoen gainean.

Din dan don, din dan don !

Eguberri on !

Zorion, zorion !

gabonak, din-dan, don !

Din dan don, din dan don !

Eguberri on !

Zorion, zorion, Gabonak Gabon !

Aingeruak kanta, artzain onak dantza,  
Jainkoaren sortzean Bakea eta Aintza!  
Astoak, ihan-han! Idiak, muu-mu!  
Estalpe zaharrean kantan ari zaizkigu.

Din dan don, din dan don !

Eguberri on !

Zorion, zorion !

gabonak, din-dan, don !

Din dan don, din dan don !

Eguberri on !

Zorion, zorion, Gabonak Gabon !

Antxon eta Peru, artzain buruzuri,  
Izarrari jarraikiz biak datoz arinka.  
Menditik barrena, haurtxoarengana,  
Artzain bakoitzak darama arkumetxo bana.

Din dan don, din dan don !

Eguberri on !

Zorion, zorion !

gabonak, din-dan, don !

Din dan don, din dan don !

Eguberri on !

Zorion, zorion, Gabonak Gabon !

# DONOSTIAKO HIRU DAMATXO

1

Donostiako hiru damatxo  
Errenterian dendari (bis)  
josten ere badakite, baina  
ardo edaten hobeki.  
Eta kriskitin, kraskitin,  
arrosa krabelin,  
ardo edaten hobeki.

2

Donostiako Gaztelupeko  
sagardoaren goxua, (bis)  
hantxen edaten ari nintzala  
hautsi zitzaidan basua.  
Eta kriskitin, kraskitin,  
arrosa krabelin,  
basua kristalezkoa.

3

Donostiako hiru damatxo  
Errenteriko kalian. } bis  
egunez oso triste ibili,  
baina dantzatu gabian.  
Eta kriskitin, kraskitin,  
arrosa krabelin,  
baina dantzatu gabian.

4

Donostiako neskatxatxuak  
kalera nahi dutenean : (bis)  
"ama piperrik ez dago eta  
banua salto batian".  
Eta kriskitin, kraskitin,  
arrosa krabelin,  
"banua salto batean".

5

Donostiako neskatxatxoak  
mandatuen aitzekiyan, (bis)  
mutilarekin egoten dira  
kalean jolaskeriyan.  
Eta kriskitin, kraskitin,  
arrosa krabelin,  
pozez algara haundiyan.

6

Arrosatxoak bost hosto ditu, } bis  
krabelintxuak hamabi, } bis  
Mari Joxepa nahi duen horrek  
eska bezaio amari.  
Eta kriskitin, kraskitin,  
arrosa krabelin,  
eska bezaio amari.





# DONOSTIYAKO ZIUDADIA

1

Donostiyako ziudadia  
Irutxuloko uriya,  
etxian zuen perlik onena  
Jainkuari ixuriya.  
Zahartzen diranen alaitzallia  
gazte guziyen nobiya.  
Zerua zer den ez dakit bainan  
zu zera nere gloriya.

2

Urruti zaude eta zaila da  
ni zugana iristia.  
Horrenbeste nahi dizun batentzat  
zer bizimodu tristia!  
Alaipide bat bakarra daukat  
ametsetan sinistia:  
Zu ikusteko noiz nahi asko det  
nere begiyak ixtia..

## EDARI GOXOA

Jaunak, hau bai edari goxoa  
arimen iratzargarri,  
egin dezagun azken tragoa  
atea itxi aurretik.

Haserre joan zaizkigu emazteak  
beren izenak madarikatzen,  
azkena egin dezagun mutilak  
abisua jo aurretik.

Mundura sufritzeko ez ginen jaio  
ezta gutarrak jagoteko,  
topa egin dezagun agudo  
infernua gure zain dago.



## EGINA

Hitzak ikasiz eta hizketan hasiz, irudimenean  
Geure pentsaerari aske izaten utzi genion aidean  
Elkartrukatuz, idatziz ta irratiz hegan geundenean  
Hitza nola ebaki daitekeen erakutsi ziguten bidean...  
"Egin" hil nahiean!

**Eskurik esku "Egin" berria helburu  
Isildu gabe berdin hitz egingo dugu.  
Eskurik eskuekin geroa seguru  
Geurea dugu eta "Gara" egin dugu**

Egin ta egin, bultza ta bultza,  
Denon ekimen, denon laguntza  
Egin behar da, egingo dugu  
Denon ekimen, denon helburu  
Herririk herri, zaharrak berri  
Herriak orri, orriak herri  
Ekarpenekin, elkartzuz ekin  
Orririk orri, egin ta egin.

**Eskurik esku "Egin" berria helburu  
Isildu gabe berdin hitz egingo dugu.  
Eskurik eskuekin geroa seguru  
Geurea dugu eta "Gara" egin dugu**

Bultza ta bultza, indarrak biltzen  
Indarrak bultzaz, indar berritzen  
Lehen baginen, orain bagara  
Indarrak biltzen, jaio da "Gara"  
Orain bagara, lehen baginen  
Jaio da "Gara", jaioak ginen  
Egin nahi zena, ekin ta ekin  
Egin da "Gara", "Gara" da "Egin"

Eskurik esku "Egin" berria helburu  
Isildu gabe berdin hitz egingo dugu.  
Eskurik eskuekin geroa seguru  
Geurea dugu eta "Gara" egin dugu



## EGUN DA SANTI MAMIÑA

Egun da Santi Mamiña  
benetan egun samina.  
Goiko zeruan gorde dezala  
luzaro neure arima.

Esanen dizut egia,  
hau ez da usategia,  
erroi artean izan nintzaden  
benetan ausategia.

Egun da Santi Mamiña  
benetan egun samina.  
Goiko zeruan gorde dezala  
luzaro neure arima.

Itsas aldean izarra,  
hari begira lizarra.  
Euskara salbo ikusi arte  
ez dut kenduko bizarra.

Egun da Santi Mamiña  
benetan egun samina.  
Goiko zeruan gorde dezala  
luzaro neure arima.

Kantatu zuen oilarrak,  
argitzen dira belarrak.  
Ageda gure martiriari  
moztu zizkaten bularrak.

Egun da Santi Mamiña  
benetan egun samina.  
Goiko zeruan gorde dezala  
luzaro neure arima.

Bularrak moztu zizkaten eta  
Euskal Herriak diotsa:  
solomo luze dultzerik gabe  
eman zaidazu bihotza.

Egun da Santi Mamiña  
benetan egun samina.  
Goiko zeruan gorde dezala  
luzaro neure arima.

Eman zaidazu bihotza eta  
ken, berriz, nahigabeak,  
esan noiz garen izanen gure  
etorkizunen jabeak.

Egun da Santi Mamiña  
benetan egun samina.  
Goiko zeruan gorde dezala  
luzaro neure arima.

## EGUNSENTIA

Eguzkien argia leihopetik sartzian  
poz eta alaitasunez esnatuko gera.  
Txorien abestiekin alaitutako eguna  
gizonen gorrotoakin hondatuko da eguna.

Ibiliko gera alkarri kalte eginaz  
ustez launik haundienak  
aurrez ondo hitz eginaz.  
Batzuen izerdiekin besteak diru eginaz  
egia esan dutenak giltzapera emanaz.

Gauza hoiek ikusteko nola esnatzen gera ?  
Gauza hoiek egiteko nola jaikitzen gera ?

Txoriak alaitutako eguna hondatzeko  
hobe genuke ez esnatu  
ta bertan geldi lotan.

Ibiliko gera alkarri kalte eginaz  
ustez launik haundienak  
aurrez ondo hitz eginaz.

Batzuen izerdiekin besteak diru eginaz  
egia esan dutenak giltzapera emanaz.



1. Huna bertsu berriak, nik orai emanak,  
Kantuz erraitekotan plekarien famak,  
Elgar ezin bentzutuz izan tuzte lanak;  
Azkenean nausitu dire zaharrenak.
2. Mila bederatzi ehun hogoi-ta bigarrena:  
Urte hau ainitzentzat zer orhoitzapena!  
Irabaztailek plazer, galtzailek zer pena!  
Bethi lanjer menean irriskatzen dena.

3. Larunbatarekin zen, abendoak bia,  
Orduan jokatu da partidu handia.  
Elizondon in zuen diruzko uria,  
Bai eta proetxatu lapurtar jendia.

4. Partidu hau izan da izigarrikoa,  
Bakan aditzen baita hau bezalakoa.  
Trinketa hautaturik Elizondokoa,  
Han eginen zutela guziek jokoa.

5. Dongaitz anaiak biak, Leonis ta Arce!  
Partidaren finitzen lanak izan tuzte.  
Gaztek galtzerik ere ez baitzuten uste,  
Azkenean zaharrek irabazi dute.

6. Jean-Baptiste Dongaitz zen gizon famatua,  
Ez baita maiz ikusten hoi bezalakoa.  
Berrogoi urte eta ehun kilokoa,  
Berdin, buruz nagusi, egin du jokoa.

7. Besoa hasi zaio pixka bat ttikitzen,  
Gorputza pisutu ta ilea zuritzen:  
Bainan halere ez da batere izitzen,  
Azkenean badaki kintzea trenkatzen.

8. Partida egiletan bat zen Mendiondo,  
Ez omen du ikusi nehor egundaino,  
Horrela atxikitzen azken kintzeraino  
Ondarrean Jean-Baptiste nausi zen oraino.

9. Hamar mila libera alde bakotxetik,  
Behar zuzten jokatu hasteraz geroztik,  
Trebesak zenbat ziren Jainko onak zakik,  
Galdu duten gaixoek ere bai hargatik!

10. Ondoan banituen urgulutsu hainitz,  
Oihu-garrasiaka xantza bildu nahiz,  
Sekulan parada hoi jiten bazait berriz,  
Begira egonen naiz bazterretik irriz.

11. Partida horren famak horra hor pertsutan,  
Guziek kantatzeko Eskual-herrietan.  
Nihor gertatzen bada ene beharretan,  
Zerbitzaturen ditut denak lorietan.

12. Kantuen emailea Batista handia,  
Guziek dakitena, gizon bat noblia;  
Pertsu berri emaiten parerik gabea,  
Lanetik ageri da ofizialea.



## ELURRA TEILATUAN

Elurra teilatuan  
zakua lepoan  
ibili beharko degu  
aurtengo neguan. (2 aldiz)

Riau, riau, riau  
riaukataplau...



hau duk umorea  
utzi alde batera  
euskaldun jendea.

Riau, riau, riau  
riaukataplau...

hau duk umorea  
utzi alde batera  
euskaldun jendea.

1

Udazkenean mendiak  
urtxoen eho tokiak  
sare'ta ihizlariak  
alde guzitan gordeak  
berdin ditugu etsaiak  
gordagian jarriak  
gure seme ta alaben...  
oi ebasleak

Eki eder sutan bero  
euskaldun bihotzak oro  
gudukari diten gero  
bilaka gau egunero (bis)

2

Su pindarraren indarrak  
duelarik sortzen su garra  
preso ezarri gatura  
nola den amorratua  
berdin dira euskaldunak  
gizonik hoberenak  
baina agertzen zimizta...  
ziztatu eta.

Eki eder sutan bero  
euskaldun bihotzak oro  
gudukari diten gero  
bilaka gau egunero (bis)

3

Bururatu da guretzat  
ilusionen denbora  
jaun haundi bat Parisetik  
jinen zela salbatzera  
nunbaiteko zeruetan  
balin bada jainkorik  
guk ez dugu sinetsiko...  
nagusi denik

Eki eder sutan bero  
euskaldun bihotzak oro  
gudukari diten gero  
bilaka gau egunero (bis)

# 4

Gizon enganatzailea,  
itxuraz baita zintzoa,  
aberatsekin dabila,  
ederra dauka mintzoa;  
harek du deliberatzen  
gure ongia zer den;  
guk azala, harek mami  
daukula jaten



Eki eder sutan bero  
euskaldun bihotzak oro  
gudukari diten gero  
bilaka gau egunero (bis)

## EÑAUT BIDEGORRI

Jakin duka berria  
Eñaut bidegorri hil dela  
Atzo dena irria  
Nork erran egun hilen zela  
Lurreko itzulia,  
Harek egin loreak bezala  
  
Etzian aberatsa  
Etzian pobrea...  
Bainan haren bihotza  
zer urrezko kalitza...

Gurekin herriz herri,  
pestaz ibili duk frangotan.  
Neskek harentzat begi  
hain zukan trebe fandagoetan !  
Oto batek moztu dik,  
Gaixo Eñaut, hogoi urtetan !

Etzian aberatsa  
Etzian pobrea...  
Bainan haren bihotza  
zer urrezko kalitza...

Eñauten goraintziak  
Zoin bero zitaizken orduan  
Gazte lagun guziak  
Baigintuen bere gogoan  
Gu hemen utzirik-e  
Bera balitz orain zeruan

Etzian aberatsa  
Etzian pobrea...  
Bainan haren bihotza  
zer urrezko kalitza...

Adixkide bat zer den  
Nik bihar dut hori jakinen.  
Bihar bakar bakarrik  
Eñaut gabe bainaiz gelditzen,  
Ai! Eñaut adixkide  
hik baninduk hire ganatzen.

Etzian aberatsa  
Etzian pobrea...  
Bainan haren bihotza  
zer urrezko kalitza...



1. Ene maitia xarmagarria,  
Dohain ederrez zirela betea,  
Zuk egin afruntua sartu zait bihotzera,  
Heldu baitzait gogora ardura.  
Nik orai pena; zure malura  
Denborak emanen du agertzera.

2. Xoratu nauzu, tronpatu nauzu,  
Ene bihotza eritu dautazu.  
Denborak beharko du ene pena kasatu,  
Bihotz alegeratu, sendatu;  
Hobe bat ustez nauzu kitatu  
Zure malura hortan egin duzu.



3. Zuk kitaturik, xangrinaturik,  
Bi urte egotu naiz pasaturik,  
Ene bihotz tendrea, nihor maite gaberik,  
Etzagoken bakarrik, tristerik.  
Maite berri bat du hautaturik,  
Hark ezarri nau alegeraturik.

4. Adio enea, lehen maitea,  
Desir onez dut bihotza betea.  
Zuk egin afruntua aspaldi barkatua,  
Desir dautzut, gaixoa, zerua;  
Munduan ere bizi luzea,  
Eginik zure gostuko maitea.

Eperrak baditizü bere bi hegalak  
bai eta bürün gainin kokarda eijer bat  
zük ere balinbazünü gaztetarzün eijer bat  
neskatilen gogatzeko bilo holli pollit bat.

Amorosak behar lüke izan lotsa gabe  
gaiaz ebiltia ez üken herabe  
egünaz ebiltia desohore leike  
txoriak ere oro haier soz dirade.

Ebili izan nüzü gaiaz eta beti  
eia atzamanen nianez lili eijer hori.  
Azkenian atzaman düt oi bena tristeki  
lumarik eijerrena beitzaiio erori.

Mündian ez da nihur penarik gabe bizi  
Nik ere badit aski hoitan segurki  
Nik desiratzen nizün ezkuntzia zurekin  
Bena ene aitak eztü entzün nahi hori

Zure aitak zer lüke eni erraiteko  
Ala enitzaio aski haren ofizioko  
Ala zü soberaxe zitzaio enetako  
Printzerik ez ahal da orai zuenganako

Erran dut, erran eta errango  
ez naiz isilik egongo  
plaza hontako dama gazteak  
ez dira monja sartuko.

Ala kinkirri, ala kunkurru,  
ala kinkirri kunkurru kanta,  
ala kinkirri kunkurru kanta,  
ez dira monja sartuko.

Erran dut, erran eta errango  
ez naiz isilik egongo  
plaza hontako gizon gazteak  
ez dira fraile sartuko.

Ala kinkirri, ala kunkurru,  
ala kinkirri kunkurru kanta,  
ala kinkirri kunkurru kanta,  
ez dira fraile sartuko.

Erran dut, erran eta errango  
ez naiz isilik egongo  
plaza hontako gazte guztiak  
ezkontzan dira sartuko.

Ala kinkirri, ala kunkurru,  
ala kinkirri kunkurru kanta,  
ala kinkirri kunkurru kanta,  
ezkontzan dira sartuko.



## ERRIBERA

Erribera, erribera!  
Zure landen zabalera  
ortzi-muga den hartan mugatzen da.

Zure lur emankorretan  
ixurtzen diren asmoak  
gogotsu hartuko ahal ditu lur gozoak.

Zure gaztelu zaharrek  
gorderik duten antzina  
hats tristetan mintzo da haren mina.

Ooo...

Horma zahar arraituetan  
txoriak dira kantatzen,  
mendetako lo geldia salatzen.

Nafarra anai zaharra,  
kondairaren lehen zuztarra,  
bego higan arbasoen amets hura.

Ooo...

## ERROTA ZAHARRA

Errota zahar maitea uraren ertzean ;  
uraren ertzean da basati beltzean :  
negar egiten dezu alea txehetzean ;  
ni ere triste nabil zutaz oroitzean.

Zotin sekua dagi errotarriak ;  
itzalitako izar dirdirak  
dira neretzat zure begiak.

Izar eder bat dago hor goiko lepuan ;  
errota zaharra, berriz, erreka zokuan ;  
berebiziko pena badaukat barruan :  
ezin gindezke bizi elkarren onduan.

Bizitzaren legea nahi det onartu,  
halabeharra kuraiez hartu,  
berez doana, zertan behartu ?

Errota zahar maitea uraren ertzean ;  
uraren ertzean da basati beltzean :  
negar egiten dezu alea txehetzean ;  
ni ere triste nabil zutaz oroitzean.

## ESPERANTZARIK GABEKO AMODIOA

Amodioa gauza tristea, bihotzen higatzailea,  
guziz enea bezala bada esperantzarik gabea.

Gizonarentzat hau baino malur handiagorik bada ?

Ikusten eta ezin eskura maitatzen duen lorea !...

Hunela bizi baino aunitzez hobe litaike hiltzea !

O, Jainko ona, zendako bada egin nauzu hoin maluros,  
begien bixtan izar eder bat ezarri dautazulakotz,  
ikus orduko maite nuena nik ditutan indar oroz ?

Harek ordainez ez du enetzat ez begi eta ez bihotz...

Nehoiz ikusi izan ez banu hobeko nuen ondikotz !

Oi, ene maite ezin ukana, zoin zaren xarmegarria !

Maite dut zure begitarrea, maite zure boz ezria,  
halaber zure irri gozoa, zure izaite guzia ;  
zuretzat baizik ez dut begirik, zure ene iguzkia,  
gau eta egun zuri pentsatzen deramat ene bizia.

Martxoko hormak galduko duen lore pollit goiztiarra,  
ta eihartzerat bortxatua den aizeak hautsi abarra :  
ene bihotza ez ditaikea gauza horier konpara ?  
Nehoz enea ez da izanen maitatzen dutan izarra,  
hortaz oroitzu maiz etortzen zaut nigarra begietara.

Aitortzen dautzut, ene maitea, goiz aski banakiela  
etzintaizkela enea izan, bertze batentzat zinela ;



bainan halere maitatu zaitut, ez bainezaken bertzela ;  
ene bihotza, bizi naizeno, izanen zaizu fidela,  
zuretzat bizi ez banitaike, zuretzat hil nadiela !

Fernando AIRE "XALBADOR"

## EUSKAL HERRI NEREA

1

Euskal Herri nerea  
ezin zaitut maite,  
bainan nun biziko naiz  
zugandik aparte.  
Anaien aurpegian  
begirada hotza,  
bihotz berotasuna  
izaten da motza.

2

Arratsaldeak beti  
dakarren tristura  
neretzat izaten da  
bakardade hura,  
argitu nahirik begiak,  
balio al du gure egiak?  
Bide bat aukeratzean  
gelditu nahi nuke  
nere lurrean.

neurri zuzen baten beharrak  
lotutzen dizkit nere indarrak.  
Erreka zabal garbia  
zukan egon bedi  
gure argia.

4

Euskal Herri nerea  
behar zaitut maite  
nun biziko nintzake  
zugandik aparte.  
Anaien aurpegian  
begirada hotza,  
bihotz berotasuna  
izaten da motza.

5

Urruti joan ezkerro  
berriz etortzean,

Euskal Herri nerea  
ezin zaitut maite,  
bainan nun biziko naiz  
zugandik aparte.

3

Ezin erabakirik  
esandako hitzak,  
pauso baldarrak ditu  
gizonen bizitzak,

nolako zulo beltza nere bihotzean.

Egin dezagun aurrera,  
gerra hontan saiatuko gera.

Tristea etxerik eza  
lurrak emango dit  
bere babes.

Euskal Herri nerea  
behar.

Euskal Herrian euskaraz  
nahi dugu hitz eta jolas,  
lan eta bizi euskaraz eta  
hortara goaz,  
bada garaia noizbait dezagun  
guda hori gal edo irabaz.  
Zabal bideak eta aireak  
gure hizkuntzak har dezan arnas,  
bada garaia noizbait dezagun  
guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskara  
hitz egiterik ez bada,  
bota dezagun demokrazia  
zerri-askara  
geure arima hiltzen uzteko  
bezain odol galduak ez gara.  
Hizkuntza gabe esaidazue  
nola irtengo naizen plazara,  
geure arima hiltzen uzteko  
bezain odol galduak ez gara.

Euskal herri euskalduna  
irabazteko eguna,  
pazientzia erre aurretik  
behar duguna;  
ez al dakizu euskara dela  
euskaldun egiten gaituena ?  
Zer Euskal Herri litzake bere  
hizkuntza ere galtzen duena ?  
Ez al dakizu euskara dela  
euskaldun egiten gaituena ?

## EZ, EZ DUT NAHI

Ez, ez dut nahi, ez, ez, ez.  
Ez, holako zibilizaziorik.

Kaiolaren adarrak ditugu gogoan,  
eskuindarrek eskua zabaldu juxtuan.  
Zigor indarren menpe, tiroak gogoan  
horrela bizitzerik ez dago munduan.

Ez, ez dut nahi, ez, ez, ez.

Ez, holako zibilizaziorik.

Poliziak nun-nahitik zerbait egitean,  
pentsatu arazi nahi makil indarpean.

Irudi du gerala kaiola batean  
jarritako txoriak fusilen menpean.



Ez, ez dut nahi, ez, ez, ez.

Ez, holako zibilizaziorik.

Horregatik ez dut nahi gizonen kutsurik,

Zibilizazioaren sasi jaungoikorik.

Libre nahi dut bihotzez, libre loturetik  
basurdearen gisa hortzak estaturik.

Ez, ez dut nahi, ez, ez, ez.

Ez, holako zibilizaziorik.



Gaur forjariak lana utzirik  
gatoz guztiok kalera,  
labeak oso itzaldu eta  
protesta bat egitera,  
mailu-burdinak bota ditugu  
hantxe bertan bazterrera;  
ez dugu nahi berriro ere  
toki hartara lanera.

Dinbili danba  
gau eta goiza ,  
su eta keien artean,  
sosegu eta deskantsu gabe  
geure buruen kaltean  
horrexegatik lanak utzirik  
gatoz guztiok batean.

Gora, bai gora beti,  
gora forjaria  
Langile trebe zintzo  
da mailukaria.  
Lurpera bai lurpera  
beti nagusia  
Ez digute egingo  
nahi duten guztia.

Ez badigu ematen  
arrazoia guri,  
ez badigu ematen  
behar legez ongi,  
su emango diogu  
gure fabrikari  
eta nagusiaren  
etxe guztiari.

Hiru babarrun jateagatik  
horrenbeste neke, pena;  
erdi ustelik aurkitzen dute  
forjariaren barrena.  
Gure kontura egiten dute  
nagusiek nahi dutena,  
gure lepotik gizentzen dute  
beren paltrikara dena.

Oso goizetik lanian hasi  
su eta keien artean,  
dinbili-danba  
gelditu gabe  
guztiz ilundu artean,  
arropa denak puskatzen eta  
osasunaren kaltean.



Ez badigute guri  
jornalik haunditzen,  
berriro gu ez gara  
lanera bihurtzen  
arrazoiaz gehiago  
badugu eskatzen,  
ez gaituzte inola  
hoiek ikaratzen.

Ez badigu ematen  
arrazoia guri,  
ez badigu ematen  
behar legez ongi,  
su emango diogu  
gure fabrikari  
eta nagusiaren  
etxe guztiari.

## FURRA FURRA

Furra, furra, fandangoa,  
hortxe duzu fandangoa geure gustukoa.

Gaur goizean jeiki naiz suerte onean,  
tanke bat topatu dut neure kafesnean;  
Ez dakit zer daukagun bakea ala gerra  
bainan nik badaezpadan egin dut puzkerra.

Furra, furra, fandangoa,  
hortxe duzu fandangoa geure gustukoa.

Zerbait egitekotan zuzen eta artez  
zorri bat garbitu dut ur pistola batez,  
orain galdurik nago beldurrez beteta  
muniziorik gabe gelditu naiz eta.

Furra, furra, fandangoa,  
hortxe duzu fandangoa geure gustukoa.

Neure arma bakarra dut akordeoia,  
hauspoari eraginez dirudi leoia;  
Eskua jaten badit on egin dezaion  
Cervantesi holakorik gertatu zitzaion.

Furra, furra, fandangoa,  
hortxe duzu fandangoa geure gustukoa.

Eta orain banoa berriro ohera,  
bila ez badatozkit lolo egitera;  
Bihar ikusiko da zer dagoen berri,  
jakintsuenak ere ezin du igerri.

Furra, furra, fandangoa,  
hortxe duzu fandangoa geure gustukoa.

Aita zer egin duzu gure lur maitea ?

Kanpokoari saldu, oi dohakabea,  
Arrotzez betea da Euskadi guzia,  
Euskalduna etxean ez dago nausia.

Gu gira euskadiko gaztedi berria  
Euskadi bakarra da gure aberria.



Aita zer egin duzu, eskuara maitea ?  
Erderan hazi duzu, oi zure semea,  
ontasun ederrena aita batek galtzea,  
bihotzean sartua dugu ahalgea.

Gu gira euskadiko gaztedi berria  
Euskadi bakarra da gure aberria.

Kaskoin edo maketo ez dugu etsaia,  
baina eskual semea da gure anaia,  
hemen dela España, han dela Frantzia  
mugaren bi aldeetan da Euskal Herria.

Gu gira euskadiko gaztedi berria  
Euskadi bakarra da gure aberria.

Jaungoikoak emana hor dugu heria,  
bere semeek hiltzera zergaitik utzia.  
Bat egin behar dugu Euskadi guzia  
bildu gaiten anaiak, gurea da bizia.

Gu gira euskadiko gaztedi berria  
Euskadi bakarra da gure aberria.

Seiehun urte inguru  
kosta aldean zen gertatu,  
itsasgizon zahar batek  
behintzat hala zidan kontatu,  
enbat itzelak Gaztelugatxen  
ontzi eder bat zuen hondatzen,  
euskaldunontzat barruan  
alxor haundiak ei zekartzan.

Igaz udako goiz batez  
eguzkiaren lehen printzez  
jo nuen itsas barrena  
bihotza dardara eginez,  
murgildu nintzen ur gardenetan,  
arakatu ongi hare-haitzetan,  
han zegoen tinkaturik  
goroldioak estalirik.

Indar guztiaz bultzatzen  
altxor kutxa zabaldu nuen,  
atzera egin ninduen  
uhin haundi bat altxatu zen,  
inor ez zapaltzeko gogoa,  
zapalduak ez izatekoa,  
hau da gure urguilua  
altxor guztien iturria.

Eta hau hola ez bazan sar nazatela kalabazan,  
ipui txit barregarriak kontatu nizekizuen plazan.

Gazte naiz eta lorios  
izpiritua kurios (bis)  
batez agrados  
besteaz jelos  
mutil gaztekin gau oroz.  
Mutil gaztekin  
gau oroz eta  
nundik naiteke maluros.



Aita eta ama etzaten dira  
biak ganbera berian. (bis)  
Ez dira nitaz  
ainitz oroitzen  
berak ontsa direnien.  
Jeloskeriarik ez izaiteko  
ni maitañoaren aldean.

Ate xokoan makila eta  
leiho azpian zurubi. (bis)  
Ene maitia  
handik sartzen da  
segeretuan, prudenteki  
segeretuan, prudenteki eta  
amak oraino ez daki.

Gernikako arbola da bedeinkatua,  
euskaldunen artean guztiz maitatua,  
eman ta zabal zazu munduan fruitua  
adoratzen zaitugu arbola santua.

Mila urte inguru da esaten dutela  
Jainkoak jarri zuela Gernikan arbola,  
zaude bada zutikan orain da denbora,  
eroritzen bazera arras galdu gera.

Ez zera eroriko arbola maitea,  
baldin portatzen bada Bizkaiko Juntea.  
laurok hartuko degu zurekin partea,  
pakean bizi dedin euskaldun jendea.

Betiko bizi dedin Jaunari eskatzeko  
jarri gaitzen danok laster belauriko,  
eta bihotzetikan eskatu ezkerro  
arbola biziko da orain eta gero.

## Gitarra xartxo bat det

1. Gitarra xartxo bat det  
nik nere laguna,  
horrela ibiltzen da  
artista euskalduna,  
egun batian pobre,  
bestietan jauna,  
kantatzen pasatzen det  
nik beti eguna.

2. Nahiz dala Italia,  
orobat Frantzia,  
bietan bilatu det  
mila malizia;  
korritzen badet ere  
nik mundu guztia,  
maitatutzen det beti  
Euskaldun herria.

3. Jaunak ematen badit  
neri osasuna,  
oraindik izango det  
andregai bat ona;  
nahi badet frantsesa,  
interesaduna,  
baina nik nahiago det  
hutsik euskalduna.

4. Adios, Euskal Herria;  
ez, baina, betiko.  
Bost-sei urte hontan  
ez det ikusiko.  
Jaunari eskatzen diot  
grazia emateko  
lur maite hontan  
bizia uzteko.



Gizon gazteak ezkontzeko behar ditu lau gauza

Lehen lehenik iduria alegera bihotza

Dirua frango sakelan eta bizitzeaz ez lotsa

Horietarik hiru baditut laugarrena dut falta

Bai iduria badut eta alegera bihotza

Dirurik ez dut bainan ordainez bizitzeaz ez lotsa

Aldiz baditut hiru tatxa batto bainuke aski  
Arno edale jokolari lanean ez ari nahi  
Hiru tatxa horiengatik neskatxek maite naute ni.

Gogoaren baitan :

Erabaki nuen, tinko ta fermuki,  
Ez zitzaidala gertatuko,  
Maitasun saretan ez nintzela berriz  
Uste gabeen eroriko.

Bi begi izpitsu, irripar ezti bat  
Izan dira nere galtzaile,  
Geroztik hor nabil arantzetan dantzan,  
Ezinezko amets sortzaile.

Zu hor zaude, dantzan, jauzitan,  
Zer debru bada pasatzen zait gogoaren baitan  
(bis)

Urrezko txanpon bat eman gogo nuke  
Sorgin bat bilaka banedi,  
Ezina egikor aldatzeko aina  
Gezurra bihurtzeko egi.

Zer den ona edo zer ote den txarra  
Jakin beharko nukelarik  
Sumendi gainean erretzen ari naiz  
Ba al dago irtenbiderik ?

Zu hor zaude, dantzan, jauzitan,  
Zer debru bada pasatzen zait gogoaren baitan  
(bis).

Geroak zer dakar, ez dut pentsatu nahi,

Uneak nahi ditut bizi.

Lau egun dira ta bi omen lanotsu

Galtzera ez ditut nahi utzi.

Hitzaren jokoan, itxura emanaz,

Gorde nahiko nuke dena.

Biluzia nauzu izan zarelako,

Egoera hunen sormena.

Zu hor zaude, dantzan, jauzitan,

Zer debru bada pasatzen zait gogoaren baitan.

(bis)

Pasatzen zait gogoaren baitan (bis)

## GOIZIAN ARGI HASTIAN

Goizian argi hastian, ene leiho hegian,  
txori bat pausatzen da eta goratik hasten kantan.  
Txori eijerra, hain alagera, entzüten haidanian,  
ene bihotzeko trixtüra laster duak aidian.

Txori eijerra, hain alagera, entzüten haidanian,  
ene bihotzeko trixtüra laster duak aidian.



Ene txoririk maitena, zertaz jin hiz nigana ?  
iratzarrazi, nialarik ametsik eijerrena.  
Jinik hain goizik, uste hiena baniala anitx pena ?  
Ez, ez Habil kontsolatzera malerusago dena !

Jinik hain goizik, uste hiena baniala anitx pena ?  
Ez, ez habil kontsolatzera malerusago dena !

## GOIZEAN GOIZ JEIKIRIK

Goizean, goiz jeikirik, argia gaberik,  
urera joan ninduzun, pegarra harturik.

Lai lara larai

Jaun xapeldun gazte bat jin zautan ondotik,  
heia nahi nuenez urera lagunik.

Lai lara larai

Nik ez nuela nahi urera lagunik,  
aita beha zagola salako leihotik...  
Lai lara larai

Aita beha zagola, ezetz errangatik,  
pegarra joan zerautan, besotik harturik.

Urera ginenian, biak buruz buru  
galdegin zautan ere "zonbat urte tutzu?".

Hamasei... hamazazpi, orain'ez konplitu:  
zurekin ezkontzeko gaztexegi nuzu.

Etxerat itzultzeko, nik dutan beldurra,  
ez jakin nola pentsa amari gezurra !

Neskatxa, nahi duzu, nik erakuts zuri,  
etxerat etortzean zer erran amari ?

Urtxo xuri pollit bat, gauaz dabilana,  
hark ura zikindurik egotu naiz, ama.

Dakigunaz geroztik zer erran amari,  
dugun pegarra pausa, gaitezen liberti  
Gaitezen liberti

## GOIZUETAN

Goizuetan bada gizon bat  
deritzen zaio Trabuko,  
hitzak ederrak bihotza paltso  
sekula etzaio paltako,  
egin dituan dilijentziak  
berari zaizko damuko.

Ongi-ongi oroitu hadi  
zer egin huen Elaman.  
difuntu horrek izatu balu  
jarraikilerik Lesakan,  
orain baino lehen egongo hintzan  
ni orain nagoen atakan.

Nere andreak ekarri zuen  
Aranaztikan dotea.  
Hobe zukean ikusi ezpalu  
Berdabioko atea:  
orain etzuen hark idukiko  
dadukan pesalunbrea.

Nere buruaz ez naiz oroitzen

zeren ez naizen bakarra:  
hazitzekoak hor uzten ditut  
bi seme ta hiru alaba.  
Jaun zerukoak adi dezala  
hoien amaren negarra.



Gora ta gora beti, haik gora Lapurdi  
Euskerak bizi gaitu eta bizi bedi.

Gorantza doa agudo kapitala  
eta Lapurdi beti dago apala,  
aldrebesturik dago mundu zitala,  
konformatzen ez bagara  
ze pekatu mortala

Gora ta gora beti, haik gora Lapurdi  
Euskerak bizi gaitu eta bizi bedi.

Gurea ez da bizi-modu normala  
lurra lantzeko aitzurra eta pala,  
lanaren truke kobratzen erreala.

Benetan da miserable  
euskaldunon jornala.

Gora ta gora beti, haik gora Lapurdi  
Euskerak bizi gaitu eta bizi bedi.

Munduan ezin bizi daiteke hala,  
merkatuetan dena gora doala,  
etxera eta zopa guztiz argala,  
kriseiluen oiloa  
ez da postre formala.

Gora ta gora beti, haik gora Lapurdi  
Euskerak bizi gaitu eta bizi bedi.

Obrero eta nekazari leiala,  
zuena ez da errenta liberala.  
Diru zikinak putre motzak bezala  
botatzen dizu gainera  
hortxe bere itzala.

Gora ta gora beti, haik gora Lapurdi  
Euskerak bizi gaitu eta bizi bedi.

Jabeek dute kontzientzi zabala,  
kakaztu dute gure lurren azala,  
baina Lapurdi ez da hain zerbitzala;  
Burruka garbian dago  
hori da printzipala.

Gora ta gora beti, haik gora Lapurdi  
Euskerak bizi gaitu eta bizi bedi.

1

Itsasoz gaindi ikusten baduzu  
gure gogoa daraman ontzia,  
etzazu pentsa galduta doanik,  
argitzen baitu goizeko eguzkiak.

Hainbeste amets, negar ta desio  
ez du ekaitzak hondora botako,  
salbatuko da goizeko ontzia  
kaiaren bila hegaka joateko.

Arraun berriek eramango dute  
bide zaharretik askatasunera  
oihal zuriek haizea bildurik  
gure arnasa biltzen den batera.  
Ez du ekaitzak hondora botako,  
salbatuko da goizeko ontzia.

Lala lara lala...



2

Itsasoz gaindi ikusten baduzu  
gure gogoa daraman ontzia,  
etzazu pentsa galduta doanik,  
argitzen baitu goizeko eguzkiak.

Hainbeste amets negar ta desio  
ez du ekaitzak hondora botako  
salbatuko da goizeko ontzia  
kaiaren bila hegaka joateko.

Arraun berriek eramango dute  
bide zaharretik askatasunera  
oihal zuriek haizea bildurik  
gure arnasa biltzen den batera.  
Ez du ekaitzak hondora botako,  
salbatuko da goizeko ontzia.

Lala lara lala...



Euskara putzu sakon  
eta ilun bat zen, (bis)  
eta zuek, denok,  
ur gazi bat  
atera zenuten  
handik nekez. (bis)

Guk euskaraz,  
zuk zergatik ez ?.

Guk euskaraz,  
zuk zergatik ez ?

Orain zuen birturtez  
zuen indarrez, (bis)  
euskara itsaso urdin  
eta zabal bat  
izanen da  
eta guria da. (bis)

Guk euskaraz,  
zuk zergatik ez ?

Guk euskaraz,  
zuk zergatik ez...

....

zergatik ez...!

## GURE BIDE GALDUAK

Gu gazteok gaur gabiltza  
mundu galdu honetan,  
gerra bat barruan degula  
zer egin jakin gabe.

Gurasoen mundu aldrebes hau  
ez degu onartzen,  
diruaren morroi izaten  
erakutsi digute.



Ilunpe horrek bakardade  
galduan utzi gaitu;  
argirik gabeko bideak  
etorkizunik ez du.

Bizimodu lasai bategatik  
idealak galdu.  
bizitzaren gauza ederrenak  
dizkigute zapaldu.

Gizonak kartzelan daude  
beren herriagatik.  
jainkoak beharko lagundu  
guk ahaztu baiditugu.

Maitasun hitzak nahi nituzke esan  
baina gaur ezin dut  
gure bide galduak  
kalte hau ekarri dit.

## GURETZAT

### 1

Guretzat berdin dira astea eta jaia,  
lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia.  
Har ditzagun eskuan giltza eta laia,  
gariz eta burdinaz lantzeko Bizkaia.  
Guretzat berdin dira astea eta jaia,  
lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia.

## 2

Gitarrarekin aire berri bat daramagu, kantuz egun,  
abesti libre eta leiala, prestu eta noblezadun ;  
haren medioz zer garen, ongi izan gaitezen ezagun,  
herri langile nekazaria hala defendi dezagun.  
herri langile nekazaria hala defendi dezagun.

Guretzat berdin dira astea eta jaia,  
lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia.  
Har ditzagun eskuan giltza eta laia,  
gariz eta burdinaz lantzeko Bizkaia.  
Guretzat berdin dira astea eta jaia,  
lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia.

### 3

Gure gogoa ez bedi arren kantu honekin akaba,  
gure ekintza izan dadila gure hitzaren alaba.

Egun batean esan dezagun ez "hala biz" bai "hala da",  
nekea eta lana dirade zorionaren aldaba.  
nekea eta lana dirade zorionaren aldaba.

Guretzat berdin dira astea eta jaia,  
lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia.  
Har ditzagun eskuan giltza eta laia,  
gariz eta burdinaz lantzeko Bizkaia.  
Guretzat berdin dira astea eta jaia,  
lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia.

## 4

Bide honetan baldin bagoaz, jakin dezagun zergatik,  
zin egin behar dugu zintzoki, bakoitzak duenagatik  
sinestedunek dudarik gabe bere jaungoikoagatik  
eta sineste gabeek berriz bere ohoreagatik.  
eta sineste gabeek berriz bere ohoreagatik.

Guretzat berdin dira astea eta jaia,  
lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia.  
Har ditzagun eskuan giltza eta laia,  
gariz eta burdinaz lantzeko Bizkaia.  
Guretzat berdin dira astea eta jaia,  
lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia.

1

Berriro itzuliko balitz  
iragan denbora arrotza,  
berdin kontsumi nezake  
bainilla gozo artean;  
itsaso urrun batetan  
irudimena galdurik,  
udaberriko euritan  
larrosak pizten ikusiz...

2

Osaba komertzianterik  
ez nuen izan Habanan  
pianorik ez zegoen  
bizi nintzen etxe hartan,  
neskatxen puntilla finak  
udako arratsaldetan,  
errosario santua  
neguko gela hotzetan.



### 3

Ezpainek gordetzen dute  
ezpain bustien gustoa  
desiozko hotzikaran  
etsipenaren tamalez.  
Gauak zelatan dakusa  
kontzientzia bilutsik,  
badoaz ordu geldiak  
gogorapenen hegalez.

4

Jaio ginen, bizi gera  
ez dugu ezer eskatzen  
itsasontzia astiro  
kaiatik ari da urruntzen,  
Antillak zintzilik daude  
argazkien paretetan,  
karta bat idatziko dut  
norbaitek erantzun dezan.

# 5

Tabako ron ta kanelaz  
sukartutako ametsetan,  
algarak entzuten ziren  
Habanako putetxetan,  
abanikodun mulatak  
gauari haize egiten  
musiken aire nagiek  
odola erretzen zuten.

6

Jaio ginen, bizi gera  
ez dugu ezer eskatzen  
itsasontzia astiro  
kaiatik ari da urruntzen,  
Antillak zintzilik daude  
argazkien paretetan,  
karta bat idatziko dut  
norbaitek erantzun dezan

## Hator Hator

Hator, hator, mutil, etxera,  
gaztaina ximelak jatera,  
Gabon gaua, ospatutzeko,  
aitaren ta amaren ondoan.  
Ikusiko duk aita barrezka,  
amaren poz atseginez. (Bis)

Eragiok mutil,  
aurreko danbolin horri,  
gaztainak erre artean,  
gaztainak erre artean,  
txipli, txapla, pun !  
Gabon gaua pozik igaro  
dezagun.(Bis)

Epel-epel gaur sukaldean,  
aitaren ta\_amaren ondoan,  
Jesus haurra sortu delako  
alkarren maitasun sutstuan ;  
gaurko gau honen argi biziak  
pozten gaitu bihotzean. (Bis)

Eragiok mutil,  
aurreko danbolin horri,  
gaztainak erre artean,  
gaztainak erre artean,  
txipli, txapla, pun !  
Gabon gaua pozik igaro  
dezagun.(Bis)



# Haur eder baten bila

Haur eder baten bila gabiltza zoratzeta izarrak esan digu galdetzeko hemen.

Jaungoikoaren herri maite Jerusalem esan zaiguzu laister Jesus nun sortu den

Jaungoikoaren herri maite Jerusalem esan zaiguzu laister Jesus nun sortu den

Ai hau gauaren zoragarria  
Jesus sortu da Belenen  
Herririk herri bila gabiltza  
bila gabiltza beraren

Artzai buru txuri bi Antton eta Peru,  
Belengo estalpera etorri zaizkigu.

Sartu dira barrena Manueltxongana  
eskaintza egin diote arkumetxo bana.

Batek arkumea ta besteak ardia  
Ondo konpontzen dira Jose ta Maria.

Batek arkumea ta besteak ardia  
Ondo konpontzen dira Jose ta Maria.

Ai hau gauaren zoragarria  
Jesus sortu da Belenen  
Herririk herri bila gabiltza  
bila gabiltza beraren

HELA HELA

Hela hela hela hela bortan hortan norbeit bada ?

Jaun Medikua (3) ote da ?

Jaun medikua balin bada doala erien sendatzera

Hela hela hela hela bortan hortan norbeit bada ?

Jaun errienta (3) ote da ?

Jaun errienta balin bada doala eskola ematera

Hela hela hela hela bortan hortan norbeit bada ?

Jaun erretorra (3) ote da ?

Jaun erretorra balin bada doala meza ematera

Hela hela hela hela bortan hortan norbeit bada ?

Su hiltzailea (3) ote da ?

Ricard-arrentzat ekar dezala behar dugun ur  
freskoa

1. Hemeretzi mende ta erdi du jadanik,  
Jesu Kristo lurretik, zerurat joanik,  
Bertsu berriak aurten, kantatzen ditut nik,  
Euskal Herri maiteak, gogorat emanik.

2. Aspaldian gogoan, bainuen desira,  
Larrun mendi gainean, aurten izan gira,  
Xoraturikan egon handikan begira,  
Euskal Herrian toki ederrak baitira.



3. Ageri da Nabarra eta Gipuzkoa,  
Handik landa Lapurdi paregabekoa,  
Gero Baxenabarre eta Xiberoa,  
Urrunak gordetzen du gaineratikoa.

4. Itsasoan xalupak dabilta arraintzan,  
Ainitz gizon lurrian ari laborantzán,  
Mendietan ere gau egun artzaintzan,  
Horra Euskal Herrian zer gisaz gabiltzan.

5. Grazia eske nago Ama Birjinari,  
Jar zaitte zerutikan ororen gidari,  
Emaguzu bakea mundu guziari,  
Zabal zazu fedea Euskal Herriari.

6. Bertsu hauk eman ditut Lapurdi maitian,  
Larrun mendi gainian den hotelño batian,  
Berriz etorriko naiz lagunen artian,  
Jainkoak plazer badu heldu den urtian.

HERIO LATZA  
(De Trevilleren azken hitzak)

Herio latza hüllantzen ari hiz  
dolürik gabe orai nitarat  
otoizten hait ixtant bat ützi nezak  
ene azken adiuen egitera.

Hori bera da denen ixtoria  
heriuak bardintzen handi txipiak  
zeren ilüsiõne bat bera da  
lürarren gañeko gure pasajia.

Ene jauregi pare gabekua  
hi altxatüz banian fiertate  
hitan igaran, denbora gozua  
hain llabür nükila ez nian uste.

Hori bera da denen ixtoria  
heriuak bardintzen handi txipiak  
zeren ilüsiõne bat bera da  
lürrareñ gañeko gure pasajia.

O Basabürüa miragarria  
bortüz eta mendiz üngüratürik  
bostetan nik begixtatü zütiet  
ürgüllükin terraza huntarik.

Hori bera da denen ixtoria  
heriuak bardintzen handi txipiak  
zeren ilüsiõne bat bera da  
lürrareñ gañeko gure pasajia.

Adios arren Marie-Maidalena  
zük ingana nezazü lotarik  
ene ondotik baratzen direnez  
izan ez nadiala ahatzerik.

Hori bera da denen ixtoria  
heriuak bardintzen handi txipiak  
zeren ilüsiõne bat bera da  
lürrareñ gañeko gure pasajia.

Iduzki denean, zoin den eder itzala  
Maitia, mintzo zira, plazer duzun bezala  
egiten duzula mila disimula, inorant zirela  
erraiten duzula bertzetaik naizela,  
faltsuki mintzo zira.

Zazpi urtez beti jarraiki zait ondotik,  
erraiten zaundala, ez dut bertze maiterik  
hitzer fidaturik nago tronpaturik,  
gaixoa tristerik; ez dut eiten lorik,  
ez jan-edan onik, maitia zuregatik.



Oi ! ene maitia, nik ere zuregatik,  
pasatzen dizut nik zonbeit sabeleko min,  
ezkonduz zurekin, samur ait'amekin  
behar nindeite jin, ez dakit zer egin,  
ez eta nola jin, nik neure etxekoekin.

Oi ! ene maitia, nun duzu izpirituia,  
fediaren jabe aita deraukazuia ?  
Atxikazu fedia, maita bertutia,  
libra kontzientzia, munduko bizia  
labur da, maitia, ez zaitela kanbia !

Ikusi mendizaleak  
baso eta zelaiak,  
mendi tontor gainera  
igo behar dogu.  
Ez nekeak, ezta bide txarrak  
gora, gora neska-mutilak.  
Gu euskaldunak gara  
Euskalerrikoak.

Hemen mendi tontorrean  
euskal lurren artean  
begiak zabaldurik  
bihotza erreta.

Hain ederra, hain polita da ta,  
gora, gora Euskalerria.  
Gu euskaldunak gara  
Euskalerrikoak.

## IKUSI NUENIAN (1)

1

♀ Ikusi nuenian  
nik zure kokotza,  
iruditu zitzaidan, monona,  
gaztaina'n morkotsa.

2

♂ Ikusi nuenian  
nik zure ahoa,  
iruditu zitzaidan, monona,  
karobi zuloa.

"Si, morenita, si,  
si es para divertir;  
tu llevarás la manta, morena,  
yo llevaré el candil."

3

♀ Ikusi nuenian  
nik zure sudurra,  
iruditu zitzaidan, monona,  
odolki muturra.

4

♂ Ikusi nuenian  
nik zure begia,  
iruditu zitzaidan, monona,  
anpolai gorria.

*"Si, morenita, si..."*

5

♀ Ikusi nuenian  
zure belarria,  
iruditu zitzaidan, monona,  
azaren orria.

6

♂ Ikusi nuenian  
nik zure kopeta,  
iruditu zitzaidan, monona,  
frontoia'n paretara.

*"Si, morenita, si..."*



## IKUSI NUENIAN (2)

1

♂ Ikusi nuenian  
zure ile latza  
iruditu zitzaidan, maitia,  
sorginen erratza.

2

♀ Ikusi nuenian  
zure bekokia  
iruditu zitzaidan, maitia,  
zartagi ipurdia.

*Ai, ai, ai, ai... ai, ziri, ziri Pedro,  
gizonak ez du ondo ematen  
mozkortu ezkeru.*

*Ai, ai, ai, ai... ai, Pedro ziri, ziri,  
zertarako ditugu herrian  
honenbeste hordi!*

3

♂ Ikusi nuenian  
nik zure bekaina  
iruditu zitzaidan, maitia,  
gauaren kamaina.

4

♀ Ikusi nuenian

6

♀ Ikusi nuenian  
nik zure sudurra  
iruditu zitzaidan, maitia,  
lukainka muturra.

*Ai, ai, ai, ai...*

7

♂ Ikusi nuenian  
nik zure ahoa  
iruditu zitzaidan, maitia,  
karobi zuloa.

8

♀ Ikusi nuenian  
nik zure okotza  
iruditu zitzaidan, maitia,  
gaztaina lokotsa.

*Ai, ai, ai, ai...*

9

♂ Ikusi nuenian  
nik zure bularra  
iruditu zitzaidan, maitia,  
basoan txondorra.

nik zure begia,  
iruditu zitzaidan, maitia,  
anpolai gorria.

*Ai, ai, ai, ai...*

5

♂ Ikusi nuenian  
zure belarria  
iruditu zitzaidan, maitia,  
azaren orria.

10

♀ Ikusi nuenian  
nik zure mokorra  
iruditu zitzaidan, maitia,  
Azpiroz malkorra.



## IKUSTEN DUZU GOIZEAN

(Nere etxea edo laboraria)

Ikusten duzu goizean,  
argia hasten denean,  
menditto baten gainean :  
etxe ttipitto aintzin xuri bat  
lau haitzondoren erdian,  
xakur xuri bat atean,  
iturriño bat aldean,  
han bizi naiz ni bakean.

Nahiz ez den gaztelua  
maite dut nik sorlekua,  
aiten aitek hautatua.  
Etxetik kanpo zait iduritzen  
nonbeit naizela galdua  
nola han bainaiz sortua,  
han utziko dut mundua,  
galtzen ez badut zentzua.

Etxean ditut nereak,  
akilo, aitzur, goldeak,  
uztarri eta hedeak.  
Jazko bihiez ditut oraino,  
Zoko guziak beteak.  
Nola iragan urteak  
emaiten badu bertzeak,  
ez gaitu hilen goseak.

Landako hirur behiak,  
Esnez hanpatu ditiak,  
Ahatxe eta ergiak,  
Bi idi handi, kopeta zuri,  
Bizkar beltz, adar handiak,  
Zikiro, bildots guriak,  
Ahuntzak eta ardiak,  
Nereak dire guziak.

Ez da munduan gizonik,  
Erregerik, ez printzerik,  
Ni bezain urosa denik ;  
Badut andrea, badut semea,  
Badut alaba ere nik ;  
Osasun ona batetik,  
Ontasun aski bertzetik ;  
Zer behar dut gehiago nik ?

Goizean hasiz lanean,  
Arratsa heldu denean,  
Nagusi naiz mahainean  
Giristino bat ona dut hartu  
Nik emaztea hartzean  
Ez du mehe egunean  
Sartuko uste gabean  
Xingar hezurrik eltzean.

Piarres nere semea  
Nahiz oraino gaztea  
Da mutiko bat ernea  
Goizean goizik bazken erdira  
Badarama artaldea  
Segituz ene bidea,  
Nola baitu egitea,  
Ez du galduko etxea.

Ene alaba Kattalin,  
Bere hameka urtekin,  
Ongi doha amarekin  
Begiak ditu, amak bezala,  
Zeru sola bezain urdin  
Uste dut denborarekin,  
Oraiko itxurarekin,  
Andre on bat dion egin.



Ez dugu behar lurrean,  
Ongi bizirik etxean,  
Utziz laguna gosean  
Ez du beharrak sekulan jotzen  
Gure etxeko atean,  
Nun ez duen mahainean,  
Otruntza ordu denean.  
Leku bat gure artean.

Ene andrea Maria,  
Ez da andre bat handia  
Bainan andre bat garbia  
Irri batentzat badut etxean  
Nik behar dudan guzia  
Gald'egiten dut grazia,  
Dudan bezala hasia,  
Akabatzeko bizia.

# ILUN-IKARAK

1

Ilun-ikarak azken argia  
uxatu dizu urrutira,  
zeru-sapaian izar bakanak  
itzal etzanei begira,  
ilun-txintako sorgin-usaiak  
espazioan dirdira.

} bis

4

Parke isileko banku txuria  
ezpain beroen lankide,  
antsi zaharrak zantzu berritan  
bihotz gordinen senide,  
tristura hegan paseatzen da  
arratsaren solaskide.

} bis

2

Mendi-hegitan argi-oroitza  
eguzkiaren keinua,  
baso beltzean hosto-firfira  
gauzkoen erreinua,  
itsasondoko tamarindotan  
olatuen errainua.

} bis

5

Gau-ezkilaren oihartzun-hotsa  
irristatzen da kolkoan,  
zirrara mutu baten gisara  
maitearen soinekoan,  
bakardadea sekretuekin  
korapiltzen den zokoan.

} bis

3

Itsas-txoriak txio-txioka,  
harat-honata haizetan,  
berde argien edertasuna  
more motelduz uretan,  
txalupa geldi kulunkarien

} bis

6

Itsas-aideak gesalez dakar  
murmuriozko solasa,  
suspiriotan ezin jarioz  
pena lurrinduen hatsa,  
haize-boladak txikordatzen du

} bis

isladarekin hizketan.

maiteminduen jolasa.



## ILUNTZEAN :

Ilargia uretan murgildu da  
itsas arrain txikien ondora  
uraren hozkirriaren zirrara  
hondar epelaren alboan.

Iluntzean uraren ertzean  
errainu baten argia,  
ene maite biok jolasean  
olatu zipriztin artean.

Haizeak zimurtu du itsasoa  
kresalak lehortu malkoa,  
maite zure zain hementxe naukazu  
izar goiztiarrei begira.

Iluntzean uraren ertzean  
errainu baten argia,  
ene maite biok jolasean  
olatu zipriztin artean.





## IPARRAGIRRE

Iparragirre abila dela  
askori diot aditzen,  
eskola ona eta musika,  
hori horiekin zerbitzen.

Ni ez nauzu ibiltzen  
kantuz dirua biltzen,  
komeriante moduan,  
debalde festa preparatzen det  
gogua dedan orduan.

Eskola ona eta musika,  
bertsolaria gainera;  
gu ere zerbait izango gera  
horla hornitzen bagera.

Hatoz gure kalera,  
baserritar legera,  
musika hoiek utzita;  
Errenterian bizi naiz eta  
egin zaidazu bisita.



# IRIYARENA

1

Sekulan ezta sartu izandu  
donostiarrik zeruban,  
nunbait etzuten meriturikan  
irabazitzen munduan,  
gaixuarentzat Jaungoikoaren  
justiziya dan moduan  
kondenaturik arkitzen ziran  
ayek danak infernuan.

2

Bein bat San Pedro bultzaturikan  
zeruetara sartu zan,  
ta beriala presa guziyan  
jende tartian gorde zan;  
San Pedro berriz billa zebillen  
nunbait azaltzen ote zan,  
alegiñ franko egiñagatik  
iñundik ageri etzan.

3

Orduan Pedro Jaunarengana  
larri juantzán beriala,  
eta esan zion donostiarra  
zeruetan sartu zala  
jende tartian ezkutatuta  
ezin billatu zubela,  
infernurako destinatuba  
anima ura zegoela.

4

Jaunak Pedrori modu onetan  
eman zion errespuesta:  
-donostiarra izan ezkeru

5

Iriyarena danboliñakiñ  
jotzen ziranian asi,  
donostiarra danen artian  
saltoka zuten ikusi;  
San Pedro berriz arren ondoren  
egin baño len igesi  
arrapatuta zeruetatik  
infernura zuten jetxi

6

Berialaxe an sartu zuten  
bere lagunén ondoan,  
Donostiako kontu guztiyak  
gogoratutzen orduan,  
demoniyuak ikusirikan  
pozturik galdetu zuan  
Aber benetan ote ziraden  
karnabalak infernuan.

7

Geroztik beti an arkitzen da  
infernuban penatutzen,  
bere zeruko pasadizua  
erritarrai kontatutzen,  
alaxen diyo: -Berriro banitz  
ni berriz orla gertatzen  
Iriyarena juagatikan  
enaiz asiko saltatzen.

8

Deabru ayek beren kontura  
donostiarra arturik  
zulo batera an bota zuten

9

Orain azitzen ari dalako  
Donostiyako erriya  
demoniyuak omen daukate  
bereziziko larria  
bildurturikan lengoko zarra  
eztala naiko aundiya  
ta egitea pentsatu dute  
beste infernu berriya.

10

Baldin geyegi itzegiñ badet,  
jaunak ez zaitezte arritu,  
uts egiñikan baldin badago,  
biar nazute barkatu,  
donostiarrai gaizki nai-eta  
ez ditut bertsuak sortu,  
baizik oyekin karnabaletan  
broma nai gendun pasatu.

## Iruñeko ferietan

Iragan San Ferminetan,

Ehun zaldi arribatu Andaluziatik tropan ;

Merkatu eder bat zautan,

Zaudelarik bi lerrotan.

Bat zen pikarta-xuria;

Hartan bota dut begia.

Andaluzak egin zautan bi untz-urreren galdia,

Eskain orduko erdia,

«Harzak, hire duk zaldia».

Han nintzen harrapatua,  
Aginduaz dolutua :  
Urruntzeko izan banu hirur arditen lekua...!  
Gizonez inguratua,  
Iduri preso hartua.

Zeruko Jainko Jaun ona !  
Zerk ekarri nu ni huna ?  
Andaluz bat zazpi urtez presondegian egona,  
Laburzki mintzo zautana :  
«Konda niri hitzemanana».

«Jauna, nahi dut pagatu,  
Bainan lehenik miratu».

«Zaldiaren miratzeko denborarikan ez duzu;  
Orai soma kondazazu,  
Gero miratuko duzu».

Han nintzan plaza betean,  
Jende ainitzen artean:

Gogoeta hau egin nuen orduko estremitatean :  
Bertze nunbait pasa niro  
Jaun hori puñal batean.

Eman orduko kondua,  
Eztitzen hasi mundua.

Garistutik hartu nuen delako behor mainkua,  
Emanik behar dirua,  
Hustu bainuen lekua.

Utzirik bide ederra,  
Hartu dut oihan bazterra :  
Zaldia nuen desferra, begi batetik okerra :  
Usu soinatzen kitarra,  
Eztularekin uzkerra.



Belategiko bentetan  
Pasatu nintzan andetan ;  
Ahal bezala arribatu Urdazubiko errekan.  
Zaldia sartu partetan,  
Atera nuen kordetan.

Nunbaitik argi aldera,  
Arribatzen niz etxera.  
Nere andrea etorri zaut argiarekin atera ;  
Jarri behorrari beha,  
Ez baitzen kontent sobera.

«Horixe da behor txarra,  
Eta bertzalde Zaharra,  
Hortan gastatu dautazu familiako beharra ?  
Bi sosetan sal nintzazke  
Zaldia eta senarra ! ».

«Ixilik zaude, andrea ;  
Joan ez dakidan zaldia !  
Bele eta arranoak bortatik daude guardia,  
Otoi, hil zazu argia,  
Hunat ez ditzen abia».

«Ixilik zaude zu ere,  
Gezurrik kondatu gabe,  
Bele eta arranorik bortan ez baita batere :  
Eginak gira gu ere  
Estofa on baten jabe».

Plazan zutenean ikusi,  
Nahi zautaten erosi ;  
Tratuan bainintzen hasi, ez zuten emaiten aski;  
Ez nuen eskutik utzi,  
Ume bat behar du hazi.

Jinen den ume berria,  
Behor edo zamaria,  
Eginen baitut guardia, denez ama iduria  
Heldu bada handia,  
Oi zer primako zaldia

Ixil ixilik dago, kaia bazterrian  
Untzi xuri pollit bat uraren gainean.  
Goizek' ordu bietan esnatutzen gira  
Arrantzaliarekin joiteko urrutira.  
Pasatzen nintzanean zure leiho petik  
Nigar' heldu zitzautan begi bietatik :

Zergatik (5 aldiz) nigar egin?  
Zeruan izarra dago itsaso aldetik.  
Bat, bat, bat, bazter ondoan ibili,  
bazter ondoan ibili  
Bi, bi, bi, ez naiz ondo ibili, ez naiz ondo ibili  
Hiru, hiru, hiru, golkoa bete diru,  
golkoa bete diru  
Lau, lau, lau, xardin eta makalau.



Anteron txamarrotia,  
Txingarren bigotia  
Aretxek derauka, derauka  
Preso tximinoia.  
Hau dek, hau dek,  
Hau dek umoria,  
Kontsolatzeko  
Kontsolatzeko  
euskaldun jendia.



Kalian gora, Kalian behera,  
Kalian gora zezena, ai, ai, ai, ai,  
Kalian gora, Kalian behera,  
Kalian gora zezena.,

Kalian gora, Kalian behera,  
Kalian gora, Kalian behera,  
Kalian gora, Kalian behera,  
Kalian gora zezena.



## ITSASOAN URAK HAUNDI DIRE

Zazpi senideko famili batean  
arotza zen gure aita,  
gure herriko alkate ez izan arren  
lan egiten zuena.

Itsasoan urak haundi dire  
murgildu nahi dutenentzat.  
Gure herriko lanak haundi dire  
astun dire  
gogor dire,  
zatiturik gaudenentzat.

Markatzen ari diren bide nabarra  
ez da izango guretzat  
lehengo sokari ezarririk datorren  
oztopo bat besterik.

Itsasoan urak haundi dire  
murgildu nahi dutenentzat.  
Gure herriko lanak haundi dire  
astun dire  
gogor dire,  
zatiturik gaudenentzat.

Hainbeste mendetako gure morrontzak  
baditu mila tankera,  
eta zuhur aukeratzen ez badugu  
bertan galduko gera.

Itsasoan urak haundi dire  
murgildu nahi dutenentzat.  
Gure herriko lanak haundi dire  
astun dire  
gogor dire,  
zatiturik gaudenentzat.

## ITSASOARI BEGIRA

1

Zazpi mendeko gauean gaude.  
Gure loreetan sasi,  
irrintzi, oiu, ele ta ulu,  
marmario ta garrasi,  
haize, **e**nbata, brisa, galerna,  
gaur garbi, bihar nahasi,  
xake **t**aularen zuri beltzetan  
arrats gozo egun gazi.  
Ai itsasorik ez bageneuka  
zeri so negarrez hasi.

2

Gure zuhaitza landatu dugu  
amildegi muturrean.  
**A**darrak daude ertzetik haruntz;  
sustraiak, berriz, lurrean,  
bihotz **h**esteak estu helduaz  
esku baten ahurrean.  
Bertso **berri**ak jartzera noa  
bere indar laburrean,  
nola malko bat isuritzen den  
itsasoaren aurrean.

3

Nola haizea ur azalean

Susmoa daukat gure patua  
itsasoa ez ote dan,  
libre ta zabal dugu aurrean  
baina ezin dugu edan.

4

Heldu herria sustraietatik,  
tira eta gora jaso.  
**J**arri **K**antauri aurrean eta  
mantendu zutik hari so,  
ispilu hortan ikus gaitezen  
herriz herri, auzoz auzo.  
**Z**auriak gatzez itxi ditzagun,  
malkoak urez eraso,  
sano ta libre irla txiki bat  
salbatuko da akaso.

5

Azken arnasa eman nahi nuke,  
eguna hiltzen ari da.  
**A**zken **a**rnasa eman nahi nuke,  
bertsoak entzuten dira.  
Azken **a**rnasa eman nahi nuke,  
kantari nator herrira.  
**A**zken **a**rnasa ematen dugu  
eguzkitik eguzkira.

eguzkiaren irteeran,  
nola **kaioak** zorabioan  
itsas enbata bezperan,  
pensatzen nago gu ere berdin  
ibiltzen ez ote geran.

Azken arnasa eman nahi nuke  
itsasoari begira.

**Azken arnasa** ematen dugu  
eguzkitik eguzkira.

Azken arnasa **ema**n nahi nuke  
itsasoari begira.

Azken arnasa eman nahi nuke  
itsasoari begira.

Itsasontzi baten Euskal Herritik kanpora  
naramate eta ez dakit nora

Agur nere ama laztan goxoari  
Agur nere maite politari  
ez egin negar etorriko naiz  
egunen baten pozez kantari



Itsasontzi baten Euskal Herritik kanpora  
naramate eta ez dakit nora

Agur senideak agur lagunari  
agur Euskal Herri osoari.  
Ez egin negar etorriko naiz  
egunen baten pozez kantari.

Gora Euskal Herri Gora Euskal Herri  
Gora Euskal Herriari.

ITSUA ETA SASTREA

Piarres Ibarrart

1

Euskaldun bat zen itsu eta bertsulari,  
Atez-ate zabilan iloba gidari.  
Soineko eta diru, janari edari,  
Nasaiki biltzen zuten bertsu eman sari.

2

Zuhur gisa baitzuten sos guti xahutzen,

Piko baten azpian eltze bat zaukaten.

Hiru ehun libera harat bildu zuten,

Bainan ohoin tzar batek ebatsi zioten.

3

Bere gorde lekutik galdurik eltzea,

Bat zagon hasperenka, nigarrez bertzea,

Ilobak erran zion : Osaba maitea,

Horra zer den kanpoan gauzen gordetzea.

4

Azkeneko aldian hemen ginelarik,  
Ikusi gaituztela ez diat dudarik,  
Bai sastrea heldu zen pegarra beterik,  
Behatu zuen guri bainan urrunetik.

5

Iloba gida nezak sastrearen gana,  
Adi dezan bertsu bat Itsuak emana,  
Gure eltzea badu harek eremana,  
Bazakiat nik hura zer gisaz engana.

6

Ilobak erran zion apal beharrira,  
Sastrearen etxerat orai heltzen gira,  
Irri faltsuan dago leihotik begira,  
Ez erran hitz gaixtorik zuhurra bazira.

7

Iloba, gida nezak artoski bidean.  
Zerbait daiat utziko azken egunean,  
Ehun luis baitiat piko baten pean,  
Bertze ehun emanen bihar han berean.

## 8

Sastreak bere baitan : Itsuak etzakik  
Hartuak ditudala horren sosak handik :  
Eltze hau diruekin berriz han emanik  
Bertze hiru ehunak bilduko tiat nik.

## 9

Itsuaeren agintza balios izan zen,  
Biharamun goizeko eltzea han zuten,  
Ilobak erran zion : hemen dugu hemen,  
Oi, zein ongi sastrea enganatua den !

10

Moltsan behar diagu dirua ezarri,  
Lurpean hola-hola utzak eltze hori,  
Eta emok barnean bortz edo sei harri,  
Sastreak aski pisu altxa dezan sarri.

11

Itsuak sastreari: Errak to egia,  
Atzo bezala dukan arrai aurpegia  
Ala trixterik hagon doluan jarria.  
Dirua erain eta bildurik harria.

12

Itsu harpagon zikoitz laido emailea,  
Habil eta ez kolpa ene ohorea,  
Dirudun bahaiz ere, eta ni gabea  
Baduk aski zorigaitz hire ilunbea.

13

Ni itsu ilunbean, hi sastre erromes,  
Dezagun elgar lagun biek ditugunez.  
Nik egiten haut jabe ene ontasunez,  
Nahi banauk okertu hire begi batez.





## ITURINGO AROTZA

Ituringo arotza, Erramun Joakin,  
hasarre omen zaude zeren dugun jakin,  
santurik ez liteke fiatu zurekin:  
San Kristobal urtuta joaliak egin.

*Lara, lara, lara...*

Arotzak erran dio bere andreaki:

"Urtu behar dinagu; ekarran santu hori".

"Gizona, nora zoaz? Bekatu da hori".

"Etzionagu erranen sekulan inori".

*Lara, lara, lara...*

Ituringo garaile, Ramuntxo Joakin,  
hasarre omen zira zeren dudan jakin.

Konfesa zaitetz ongi erretorarekin:  
ez dute zer fidatu santuek zurekin.

*Lara, lara, lara...*

Kobrezko santurikan inon bazarete,  
egoten al zarete hemendik aparte:  
baldin arotz horiek jakiten badute,  
joaliak egiteko urtuko zaituzte.

*Lara, lara, lara...Lara la...*

*Ieup!*



## ITZALA

1

Epaile bat behin, konturatu zen  
hiru urrats eman ahala  
egun eta gau, gau eta egun  
norbait segika zeukala.  
Epaile jauna nora zihoan  
bera hara zihola  
pentsatu gabe agindu zuen:  
"Kartzelan sartu itzala!"

2

Bere baitako sentituko zen,  
epaitegiko marrazo  
batzu'n aldetik ez zuen izan  
ez kritika, ez grazo.  
Hedabideek, handi-mandiek,  
hartu zuten gozo-gozo  
titulatuaz: "Delako itzala  
arriskutsua zen oso".

3

Baina grazia handirik ere  
ez zion egin askori  
Justizi ezak ipini zuen  
kaleko giroa gori.  
Haur txiki batek kontatu zion  
"begira epaile ongi...  
mamu-mamitzen saiatu arren  
zeure itzala zen hori".

4

Epaile jauna konturatu zen  
bistan zuela uzkia...  
haren dardara, ezinegona  
eta kopeta bustia.  
Kartzelan sartu zituen biak:  
ilargia, eguzkia...  
egia esan zion haurtxoa  
ta mugitzen zen guztia.

bis



Itziarren semeak ez du laguna salatzen  
eta zakurren aurrean tinko eta isilik egoiten.

Itziarren semea: hori duk mutila  
inor salatu baino nahiago du hila.  
Harro egon litake Maji neskatila,  
Espetxetik jali ta joanen zaio bila,  
Maji neskatila, hori dun mutila!  
Inor salatu baino nahiago du hila.



Haurra, zer egin haute holan agertzeko?

-Ama jo egin naute mintza arazteko!

-Izenik eman al duk? Esantzak egia!

-Ez ama, ez dut eman! Jali naiz garbia!

-Jali haiz garbia? -Bai ama, egia!

Ta amak eskaini zion krabelin gorria...

Zazpi gizon nituen joka inguruan,  
makilaz hartu naute ostikoz lurrean,  
baina nik ez dut eman lagunen izenik,  
ta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik.  
Lagunen izenik ez baitut eman nik...  
ta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik!

Lau aldiz sartu naute uretan burua  
zangotik eduki naute zintzilikatua,  
baina nik ez dut eman lagunen izenik,  
ta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik.  
Lagunen izenik ez baitut eman nik...  
ta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik!

Izerdia ta odola burutik behera...  
ezpainak urratu ta azazkalak atera,  
baina nik ez dut eman lagunen izenik,  
ta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik!  
Odolez beterik, ni beti isilik!  
ta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik!

Itziarren semeak ez du laguna salatzen  
eta zakurren aurrean tinko ta isilik egoiten...  
Espetxerat igorri dute amak ez du ezagutu  
ta Majik, pulliki pulliki eman diozka bi musu.

## IZAI EDER

Jina zauku, eguberri,  
Kanpoak zaia xuri.  
Negu latza, bazterretan,  
Bainan bero bihotzetan.  
Izai berde, ta lerdena,  
Zu zira ederrena.

2

Primaderaz, zinen sortu,  
Oihanean haunditu.  
Gur'etxetan zira sartu,  
Argi-lorez panpinatu,  
Izai eder, ederrena,  
Zu zaitugu maitena

## IZARREN HAUTSA (1)

1

Izarren hautsa egun batean  
bilakatu zen bizigai,  
hauts hartatikan uste gabean  
noizbait ginaden gu ernai.  
Eta horrela bizitzen gera  
sortuz ta sortuz gure aukera  
atsedenik hartu gabe:  
lana eginaz goaz aurrera  
kate horretan denok batera  
gogorki loturik gaude.

2

Gizonak badu inguru latz bat  
menperatzeko premia,  
burruka hortan bizi da eta  
hori du bere egia.  
Ekin ta ekin bilatzen ditu ↑  
saiatze hortan ezin gelditu,  
jakintza eta argia:  
bide ilunak nekez aurkitu  
lege berriak noizbait erditu  
hortan jokatzuz bizia. ↓

3

↑ Gizonen lana jakintza dugu;  
ezagutuz aldatzea,  
naturarekin bat izan eta

5

Gu ere zerbait bagera ↑ eta ↓  
gauden tokitik hemendik bertan  
saia gaitezen ikusten:  
amets eroak baztertuz bertan  
sasi zikinak behingoz erreta  
bide on bat aukeratzen.

6

↑ Gizonen lana jakintza dugu;  
ezagutuz aldatzea,  
naturarekin bat izan eta  
harremanetan sartzea.

Gu sortu ginen enbor beretik  
sortuko dira besteak,  
burruka hortan iraungo duten  
zuhaitz ardaska gazteak.

7

Beren aukeren jabe eraikiz  
ta erortzean berriro jaikiz  
ibiltzen joanen direnak:  
gertakizunen indar ta argiz  
gure ametsa arrazoi garbiz  
egiztatuko dutenak.

8

bis



harremanetan sartzea.  
Eta indarrak ongi errotuz  
gure sustraiak lurrari lotuz  
bertatikan irautea:  
ezaren gudaz baietza sortuz  
ukazioa legetzat hartuz  
beti aurrera joatea.

4

**Ez** dadukanak ongi ohi daki  
eukitzea zein den ona,  
bere premiak bete nahian  
beti bizi da gizona.

**Gu** sortu ginen enbor beretik  
sortuko dira besteak  
burruka hortan iraungo duten  
zuhaitz ardaska gazteak.

*Gu* sortu ginen enbor beretik  
sortuko dira besteak  
burruka hortan iraungo duten  
zuhaitz ardaska gazteak.

## IZARREN HAUTSA (2)

1

Izarren hautsa egun batean  
bilakatu zen bizigai,  
hauts hartatikan uste gabean  
noizbait ginaden gu ernai.  
Eta horrela bizitzen gera  
sortuz ta sortuz gure aukera  
atsedenik hartu gabe:  
lana eginaz goaz aurrera  
kate horretan denok batera  
gogorki loturik gaude.

2

Gizonak badu inguru latz bat  
menperatzeko premia,  
burruka hortan bizi da eta  
hori du bere egia.  
Ekin ta ekin bilatzen ditu ↑  
saiatze hortan ezin gelditu,  
jakintza eta argia:  
bide ilunak nekez aurkitu  
lege berriak noizbait erditu  
hortan jokatzuz bizia. ↓

3

↑ Gizonen lana jakintza dugu;  
ezagutuz aldatzea,  
naturarekin bat izan eta

5

Gu ere zerbait bagera ↑ eta ↓  
gauden tokitik hemendik bertan  
saia gaitezen ikusten:  
amets eroak baztertuz bertan  
sasi zikinak behingoz erreta  
bide on bat aukeratzen.

6

↑ Gizonen lana jakintza dugu;  
ezagutuz aldatzea,  
naturarekin bat izan eta  
harremanetan sartzea.

Gu sortu ginen enbor beretik  
sortuko dira besteak,  
burruka hortan iraungo duten  
zuhaitz ardaska gazteak.

7

Beren aukeren jabe eraikiz  
ta erortzean berriro jaikiz  
· ibiltzen joanen direnak:  
gertakizunen indar ta argiz  
gure ametsa arrazoi garbiz  
egiztatuko dutenak.

bis

harremanetan sartzea.

Eta indarrak ongi errotuz  
gure sustraiak lurrari lotuz  
bertatikan irautea:  
ezaren gudaz baietza sortuz  
ukazioa legetzat hartuz  
beti aurrera joatea.

4

**E**z dadukanak ongi ohi daki  
eukitzea zein den ona,  
bere premiak bete nahian  
beti bizi da gizona.

8

**Gu** sortu ginen enbor beretik  
sortuko dira besteak  
burruka hortan iraungo duten  
zuhaitz ardaska gazteak.

*Gu* sortu ginen enbor beretik  
sortuko dira besteak  
burruka hortan iraungo duten  
zuhaitz ardaska gazteak.

## IZOTZ-ONDOKO EGUZKI

1

Izotz-ondoko eguzki,  
neguaren parre:  
olerkariak noizbait  
h<sup>ir</sup>i goratzarre.  
Emeki duk itxaroz  
piztu garai-larre:  
udaberri-lamiek  
larreon batzarre.

} bis.

2

Behetik nator, ibarrak  
izoztuta utziaz,  
mendia jaiez dago  
ur<sup>r</sup>ezko jantziaz.  
Haren parrea dadat  
irrika biaz,  
gozatua baitu gaur  
ezti bereziaz.

} bis.

3

U<sup>d</sup>alena irria  
ohi du zoro ozena:

} bis.

4

Bai-baitatza eria  
ogean, herio  
atzapar itsusia  
l<sup>u</sup>zatzen ario:  
berbizkunde-berria  
maiteak jario:  
hitzik ezin ta irria  
hain ezti dagio!

} bis.

5

Izotzak estali zuen  
gure Euskalerria;  
mintzo ozenak zabaldu  
ber<sup>b</sup>izkun berria.  
Itzal-zokondoetan  
lore, izotz-bitxia  
baina haren gainetik  
jauntzen eguzkia.

} 3. aldiz.

udak, haragikoia;  
udazkenak, bena;  
negu-gau ozkarbien  
izotz-ondorena  
guztiz bakarra duzu:  
denetan emeena!

Jaun baruak aspaldin  
xederak hedatü zütin,  
txori eijer bat hatzaman dizü  
Paubeko seroren komentin,  
orai harekin biziren düzü  
aspaldian gogun beitzin.  
aspaldian gogun beitzin.

Xedera balitz halako  
merkatietan saltzeko,  
Ziberuako aitunen semek  
eros litzazkiee oro,  
halako txori eijertto  
zunbaiten hatzamaiteko.  
zunbaiten hatzamaiteko.

Igaran apirilaren bürian,  
armadaren erdian,  
züntüdan bihotzian,  
armak oro eskian;  
present espiritian,  
manka besuen artian.  
manka besuen artian.



Jauna maite banaizü,  
erraiten düzün bezala,  
kita ezazü, kita ezazü  
Erregeren zerbüt<sup>u</sup>xüa,  
eta maita herria,  
üken dezadan plazerra.  
üken dezadan plazerra.

eta maita herria,  
üken dezadan plazerra.  
üken dezadan plazerra.



## JEIKI-JEIKI

Jeiki, jeiki etxekoak,  
argia da zabala,  
argia da zabala !

Itsasotik mintzutzen da  
zilarrezko tronpeta  
bai eta ere ikaratzen  
olandresen ibarra !  
olandresen ibarra !

Jeiki, jeiki etxekoak,  
argia da zabala,  
argia da zabala.

Itsasotik hurbiltzen da  
untzi bat kargatua  
gaitezen denak mentura  
haren atakatzera  
haren atakatzera.

Jeiki, jeiki etxekoak,  
argia da zabala,  
argia da zabala.  
Itsasoan agiri da  
argi gozoo biguna,  
bere aurrean beldurtuta  
ihes doa iluna  
ihes doa iluna.

Lotuz aire zaharrari  
dugun kanta pertsu berri  
joseba elosegiri x3  
gizon miresgarriari

Ene haur eta ahaide  
baita euskaldun haurride  
zonbait zaituztedan maite x3  
nehoiz nehork ez dakite

Adios mendi ederrak  
oihan ta itsas bazterrak  
adios Donostiarrak x3  
jauntziren ditut su-garrak

Arras triste da bizia  
askatasunik gabia  
herriarentzat hiltzia x3  
nuen nik neure lehia

Donostiko medikiak  
erien sendatzailiak  
utz otoi ene zauriak x3  
dagoden oroitgarriak

ni hiltzen baniz huntarik  
ez otoi egin nigarrik  
ez baitut nigar beharrik x3  
ez baitut jarraikilerik



## JUANA BIXENTA OLABE

1

*J. Bixenta:*

Amak esan dit etxeko errenta,  
pagatzeko dirurik ez zuen ta,  
ia egingo dion mesere,  
hilabetian gehienaz ere,  
itxoitia,  
bada ziertò dala ematia,  
pasa baino Jehen hilabetia.

2

*N. Jauna.*

Logratutzia, errex halare,  
nahiz hori ta beste zernahi gauza're,  
seguru dala esan amari,  
zu baldin bazatoz mandatari;  
dudarik gabe,  
nere borondate onaren jabe  
zu zera, Juana Bixenta Olabe.

3

*J. Bixenta:*

Beraz bertatik noa etxera,  
amari poz haundi bat ematera;

*J. Bixenta:*

Lotsa gogorra!  
Sufritzen dago gaur nere ondra,  
penak malkuak derizkit horra.

5

*N. Jauna.*

Nik ditut kulpak, ez egin negar,  
holakorik ez nizun esan behar;  
bihotzian sentitzen det mina,  
zuri ofensa hori egina,  
maldiziua!  
ez dakit nun neukan juiziua,  
eskatzen dizut barkaziua.  
( ..... )

6

Heldu zanian hurrengo goiza,  
nagusiak zuen kunplitu hitza;  
juan zitzaion amari etxera,  
andretzat alaba eskatzera,  
amak txit firme,  
hartuta gero mila informe,  
gelditu ziran biak konforme.

orain ario, nagusi jauna,  
presaka noa amarengana.

*N. Jauna.*

Ez zaitez jua!  
Portatu zaite nik nahi moduan,  
geratu zaite gaur nere onduan.

4

*N. Jauna.*

Gainera berriz, Juana Bixenta,  
utziko dizuet etxeko errenta,  
kito zor dirazuten guzia,  
kunplitzen baidazu kutizia.

7

Dama gaztiak, ez egon lotan,  
begira zaitezte ispilu hortan;  
gustatu-eta birtute ederra,  
andretzat hartu bere maizterra  
du nagusiak;  
horla irabazteko graziak,  
saia zaitezte beste guziak.

## KANTATUAZ

Kantatuaz, kantatuaz  
zorion eta penak,  
kantatuaz sortzen dira  
gure itxaropenak.

1

Goizian goiz argiari  
kantuz dabil txoria,  
udabarriz eguzkiak  
sortutzen dau loria.  
Euskaldunen bihotzari  
zor jako umoria,  
kantatuaz penak kentzen  
dator bertsolaria.

Kantatuaz, kantatuaz...

2

Kaiolako txoritxua  
ez al dozu ikusi?  
Kantatuaz alaitzen da  
nahiz eta preso bizi;

Kantatuaz, kantatuaz  
nahiz eta bizi preso;  
kantatuaz, kantatuaz,  
nor garan adirazo.

3

Errekatxuak alaitzen  
nau bere oihartzunez,  
itsasuaren deiari  
kantari erantzunez;  
gazteriak gizartian  
jokatzian zentzunez,  
kantatuaz nasaitzen da  
nahiz ta inork entzun ez.

Kantatuaz, kantatuaz  
nahiz eta bizi preso;  
kantatuaz, kantatuaz,  
nor garan adirazo.

Kantatuaz, kantatuaz  
nahiz eta preso bizi;

inguruan ikustian  
hainbeste injustizi,  
kantatuaz joan nahi dot  
mundu honen igesi

kantatuaz, kantatuaz,  
nor garen adierazi.

## KANTATUTZERA NOA XELEBREKERIAK

Kantatutzera noa xelebrekeriak,  
ez dira onak baina  
bai parregarriak,  
berri-berriak;  
neskatxa gazte batek  
beretzat jarriak.

Galai bat etorri zait larri eta estu  
ohiaren bazterrian  
egiteko leku  
xirri ta muxu;  
traje baten neurria  
nahi zidala hartu.

Onian ezin eta gero gogorrian;  
neurtu nahi ninduela  
luze-laburrian,  
ohiaren aurrian;  
oriñalez jo nuen  
kopeta-hezurrian.

Urrikaldu nintzaion ta egin nion kura;  
etxian zen botika; gatza eta ura;

Joxe Bentura;  
ez gehiago etorri  
nere konbentura.

- Egin badizut ere xirri edo mirri,  
nere kopeta-hezurak  
pagatu du ongi; Joxepa Antoni  
hartzekuak hartuta  
etxera noa ni.

## KANTORE BERRI

Kantore berri xarmant batzuen, hastera noa kantatzen,  
Iñorant denik balinbada, guziek jakin dezaten:  
Guziek badakizue badela, izar eder bat Luzaiden,  
Eztitasunez betia da eta, guziak ditu xarmatzen,  
Gaixoa hasi da tristatzen.

Jaun jainkoaren probidentzia, ez dea bada haundia ?  
Irauzketako plaza huntan, holako argi noblia,  
Argi horrek merezi luke, ederki adoratzeara,  
Oferendatzat emakozue, Mirra edo Intsensua,  
Ahal duenak urrea.

Barber gazte bat jiten omen da, Espainiako aldetik,  
Artizar horren kontsolatzerat, erremedioz beterik;  
Barber gazteak egin ote du, oi "mirakuilu handirik?"  
Erremedioak egin tu bainan, deus ez omen du hoberik  
Gaixoa utzi du tristerik.

Kontseluiño bat banikezu, xarmant emaiteko zuri:  
Barbera gazte horrenganik, ez balinbazira eri,  
Nahi ba duzu kontserbatu, zure argi eder hori,  
Gezurño zonbait errakozute, adoratzaille hoieri  
Eta ez fida nehorri.



## KANTU JIRA KANTUEN BIDEZ

1

Hilean behingo elkartze horrek  
nola baduen distira,  
egun batzuek lehenagotik  
larunbatari begira.  
**"Triste bizi naiz"** kantuarekin  
hasten dugu gure jira,  
bainan tristurak kantuen bidez  
erraz uxatu ohi dira.

2

Bilintx dendaren alboan Bilintx  
zenaren hitzak egoki,  
penak kentzeko modu onena  
da aitortzea ozenki.  
**"Zurekin, ja, jai!"** esango dunik  
nahiz ez den faltako noski,  
kantuen bidez bizipozari  
gingo diogu toki.

3

**"Hegoak"** kantaz seme-alaben  
oroipenek bete naute,  
ume izanak haunditu dira

5

Kantuen bidez esan nahi dizut  
niretzat zaren guztia,  
gau ilunean solas isila,  
egun argiz eguzkia.  
Ezpain dardarti xuxurlariez  
doakizu abestia:  
**"Zure begiek ene maitia  
badute ... dirdir ezta"**

6

Xiberoako kantuen bidez  
datorkigun oihartzuna,  
herri bat lotzen duen haria  
edo ta amets urruna.  
Oihal batetik jantziak gara  
herri egiten gaituna,  
**"Guraiziakin bereizi arren"**  
euskara dugu jostuna.

7

Ordu pare bat igaro eta  
ase nago eta lasai,  
Kantuen bidez hasierako

bis.

kabitik aldegin dute.  
Pena pixka bat emanagatik  
kexu naizenik ez uste,  
kantuen bidez esaten diet:  
**"nik txoria nuen maite".**

4

Zenbait kantutan gure ahotsak  
elkarturik entzutean  
herri sentipen ukazina  
pizten da gure artean  
Kantuen bidez aitorten hauxe  
datorkit bete-betean:  
**"ez zaigu hilgo Euskal Herria  
ni bizi naizen artean".**

tristurak joanak dira bai.  
Ahal den neurrian bizi nahi nuke  
lagunen artean alai,  
eta **"bestela datozen penai  
ez diet surik bota nahi"**

8

Xalbadorrena kantatu eta  
gaurkoa bukatua da,  
hurrena ere gozatu nahiaz  
hemen elkartuko gara.  
Eta barruko sentimentuak,  
ekarri lasai plazara,  
lotsarik gabe, kantuen bidez  
bidali **"lau haizetara"**

## KANTUZ

Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi,  
kantuz igortzen ditut nik penak ihesi;  
kantuz izan dudano zerbait irabazi  
kantuz gostura ditut guziak iretsi:  
kantuz ez duta, beraz, hiltzea merezi ?

Kantuz eman izan tut zonbeiten berriak,  
kantuz atseginekin erranez egiak;  
kantuz egin baititut usu afruntuiak,  
kantuz aitortzen ditut ene bekatuiak,  
kantuz eginen ditut nik penitentziak.

Kantuz ehorts nezate, hiltzen naizenian,  
kantuz ene lagunek harturik airian;  
kantuz ariko zaizkit lurrean sartzian;  
kantu frango utziko diotet munduian,  
kantuz has ditzen beti nitaz oroitzian.

## KASETA HUNTAN

Kasetan huntan pertsu berriak,  
Izaiten dira noiztenka.  
Noizean behin, eros ditaike ,  
Gure euskaldun kasetan.  
Gure patroinak ekarri baitaut  
Aste huntako sujeta.  
Bihotz guziaz gorets dezagun ,  
Jondoni Joanes Batista.

Orai duela , aste batzuek ,  
Bestak gintuen herrian.  
Frango luzeak egiten dira,  
Oraiko moda berrian.  
Gaua ez dela aski luzea,  
Etxerat sartuz argian.  
Hola bederen trankil baigira,  
Mamurik ez den bidean.

Bi emazteki entzunak ditut,  
Bat bertzeari erraiten:  
Gure gizona atzo goizean,  
Argituz geroz sartu zen!  
Bakar bakarra egotua naiz,  
Ene kabalen artatzen.  
Goseak ere hilen lituzke,  
Nik ez banintu bazkatzen!



Bertzeak aldiz arrapostua:  
Badut etxean holako !  
Neurearekin balin bazine,  
Ez baitzinuke hobeko !  
Irabaziak ez ditu aski,  
Pipako eta arnoko.  
Lanak ene gain eta saritzat,  
Bizkarrean zenbait panpako !

Gizontto horiek har dezatela,  
Kantu hauetan etsenplu,  
Noizean behin behar luzkete,  
Beren etxetan kantatu.  
Orroit daitela ez dela behar,  
Bere lagunik zafratu !  
Mundu hunetan ez baita deusik,  
Esposa bezain sakratu !



## KASKAZURIK BERE BURUARI

Kantatutzera nua bertso bat edo bi  
Kaskazurik jarriak bere buruari,  
gustoik ez diot hartzen bizimoduari  
deskalabrua pranko gertatu zait neri.

Kojo gelditu nintzan txiki-txikitandik  
paretara iyo ta erorita handik;  
informe txarrak dauzkat gaur askorengandik  
neretzat berri onik ez dator inundik.

Dama batek nahi zidan karga hau arindu,  
pretenditu ninduen, ez nion agindu;  
amets gaixtua pranko geroztik egin du,  
trixtia urriki nuen ni hartu banindu.

Aitak ere nahi zuen biok ezkontzia,  
bainan etzan posible ni ondo portatzia,  
hobe da zer datorren kontsideratzia,  
nola nahi hartzekua ez da gurutzia.

Ez nau inkomoratzen besteren lujuak,  
deklaratzera nua nere enojuak:  
zurrutak tiratzen nau, pixka bat jokuak,  
atarramentu onik ez dauka kojuak.

Txiki-txikitandikan harro ta tunante,  
kontrariua pranko, gutxi dut amante;  
lan honek segituko nau bizi naizen arte,  
aitzurak eta palak muatuko naute.

## KATTALIN

1

Etxe txiki txukun baten  
zure aitetamekin  
zinen bizi, zintzo bizi  
ene maite Kattalin.

2

Ene maite, ene maite  
ene maite Kattalin  
sekulako ta betiko  
galdu zaitut Kattalin.

3

Baina eder zinen zinez  
zine izar bat bezin  
ile gorri (baita zorri)  
zuk bazenun Kattalin

4

Ene maite, ene maite  
ene maite Kattalin  
sekulako ta betiko  
galdu zaitut Kattalin.

5

Ibaiera zinen joaten  
zure ahate beltzekin  
goiz batean, bat-batean  
ito zinen Kattalin.

6

Ene maite, ene maite  
ene maite Kattalin  
sekulako ta betiko  
galdu zaitut Kattalin.



7

Hilerrian bada lore  
eguzki lili, krabelin  
zu zaituzte badut uste  
ongarritzat Kattalin.

8

Ene maite, ene maite  
ene maite Kattalin  
sekulako ta betiko  
galdu zaitut Kattalin.



## KONTRAPAS

### 1

Garaziko herria  
benedika dadila  
euskarari eman dio  
behar zuen tornuia

Euskara, euskara,  
jalgi hadi plazara !  
Euskara, euskara,  
jalgi hadi plazara !

2

Bertze jendek uste zuten  
ezin izkriba zaiteien.  
Orai dute porogatu  
engainatu zirela.

Euskara, euskara,  
jalgi hadi dantzara !  
Euskara, euskara,  
jalgi hadi dantzara !

3

Bertzeak oro izan dira  
beren goien gradora.  
Orai hura iganen da  
bertze ororen gainera.

Euskara, euskara,  
jalgi hadi mundura !  
Euskara, euskara,  
jalgi hadi mundura !

4

Oraindaino egon bahaiz  
inprimitu gaberik.  
Hi engoitik ebiliren  
mundu guzi<sub>u</sub>tarik.  
Hi engoitik ebiliren  
mundu guzi<sub>e</sub>tarik.

5

Euskara, euskara,  
jalgi hadi kanpora !

Euskara, euskara,  
jalgi hadi plazara !

Euskara, euskara,  
jalgi hadi dantzara !

Euskara, euskara,  
habil mundu guzira !

## KONTXESIRI

Maite bat maitatzen det, maitagarria;  
begi ederra du ta guztiz argia;  
daukat urruti,  
bainan ezin kendu det burutik  
haren itxura;  
saldu al baliteke pisura,  
urriaren truke;  
nork erosi faltako ez luke. ] bis

Lehengo gau batean egin det amets,  
bainan pentsamentuak beti aldrebes  
irtetzen dira;  
ustez nengoen zuri begira  
maite polita,  
kofrearen gainean jarrita,  
kontu kontari;  
nahi nuen bainan ez nintzan ari. ] bis

Hogei ta lau leguaz nago aparte;  
bitartean badaukat milloi bat ate,  
guztiak itxirik;  
nahi arren ezin egon ixilik,  
beti negarrez;  
nere maite maitearen galdez;  
ote dan bizi,  
bihotz-bihotzeko ene Kontxesi. ] bis

Esperantzetan bizi, maite gozoa  
noizpait kunplituko da gure plazoa.  
Eta orduan,  
gauza txarrik ez hartu buruan  
lehengoai utzi,  
ez degu pasatzen pena gutxi,  
preso sei urtez,  
onduko gaituzte nere uztez. ] bis

Egunaz argi gutxi, gabean ilun;  
kotsuelorik ez da neretzat inun,  
maitea gabe;  
egin ote nadin haren jabe  
oroitutzean,

] bis



zenbat pena nere bihotzean  
ditut igaro;  
maite det eta ez da milagro.

## KUPELA

Gertakizun polit bat behin Asturiasen  
ez dakit guziekin gogorako naizen  
lagun bat eta biok andrekin hain zuzen  
sagardotegi baten afaria baitzen  
numero dotoreak ikusi ginuzen.

Kupela, kupela sagardoen hotela  
kupela, kupela zaindu ezak horrela.

Talde bat osatu zen mutil ta neskatxa  
festan pasa nahi zuten gurekin arratsa  
tragotikan tragora ze nolako martxa  
sagardoan daukate afizio latza  
gehiegi edan genduen hori zen akatsa.

Herrialde denetan ohiturak badira  
esneakin jua ziren sagardotegira  
handik basoka bana ohituren neurrira  
gero sagardoari txotxetikan tira  
barrez egon nintzaien albotik begira.

Lehenen esne tragoa ohitura bezala  
esan nien ez al zen edari makala  
sagardoa hobeto asentatzen zala  
nahiz geroagoan ez zen izan hala  
hiru ordu baino lehen egin zuten txahala.

Leku berria zen ta joan ginen pozak  
festarako gera gu mutil aproposak  
geureak aitortzeko zertan egon lotsak  
sarri ireki ziren ziri edo zotzak  
bapo kendu ginuzen hanketako hotzak.

Umirez jarri ginen ondorenean zer  
erderaz bertsoetan lo que hace el beber  
inguruko jendeak barrez egin zun leher  
erretiratu ginen emazteei esker  
txispatu ginen baina ez zen pasa ezer.

# LANGILE BATEN SEMEA

1

Langile baten semea naiz ni, ↑  
 aita bezela langile,  
 eguneroko ahaleginetan ↑  
 soldata baten egile;  
 esku hutsik jaio eta  
 esku hutsikan nabile, } bis.  
 puntakoetan inor etzaigu  
 gertatu ongile.

4

Horretan badet bizi geraden ↑  
 herriaren antza,  
 ezintasuna gailendu eta ↑  
 bakardade latza;  
 hezurreraino sartua } bis.  
 galtzailearen arantza,  
 eromen kolpez berpiztu nahirik  
 gure esperantza.

2

Aita ta amak nahiko ninduten  
 fabrika batian,  
 bizitzarekin burrukatzeko ↑  
 altzairu tartian;  
 bidetxiurretik noa, } bis.  
 agian nere kaltian,  
 baina ez det uste nabilenikan  
 horren apartian.

5

Gitarra txar bat hartu nuen ta  
 hemen nabil deman  
 euskaldun zaharrok aspalditikan ↑  
 beti dugun teman;  
 ardo mindua edanaz } bis.  
 Historiaren tabernan,  
 nahiz muturreko galanki jaso  
 bueltan ezin eman.

3

Izerdi asko ez det ixurtzen  
 larreko pendizan, }  
 paper tartean murgildutako ↑ bis.  
 zomorroa izan,

6

Hamaika orru ta bertso arrunt ↑  
 nauzue botia, }  
 ez da erreza trebe xehetzen bis.  
 euskaldun otia;

limosnatik bizi diren  
umerzurtz batzuen gisan  
periodikuak ez dire gutaz  
mintzatzzen Parisan.

norbaitek esango balu  
hobe nukela joatia,  
neri berdin zait zuek hemen ta  
ni hor egotia.

## LAU HAIZETARA

1

Itsasondoko haize gesala  
marinelen bertsoa,  
zoaz urruti aidean;

lau haizetara  3 aldiz  
Donostiatik Iruñera.

2

Uzta garaiko gari-usaia  
segarien bertsoa,  
zoaz urruti aidean,

lau haizetara  3 aldiz  
Iruñetik Baionara.

3

Ezpain erien portu galdua,  
maitarien bertsoa  
zoaz urruti aidean,

lau haizetara  3 aldiz  
Baionatik Bitoriara.

4

Muga zaharrak mahastietan,  
gaiteroen bertsoa,  
zoaz urruti aidean,

lau haizetara  3 aldiz  
Bitoriatik Bilbaora.

5

Burnizko bihotz arrailatua,  
gabetuen bertsoa,  
zoaz urruti aidean,

lau haizetara  3 aldiz  
Bilbaotik Euskal Herrira.

1

Hemen gaude  
ta poztutzen naiz  
ta ziur zure aita ere bai  
ta zer ondo... zelan dijua  
zure bufanda txuria.



Lau teilatu gainian  
ilargia erdian eta zu  
goruntz beira,  
zure keia eskuetan  
putzara batekin... putz !  
Neregana etorriko da  
ta berriz izango gara  
zoriontsu  
edozein herriko jaixetan.

Goxo-goxo  
kanta eginazu  
Benitoren Maria Solt.  
Ez negarrik egin,  
txuri zaude ta malkoak  
zure kolorea kentzen dute.

Lau teilatu gainian  
ilargia erdian eta zu  
goruntz beira,  
zure keia eskuetan  
putzara batekin... putz !  
Neregana etorriko da  
ta berriz izango gara  
zoriontsu  
edozein herriko jaixetan.

Felix, felix bihar  
berriz egongo gara  
txanpain apur batekin  
diru gabe baina  
izarrak gurekin daude,  
piano baten soinuaz.

Lau teilatu gainian  
ilargia erdian eta zu  
goruntz beira,  
zure keia eskuetan  
putzara batekin... putz !  
Neregana etorriko da  
ta berriz izango gara  
zoriontsu  
edozein herriko jaixetan.



Gazte bat lurrian aurkitu dugu  
Lore gorritz beterik kolkoa  
Burdinen atzetik ihesi dator  
Euskal gazteriaren oihua  
Mutilak eskuak elkar gurutza  
Egin ta bultza denak batera  
Bidean anaia erortzen bazaik  
Lepoan hartu ta segi aurrera

Tria lara tria lara la la tria lara  
Lepoan hartu ta segi aurrera.



Ez dugu beldurrik, ez dugu lotsarik  
nor geran, zer geran aitortzeko  
ez gaituk lapurrak, ez eta zakurrak  
kataiaz loturik ibiltzeko.

Gizonak bagera, jozagun aurrera  
gure herriaren jabe egin arte  
askatasunaren hegal azpian  
kabia egiten ohituak gare  
ibiltzen aspaldi ikasia dugu  
otsoak eskutik hartu gabe.

Tria lara tria lara la la tria lara...  
Lepoan hartu ta segi aurrera.

Arrotzek ezpataz hil nahi banaute  
isilduko gaituztelakoan,  
zutitu ta euskaraz mintzatuko naiz  
nere hiltzailearen aurrean.  
Mutila etzazu nigarririk egin  
erortzen banaiz gau ilunean,  
izar berri bat piztutzero noa  
Euskal Herriko zeru gainean.

## LILI BAT IKUSI DUT

Lili bat ikusi dut baratze batean,  
Desiratzen bainuke nere sahetsean ;  
Lorea ez du galtzen , udan ez neguan,  
Haren parerik ez da bertze bat munduan !

Deliberatu nuen gau batez joaitea  
Lili arraro haren eskura hartzera ;  
Ez bainuen pentsatzen beiratzen zutela !  
Gau hartan uste nuen , han galtzen nintzela.

Etsenplu bat nahi dut eman guzieri,  
Eta partikulazki jende gazteari:  
Gauaz ibiltzen dena ez da zuhur ari ;  
Ni begiraturen naiz, eskerrak Jaunari !

## LIMOSNATXO BAT

Mutil koxkor bat itsu aurreko  
zuela aldamenian,  
gizon burusoil bizar-zuri bat  
bi makuluren gainian,  
kale ertzian ikusi nuen,  
inora ezin joanian,  
ta bera nor zan jakin nahiean,  
inguratu nintzarian...  
limosnatxo bat eskatu zidan  
Jainkuaren izenian

2

Zerbait emanaz galdetu nion,  
ahal zan modu onenian,  
jaiotzetikan al zeukan ala  
gaitzak hartua mendian.

Erantzun zidan, -Ez semia, ez,  
nik indarra nuenian,  
ez nuen uste iritxitzerik  
honetara azkenian...

Gaur limosna bat eskatutzen det,  
Jainkuaren izenian.

3

Eta jarraitu zuen esanaz:

-Lehengo gerrate denian,  
ni aurren xamar ibiltzen nintzan  
beti edo gehienian,  
nekatu gabe aixa igoaz  
aldapik luzienian,  
etzan burura asko etortzen  
gu hala gabiltzarian...  
gero limosna eskatutzerik  
Jainkuaren izenian.



4

Odola bero eta burua  
harrua daguanian,  
edozein eran sartutzen da bat  
halako itsumenian,  
atsekabe ta negar saminak  
badatoz ondorenian,  
nola erabait batek bizia  
utzitzen ez duenian...  
limosnatxo bat eskatu bihar  
Jainkuaren izenian.

# 5

Inoiz pentsatzen nere artian,  
ni jartzen naizenian,  
gaur ere asko dirala joango  
lirakenak zuzenian,  
ez luke inork sinistatuko  
zer pena ematen didan.  
Ai! horla nintzan ni ere sendo  
ta gazte nenguanian...  
gaur limosna bat eskatutzen det  
Jainkuaren izenian.

6

Ai ! txorakeri asko egiten  
da zentzurik ez danian,  
sinista zazu ur hau pasia  
daukanaren esanian,  
hobiago da, garai den arte,  
ahalegintzia lanian,  
negar eginaz ibili gabe  
gero denbora joanian...  
limosnatxo bat bildu ezinik  
Jainkuaren izenian.

Mendian larrartean  
aurkitzen da loretxo bat  
aurrean umetxo bat  
loretxoari begira.

Loreak esan nahi dio  
umetxo aska nazazu,  
jaio naiz libre izateko  
ta ez loturik egoteko.

Umetxoak ikusirik  
lorea ezin bizirik  
arantzak kendu nahi dizkio  
bizi berri bat eman,  
orduan izango baitu  
indarra eta kemena  
orduan emango baitu  
ugari bere fruitua.

orduan emango baitu

ugari bere fruitua.

1

Loriak udan ihintza bezela  
maite det dama gazte bat,  
hari hainbeste nahi diotanik  
ez da munduan beste bat;  
inoiz edo behin pasatzen badet  
ikusi gabe aste bat,  
bihotz guztira banatutzen zait  
halako gauza triste bat.

2

Neskatxa gazte, paregabea,  
apirileko larrosa,  
izarra bezin dirdizaria,  
txoria bezin airosa;  
oraintxen baino gusto gehiago  
nik ezin nezake goza;  
zorionian ikusten zaitut,  
nere bihotzak, hau poza !



3

Ez al dirazu antzik ematen  
nik zaitudala nahiago,  
ai! marinelak gau ilunian  
izarra baino gehiago,  
nere onduan zauzkatalako  
pozez zoraturik nago,  
zu ikustiak alegratu nau  
triste negoen lehenago.

4

Nere betiko pentsamentua,  
nere konsolagarria,  
zu gabetanik ezin bizi naiz  
esaten dizut egia;  
zu bazinake arbola eta  
ni baldin banintz txoria,  
nik zu zinaken arbola hartantxen  
egingo nuke kabia.

# 5

Falta duenak logratutzeko  
hitz egitea txit on du,  
eta nik ere saiatu biha't  
ote gintezken konpondu;  
gaur nagon bezin atrebitua  
sekulan ez naiz egondu,  
hargatik kolpez galdetzen dizut  
nerekin nahi'zun ezkondu

6

Zerorrek ere ongi dakizu,  
aspaldi hontan nagola,  
zuregatikan penak sufritzen,  
baina ordea, hau nola!  
Halaxen ere nigana ezin  
bigundu zaitut iñola;  
ni zuretzako argizaia naiz,  
zu neretzako marmola

7

Zu zeralako medio baldin  
joaten banaiz lur azpira,  
gero damua eta malkoak  
alperrik izango dira;  
behin joan ezkerro, hoiien birtutez  
berriz ez ninteke jira;  
hori gertatu baino lehenago  
izazu nitzaz kupira!

## LÜRRALDE ZILARRA

Ametsik gabeko gaü hotz lüzetan,  
zure itzalean galtzen düt izarra;  
badakit aidürü zütüdala nonbait,  
ene bihotzeko lürralde zilarra.

Ametsik gabeko gaü hotz lüzetan,  
zure auhenetan non dago iparra?  
Badakit bakarrik zütüdala nonbait,  
ene bihotzeko lürralde zilarra.

Arbelezko hegatzen herriak  
maiatzeko lantzer ixiletan,  
begirada maitekor berriak  
bilatzen dütüt xenda hiletan.

Ardo minberatik edaten düt orai,  
erreka ondoan histü da lizarra,  
mahasti zaharrak elkirik direla,  
ene bihotzeko lürralde zilarra.

Ardo minberatik edaten düt orai,  
lehen bezala gaür asmatüz biharra,

txerkatüko zütüt, kürüt~~a~~tüko gira,  
ene bihotzeko lürralde zilarra.

Arbelezko hegutzen herriak  
maiatzeko lantzer ixiletan,  
begirada maitekor berriak  
bilatzen dütüt xenda hiletan.

# MAITASUN AROAK



1

Haurtxo nintzela kontatzen nuen  
↓  
nola maitemindua nintzen  
guztiek irri egiten zuten  
ta ikasi nuen ixiltzen.

2

Gaztetxo nintzen eta nioen  
↓  
"Ez dakit nork maiteko nauen!"  
Eta nekien hura oroitzuz  
eskolatik alde egin nuen.

Maitale baten ixil oroimena  
entzuten ez den hasperena  
gogoan ixil dabilena  
ahaztean gelditzen dena.

3

Gazte nintzela harrotzen nintzen  
↓  
"Nik ezin dut izan baten gai"  
Bainan izen bat ixiltzen nuen  
hura izanik agian bai.

4

Heldu nintzela aitortzen nion:  
"Zutaz besterik ez dut maite!"  
Eta ixilik neraman hari  
ezin erran urrundu zaite!

Maitale baten ixil oroimena  
entzuten ez den hasperena  
gogoan ixil dabilena  
ahaztean gelditzen dena.

5

Azken-azkenik maite nautenek  
naramate beste mundura.  
Batek negarrik ez du egiten  
ene hilkutxan dator hura.

Maitale baten ixil oroimena  
entzuten ez den hasperena } bis  
gogoan ixil dabilena  
ahaztean gelditzen dena.

ahaztean gelditzen dena. } bis

# MAITASUNEZ HIL

1

Hamahiru urte nituenean,  
oraindik galtza motxetan,  
bere atzetik ibiltzen nintzen  
herriko kale hotzetan;  
printzesa hura behar bezela  
kortejatzeko lotsetan  
bere etxera lagundu nahirik  
eskolatik arratsetan.

2

Oh, oh, ez, esaten zuen  
oraindik ez, gaztetxo naiz.  
Oh, oh, ez inolaz ez,  
etxera joan behar dut garaiz.

3

Hemezortzira ailegatuta  
romantizismoz beterik  
etzan posible eromen hura  
bazter batera uzterik;  
aingeru harek ez zidan sortzen  
sufrimentua besterik,  
sekulan ere ez nuen lortu  
bi besoetan hartzerik.

Oh, oh, ez, esaten zidan,  
maitemintzeko gaztea naiz.  
Oh, oh, ez, oraindik ez,  
lotsa ematen dit ta ez dut nahi.

4

Lotsaren lotsez pasa ta gero  
dozenerdi bat eskutik,

Oh, oh, ez, erantzun zidan,  
aspertzen nauzu, zoaz apaiz.

Oh, oh, ez, inolaz ez,  
beste batekin ezkontzen naiz.

5

Festa batean ikusi nuen  
handik zortzi bat urtera,  
ta hotz-hotzean ausartu nintzen  
sagar helduen hartzera  
irrifar doble makur batekin  
izkutatu zen atzera:  
ez zen ausartzen bere zezena  
adarrez adornatzera.

Oh, oh, ez, ez da posible,  
horrelakorik ez nuke nahi.

Oh, oh, ez, inolaz ez,  
ni etxekoandre jator bat naiz.

6

Mutilzahartuta bizi nintzela  
laugarren pisu batean,  
behin ustē gabe topatu nuen  
gure etxeko atean...  
Bere onenak gastatutako  
alarguna zen artean,  
eta honela erantzun zidan,  
oraingoz bion kaltean.

Oh, oh, ez, orain ja ez,  
nahiz eta zutaz pentsatu maiz.

Oh, oh, ez, inolaz ez,  
oheratzeko zahartu naiz.

bis.



## MAITATUA SOBERA (AMA)

1

Maitatua sobera, nintzelarik haurra,  
Ez nakien nik zer zen amaren beharra ;  
Bortu batean orai naiz bakar bakarra,  
Amaz oroit orduko heldu zaut nigarra !

2

Hegalñoak azkartzen sendituz geroztik,  
Baitoazi xoriak ohantze goxotik;  
Halaber joan ninduzun amaren altzotik,  
Ahantzia bainute herrian engoitik !

3

Bainan ama gaixoak ez nu ez ahantzi,  
Maiz daut Euskal-Herritik igortzen goraintzi ;  
Hautsi nion bihotza nuenean utzi,  
Neretzat baizik ez da halere han bizi.

4

Bero daukat nik ere bihotzean garra:  
Jainkoak piztu zauntan euskaldun pindarra,  
Ama baitut oraino minetan indarra,  
Ama, gau ilunean argidun izarra !!!

## 5

Nere bortu gainetan baniz enoatzen,  
gaizkirat balinbazaut bihotza lerratzen,  
zure begi garbiez, ama naiz oroitzen  
Eta lanari gero kuraiekin lotzen !

## 6

Oi! Maiz ametsetarik izan dut gogoan  
Goxoki nindagola lehen ohakoan :  
Aingeruer begira, ganbara xokoan,  
Eta, zu, hantxet irriz ama ner.ondoan

7

Frangotan huts ohiez oroitzen ere niz...  
Ama! Gazte denbora berriz haste balitz ?  
Nigar eginarazi dautzut ainitz aldiz,  
Nigarrak niri zauzkit jausten orai bortitz !

8

Aspaldi du naizela sor-etxetik joana,  
Hamargarren urtea hurbil iragana;  
Noiz ote naiz hemendik jinen zure gana,  
Ama, saristatzera zor dautzutan lana ?



9

Untziak noiz nu berriz horrat eremanen ?  
Etxerako bidexka noiz dut nik iganen,  
Eta zutatik, ama, musu bat ukanen ??  
Oi! Ba, laster dautazu agian emanen !!

10

Aho batek eztiki diolarik: Ama !  
Hitz goxo bakar horrek mundu bat derama.  
Ama baino hoberik zer ditake asma ?  
Horren maitatzen beraz gaiten oro tema !"



## MAITE ZAITUT

Koloretako ametsak  
esna nagoenean  
eta ezin loak hartu  
gaua iristen denean.  
Saltoka hasita hegan  
egiteko gogoa,  
nire bihotza taupaka  
aire ertzera doa.

Elkarrekin hankaz gora  
buruz behera jartzean,  
tunelean sartu eta  
irrintzika hastean,  
bitxiloreekin pultsera  
egin dizudanean,  
begietara begira  
hauxe nahi dizut esan:

**Maite zaitut,  
maite- maite zaitut;  
pila, pila, pila patata tortilla!  
Maite zaitut. Maite-maite zaitut,  
ilargiraino\_eta buelta maite zaitut**

Begietako dirdira,  
irribarrea ahoan,  
ezin ditut ezkutatu  
zu ikusterakoan;  
hanka eta eskuetan,  
gorputzean, dardara;  
nire bihotza taupaka  
aire ertzera doa.

Elkarrekin ortzadarra  
margotu dugunean,  
ispiluan nire izena  
idatzi duzunean,  
irratia piztu eta  
doinu hau entzutean,  
begietara begira  
haxe nahi dizut esan:

**Maite zaitut,  
maite- maite zaitut;  
pila, pila, pila patata tortilla!  
Maite zaitut. Maite-maite zaitut,  
ilargiraino\_eta buelta maite zaitut**



## MAITIAK GALDE EGIN ZAUTAN

Maitiak galde egin zautan  
polita nintzanez  
polit, polit nintzela baina,  
larrua beltz, larrua beltz.

Maitiak galde egin zautan  
premu nintzanez  
premu, premu nintzela baina,  
etxerik ez, etxerik ez.

Maitiak galde egin zautan  
moltsa banuenez,  
moltsa, moltsa banuela baina,  
dirurik ez, dirurik ez.

Maitiak galde egin zautan  
anean nakienez  
lanean, lanean nakiela baina,  
gogorik ez, gogorik ez.

Gaixoa hil behar dugu  
guk biok gosez  
gosez, gosez ez naski bainan,  
elkar maitez, elkar maitez !

Maria Solt ta Kastero  
bi amoros zahar bero.

Hirurogei-hamarna urtetan hartü die amorio  
Kastero jelostü gero Maria Solt ezarri kanpo.

Maria Solta dua nigarrez  
izorra dela beldürrez.

Barnets-Bordako anderiak kontsolatü dü elez  
emazte zaharrik oküpü agitzen eztela ez.

Maria Soltek arrapostü

Santa Elisabet badüzü

Saintu zahar bateganik oküpü agitü düzü

Kastero ere bada saintü, hala nizan beldür nüzü.

Kastero eztüzü saintü

sobera bürhaüti düzü

Elizalat juan eta taharnan egoiten düzü

Kastero denagatik saintü Maria Solt antzü zira  
zü.

## MARITXU NORA ZOAZ ?

- Maritxu nora zoaz,  
eder galant hori
- Iturrira, Bartolo,  
nahi badezu etorri.
- Iturrian zer dago ?
  - Ardotxo txuria
  - Biok edango degu  
nahi degun guztia

- Maritxu zuregana  
biltzen naizenian,  
poza sentitutzen det  
nere barrenian.
- Bartolo nik ere det  
atsegin hartutzen,  
ur bila noanian  
banazu laguntzen.

- Maritxu baldin asmo badezu ezkontzia, lehendabiziko nitaz oroitu zaitia.
- Zure mende jartzen naiz denbora guziko.
- Bartolorekin gaizki ez zera biziko



1

Zeruak eta lurra  
egin zituana,  
memoria argitzera  
atoz neregana.  
Esperantza badaukat,  
zerorrek emana,  
kunplituko dedala  
desio dedana.

2

Amodiozko penak  
bertso berrietan,  
publika ahal banitza  
Euskal Herrietan;  
enteratu naiz ongi  
enkargu hoietan,  
San Jose arratsaldeko  
hiru t`erdietan.

3

Markes baten alaba  
interesatua,  
marineruarekin  
enamoratua;  
deskubritu gaberik  
bere sekretua,  
amoriua zeukan  
barrena sartua.

4

Egun sinalia zan  
goguan hartzeko,  
esan ziola haren  
etxera joateko :  
Deseo dedan hitz hau  
manifestatzeko,  
zurekin, Antonio,  
nago izateko.

5

Zer esaten didazu,  
Juanita, hitz hori ?  
Tentatzen ai zerala  
trazak badirudi.  
Etzait zure gradurik  
tokatutzen neri ;  
ez burlarikan egin  
marineruari.

6

Eduki dezakezu  
ongi sinistua  
aspaldian neguala  
zutaz gustatua.  
Etzaitut nik utziko  
desanparatua;  
hala egiten dizut  
gaur juramentua.

7

Konformatu ziraden  
alkarren artian,  
ezkonduko zirala  
hurrengo urtian.  
Eskolak ikasteko  
bien bitartian  
beraren herritikan  
guztiz apartian.

8

Hala disponiturik  
jarri ziran biak  
kartaz entenditzeko  
alkarren berriak.  
Formalidadiakin  
jartzego egiak,  
baina etziran lo egon  
amaren begiak.



9

Alferrik izango da  
haserre gurian,  
ez naute mudatuko  
eternidadian.

Esposatu nahi nuke  
kariño onian,  
Antonio Maria  
etortzen danian.

10

Ezin egon zan ama  
hitz hori sufritzen,  
berehala hasi zan  
kartak detenitzen;  
intentzio haundiagoz  
ezkontza galdutzen...  
Juanitak halakorik  
etzuen pentsatzen.

11

Amaren malezia,  
korreora juan ta  
Antonio hil zala  
egin zuen karta  
Juanitaren tristura,  
maitia izan ta,  
engainatu du beste  
gezur bat esanda.

12

Amak esaten dio:  
Juanita neria,  
galdu da diotenez,  
Antonio Maria...  
nik bilatuko dizut  
beste bat hobia,  
maiorazgo interes  
askoren jabia.

13

Ama ez neri esan  
horrelakorikan,  
ez det nik bestegana  
amteriorikan.

Ezin alegre leike  
nere barrenikan  
komententzia ona  
egonagatikan.

14

Utzi alde batera  
horrelako lanak,  
ez ditut nik ikusten  
zu bezela damak.  
Nahi badituzu hartu  
onra eta famak,  
giatuko zaituzte  
aitak eta amak.

15

Denbora kunpliturik  
galaia abian,  
zer pasatu ote zan  
haren memorian ?  
Kartarik hartu gabe  
juan dan aspaldian  
inozente sartu zan  
jaio zan herrian.

16

Hau da lehendabiziko

esan zenduana :

Zer da musikarekin

onratzen dutena ?

Markesaren alaba

kaliak barrena.

esposario zala

hark bihar zuena.



17

Desmaiatu egin  
zuen ordu bete,  
gero nobia eske  
hitz bi egin arte;  
inguratu zitzaion  
makina bat jende,  
bigarren ordurako  
hil da derrepente.

18

Gaua pasatu eta  
hurrengo goizian  
entierrua zuen  
bigarren klasian;  
markesaren alaba  
guzien atzian,  
zer pena izango zan  
haren bihotzian.

19

Penarekin leherturik

Antonio hil zan,

akonpainatu zuen

Juanitak elizan.

Naitasuna bazion

esan dedan gisan,

geroztikan etzuen

osasunik izan.

20

Erremedia balei  
sentimentu hori,  
bitarteko bat jarri  
Jesus maiteari,  
orazio eginaz  
Birjina Amari,  
zeruan gerta dedin  
Antonio Mari.

21

Alkarren konpañian  
guk ere nahi degu,  
Birjina, egiozu  
Jaunari erregu  
kristau guziogatik  
baldin ahal bazendu,  
Iturrinok horrela  
desiatutzen du.

MARTXA BATEN LEHEN NOTAK

Eguzkiak urtzen du goian  
gailurretako elurra,  
uharka da jausten ibarrera  
geldigaitza den oldarra.

2

Gure baitan datza eguzkia,  
iluna eta izotza  
urratu dezakeen argia,  
urtuko duen bihotza.

3

Bihotza bezain bero, zabalik  
besoak eta eskuak,  
gorririk ikus dezagun egia,  
argiz beterik burua.

Batek gose diraueno  
ez gara gu asetuko  
bat inon loturik deino  
ez gara libre izango.

4

Bakoitzak urraturik berea,

denon artean geurea,  
etengabe gabiltza zabaltzen  
gizatasunari bidea.

5

Inon ez inor menpekorikan,  
nor bere burua'n jabe,  
herri guztiok bat eginikan  
ez gabiltz gerorik gabe.

Batek gose diraueno  
ez gara gu asetuko



bat inon loturik deino  
ez gara libre izango.

Eguzkiak urtzen du goian  
gailurretako elurra,  
uharka da jausten ibarrera  
geldigaitza den oldarra.

Dolü gabe, dolü gabe hiltzen niz,  
bizia Xiberuarentako emaiten baitüt.

Agian, agian, egün batez  
jeikiko dira egiazko xiberutarrak  
egiazko eskualdünak  
tirano arrotzen ohiltzeko.

Agian, agian, egün batez  
jeikiko dira egiazko xiberutarrak  
egiazko eskualdünak  
tirano arrotzen ohiltzeko.

## MEHETEGIKO XAKURRA : XURIKO

Gratien Adema, Zaldubi, 1867

Mehetegiko xakurra, Zangoz, errainez makurra,  
Berga bat luze muturra, Larrutik hurbil hezurra,  
Urte guzia barura, Zeren zen toki xuhurra.

Amak ttikitik utzia, Esnerik gabe hazia,  
Tripa errainei josia. Uliek jaten hasia:  
Xurikok bere bizia Hola derama guzia.

Mahainpetik kokoriko, Begira dago Xuriko,  
Artho axaltto bat noizko Ote zaion eroriko...  
Nausiak ematen daizko Dohan hortik bi ostiko.

Xakur gaixoa holakoz Merke hazten zutelakoz,  
Tripa hutsik, ilun gogoz, Pleinuz zagon egun oroz:  
Hatzka zangoz eta besoz. Nihun ez zauken  
kukusoz.

Ohoinak ere noiznahi Horren sainga ilaunari  
Gabaz ziren irriz ari: Xakur prestua hi haiz, hi !  
Gero, ixiltzea sari, Jo harrika gaixoari.

Egun batez, baratzer a Huiatzen dute lanera  
Doan oilo haizatzer a.. Xakur gose ta minbera,  
Buztana tripaz behera, Ihes doa gordetzer a.

Martin, etxeko mutila, Zalu harturik makila,  
Haren ondotik dabila. Xuriko, xakur abila,  
Lastoan ixil-ixila Dago alegia hila.

Zenbeit gau egun bakarrez, Gorde egonik  
herabez,  
Atera zen jan beharrez, Hamikatua, nigarrez,  
Estalia zaragarrez, Lakastaz eta zakarrez.

Sukaldean nihor ez da; Sartzen da xakur  
herresta.

Errekia zen pres-presta, Zeren zen herriko  
besta;

Usain, milik'eta jasta, Dena jaten du has eta.

Etxeko andre kexua Hor heldu da hats-hauntua:

"Zakur madarikatua, Eia, hor, usu-usua,  
Nik, hauts artean burua, Egik hire ordenua".



Ordenuak hau du beltza Denen uztea  
bertzenta ;

Xurikok badaki ontsa Nori zer utz nola pentsa.  
Etxekandriari gantza; Nausiari azken putza.

Bizian gosez egonik, Hiltzean sobera ganik,  
Huna Xurikok erranik Zer entzun dugun azkenik:  
"Gose dagonarenganik Ez daitekela lan onik".

## MENDIAN GORA

### 1

Mendian gora haritza,  
ahuntzak haitzean dabilta,  
itsasoaren arimak dakar  
ur gainean bitza.

Kantatu nahi dut bizitza  
usteltzen ez bazait hitza,  
mundua dantzan jarriko nuke  
jainkoa banintza.

2

Euskal Herriko tristura,  
soineko beltzen joskura,  
txori negartiz bete da eta  
umorez hustu da.

Emaidazue freskura,  
ura eskutik eskura,  
izarren salda urdina edanda  
bizi naiz gustura..

3

Euskal Herriko poeta,  
kanposantuko tronpeta,  
hil kanpaiari tiraka eta  
hutsari kolpeka.

Argitu ezak kopeta,  
penak heuretzat gordeta,  
goizero sortuz, bizitza ere  
hortxe zegok eta..

# 4

Mundua ez da beti jai,  
inoiz tristea ere bai;  
baina badira mila motibo  
kantatzeko alai.

Bestela datozen penai  
ez diet surik bota nahi;  
ni hiltzen naizen gauean, behintzat,  
egizue lo lasai..

MUÑAGORRIEN BERTSOAK

1

Muñagorrik diona  
bere proklamian,  
gerrak hondatzen gaitu  
bosgarren urtian;  
igaz jarrikan Karlos  
Madrilgo bidian  
bultza zuten atzera,  
gerra bere  
gerra bere oñian

2

Agintari onenak  
preso daduzkate;  
euskalduna izatia  
du bakoitzak kalte.  
Tejeiro ta Maroto  
guzien alkate;  
zer gizon hoietatik  
espera  
espera gentzake.

3

Karlos agertu ezkerro

4

Semiak soldatu ta  
preso gurasuak,  
ezin pagaturikan  
kontribuziuk.  
trintxera lanetara  
gainera auzoak.  
Dolorezkoak dira  
gaur gure  
gaur gure pausoak.

5

Kordoiz inguraturik  
kostatik Ebrora,  
trabaz gaude josirik  
bera eta gora.  
Atzenikan frantsesak  
itxi du frontera.  
gerrak ez dakar onik  
inundik  
inundik inora.

6

Atiak itxi ta

bis

probintzi hauetan,  
beti bizi gerade  
neke ta penetan.  
Nahiz kendu guk duguna  
behin ere ezer eman;  
bost negar egiteko,  
nunbait jaio  
nunbait jaio ginan.

ogia garesti;  
artua ere ari da  
igotzen poliki;  
dirua ezkututzen da  
egunero hemendik,  
nola bizi garen bada  
harritutzen  
harritutzen naiz ni.

Arbasoen harkaitza  
Nafarroa, Nafarroa, Nafarroa  
arbasoen harkaitza  
Iur emankor hezkaitza  
bedatseko ekaitza  
ekiaren emaitza  
Nafarroa, Nafarroa  
arbasoen harkaitza.



Zazpietan lehena  
Nafarroa, Nafarroa, Nafarroa  
zazpietan lehena  
gaztelien auhena  
Santxoren hasperena  
gazteen itxaropena  
Nafarroa, Nafarroa  
zazpietan lehena.

Nafarroa, arragoa, argiaren pausaleku  
haizearen ibil-toki zabal, hesirik gabea.

Nafarroa, arragoa, sua eta ura,  
kondaira urratu baten oihartzun oihukatua.  
Amets bat baino gehiago,  
ez oparotasun osoa:  
nahiaren eta ezinaren  
burrukatoki ekaitzez betea.

Nafarroa, arragoa mahats eta gari  
maitasun eta gorroto gezur eta egia gurea.

Nafarroa, arragoa  
lur beroen sabel emankorra  
eta goiko mendi hotzen mendetako loa.

Nafarroa, Nafarroa, zuhur eta eroa,  
lurrik maitatuena,  
hormarik gabe utzitako etxea:  
erreka gardenen negarrez  
ibai lodietara ixurtzen ari den  
odol bustikoarraren iturri bizia.

Nafarroa, arragoa, izen bat eta oinarri,  
eta oinaze eta bidean zure bila ibiltzea,  
pinudiek usantzen dituzten harritxidorrerzko  
bideetan gora,  
O, Nafarroa, Nafarroa, betikoa. (bis)

## NAFARROAKO ERESERKIA

Nafarroa,  
lur handi ta azkar,  
beti leial,  
zure ospea da  
antzinako lege zaharra.

Nafarroa,  
jende askatuen sorlekua  
zuri nahi dizugu gaur kanta.

Gaiten denok bat,  
denok gogo bat,  
behin betiko  
iritsi dezagun bakea,  
aintza eta askatasuna.

Nere herriko neskatxa maite  
ahozko lorez zaitut gaur laztantzen  
itsaso garden, lur gozoko landare,  
kresalaren usain, zeru kolore  
nere bihotzaren taupaden hotsez  
zure grazia dut kantatzen.



Bihotz minberen egunsentia  
herri sufrituaren lamia  
ipuin zaharren piper eta ezitia  
erreka garbien kantu bitxia  
udazken lizunen zaude jantzia  
izar zerutarren irria.

Lanbro artetik itsas geldira  
leunki zoazen txori airosa  
amodiozko sentipenaren hatsa  
zure espainetan loratuz doa  
goizeko ihintzetan belardi zera  
eguzkitan zilar dizdira.

## NERE MAITIA JEIKI TA JEIKI

1

-Nere maitia jeiki ta jeiki  
ez al zerade loz ase. } bis

zure ondoren gabiltzan hauek  
ez baigerade logale,  
iriki zazu bortañe hori,  
adiskidiak gerade.

2

-Ez dizut bada nik irikiko  
gau ilunian aterik, } bis  
barrenen dagonak ez baitaki  
kanpokuaren berririk;  
zatoz eguna argitzen danian,  
egongo gera elkarrekin.

3

-Bihar goizian etorritzeko,  
urrun bizi naiz maitia; } bis

4

-Hona etorri dama gaztia,  
esan zenidan bezela. } bis

-Ongi etorri, galai gaztia,  
neronek nahi nuen horla;  
hitz bi gustora egin ditzagun,  
pasa zaitia salara.

5

Salara joanda kutxan eseri,  
begiretuaz elkarri } bis

-Inposible da ez zaituela  
Ama Birjinak ekarri. } bis  
Beti-betiko hartu nazazu  
penaren kontsolagarri.

txakurra sangaz hasitzen bada,  
nork egingo du pakia.  
-Harrekikua nik egingo det,  
arren etorri zaitia.

## NERE SENTIMENTUA

Nere sentimentua nahi det deklaratu:

Ameriketan nago hau ezin ukatu;  
hemen eginagatik ondo gobernatu,  
horkuaz egiten naiz asko akordatu.

Honuntz etorri nintzan utzirikan ama,  
anai-arrebak eta familia dana;  
egitiagatikan desio nuena,  
geroztik triste dago, ai ! nere barrena.

Hamazazpi urtetan banuen segira:  
neska gazte guztiak neroni begira;  
lurrik ikuttu gabe, gorputzari jira,  
orduko arintasunak asentatu dira.

Gorputz ederra nuen dantzari arina,  
bainan ez da izaten betiko egina;  
orain eginagatik, hemen ahalegina,  
ez gera libertitzen orduan adina.

Horko bizimoduaz oso aspertuak,

honarako ziraden gure desiuak;  
orain atzera berriz emanik pausuak  
hemen bizi gerade erdi mudatuak.

Desperida dijua sei bertso hoiekin,  
anaia konformatu horrenbesterekin:  
nere gustua hau da, nahi badezu jakin:  
beste horrenbeste jarri, aio Joxe Joakin.

## NEVADARAT

Nevadarat joan nintzen  
dirurikan gabe,  
handik itzultzekotan, maitia  
bost miliunen jabe

Ai, ai, ai, ai, ai !  
amentsaren lana,  
ait' amen erranetarik barna  
ibili bagina...

Urteak joan ziren  
on ta txar nahaste,  
gure fortuna haiekin  
eta denak berriz haste

Ai, ai, ai, ai, ai !...  
amentsaren lana,  
ait' amen erranetarik barna  
ibili bagina...



Moltsa arin dut bainan  
aberats gogoa,  
nere fortuna zare, maitia  
nere sosegua

Ai, ai, ai, ai, ai !...  
amentsaren lana,  
ait' amen erranetarik barna  
ibili bagina...

Begiak zorrotz eta  
memorioa argi,  
ez den, ez den tokian, maitia  
aztaparrak garbi

Ai, ai, ai, ai, ai !...  
amentsaren lana,  
ait' amen erranetarik barna  
ibili bagina...

## Nigarrez sortu nintzen

1

Nigarrez sortu nintzen nigarrez hiltzeko,  
Ez orduan munduan luzaz bizitzeko,  
Jendek izanen dute erraiteko frango,  
Aita ama maiteak zuen biendako.

2

Aita ama maiteak mundurat zertako  
Eman izan nauzue zorigaitz huntako,  
Nik ez nuen hobetik hola tratatzeko,  
Federik eman gabe abandonatzeko.

3

Munduratsortu eta hirur oren gabe  
Berro xoko batean gaixoa eman naute,  
Nihaur bakar bakarrik xoriak haurride,  
Ene kontsolatzerat kantuz heldu dire.

4

Ene sortea baita, pena emangarri  
Auhenetan bainago bildotx bat iduri,  
Lurra seaska eta zerua estalki,  
Norena ote naizen Jainkoak badaki.

5

Lur hotzaren gainean sortu naizeneko,  
Jaberik gabe hemen ni ez naiz biziko.  
Hiltzerat heldu banaiz ez naiz zerurako,  
Federik ez duenak ez da han sartuko.

6

Goizeko alba gorrian ni hemen pausatu  
Geroztik iduzkia gainetik pasatu,  
Aitarik ez dut eta amak nau ukatu  
Ez ote naute behar norbaitek altxatu ?

7

Ama bihotz gabea Aita zu iduri,  
Zori gaitzez nauzue eman munduari,  
Barka zozute Jauna hoben handi hori,  
Otoitz eginen dautzut orai eta beti.

8

Iduzkia zenean zeruan apaldu  
Andere gazte bat zait aldean pasatu,  
Aingeru bat nintzela zenean ohartu  
Amultsuki ninduen besoetan hartu.

9

Zato enekin, zato aingeru maitea,  
Dolugarri liteke zu hemen uztea,  
Bozkario enetzat zutaz jabetzea,  
Erakutsiko dautzut zeruko bidea.

10

Desagertu zenetik biharamunean  
Jauna deitu izandu adin ederrean,  
Haurra orai ez dago lurreko bidean,  
Aingeruekin dago zeruko lorian.





## NIREKIN

(Emoixtaxuz muxutxuek)

Emoixtaxux muxutxuek

maitie

hartuixu guruxun

guztixe

eroaixu bixotz

tristie

zure bixotzarekin.

Emoixtaxu porrutxue

sorgiñe

ahatetxu baten

berdiñe

begitxu gorrixen

samiñe

sendatuixu nirekin.

Oinak hotz gabien, berbak

irratixen

bero pixka bat gure neuke

berbaixu bajutxu, eskue helduixu

ez utzi laztanik eiteke.

Emoixtaxux muxutxuek

maitie

hartuixu guruxun

guztixe

eroaixu bixotz

tristie

zure bixotzarekin.

Emoixtaxu porrutxue

sorgiñe

ahatetxu baten

berdiñe

begitxu gorrixen

samiñe

sendatuixu nirekin.

Gero esnatzien lagaixu etzien

zure marrubi usaintxue

ta ez eixu pentsa ez dela erreza

gauza politxek pentsatzie.

Gero esnatzien lagaixu etzien  
zure marrubi usaintxue  
ta ez eixu pentsa ez dela erreza  
gauza politxek pentsatzie.

Emoixtaxux muxutxuek...  
bixotzarekin

Emoixtaxu porrutxue...  
sendatuixu nirekin.

OI AMA ESKUAL HERRI

Anaia etxen da ezküntü  
bukatü niz oain  
joaitera  
ene opilaren egitera  
Pariserat baniazü.

Oi ama Eskual Herri goxua  
zütandik urrun triste banua,  
adios ene etxondua  
adios Xiberua.

Pariseko bizitzia  
lan kostüz irus bagiazü,  
bena berantzen zütadazü  
zure berriz ikustia.

Oi ama Eskual Herri goxua  
zütandik urrun triste banua,  
adios ene etxondua  
adios Xiberua.



## OI GU HEMEN

Oi gu hemen  
bidean galduak  
heriotz minez.

Gizonen itzala luzea  
negarrez, haizea gauean  
arbolak, erroak airean  
heriotza da.

Oi gu hemen  
bidean galduak  
heriotz minez.

Pobreak kalean bilutsik  
barnea esperantzik gabe  
doinua, basoko tristura  
ilunabarrez.

Oi gu hemen  
bidean galduak  
heriotz minez.

Nundikan ezinaren mina  
zergatik errekan iluna  
egurra, kolpeka landua  
bide hustuak.



Oi gu hemen  
bidean galduak  
heriotz minez.

## OI KANTA BERRI

Oi kanta berri ixilik nago  
orain duela aspaldi,  
zuretzat nuen kar bero hura  
suntsitu ez da dirudi.  
Beste lanetan iragan ditut  
ainitz egun ta gaualdi,  
bainan oraino ez dut ukatu  
euskara ez ta Euskadi.

Oi kanta berri bihotzetikan  
ezpainera jalia,  
euskal airean bihurtzen zaitut,  
zu neure mezularia.  
Jende artean izatu banaiz  
beresle samurlaria,  
izan zaitte zu ene partetik  
bakezale den xoria.

Oi kanta berri izan zaite zu  
anai arteko zubia  
batasunetik libertatera  
gidatzen duen bidea.  
Kartzelan den abertzaleari  
emozu doi bat argia  
etsiturikan den bihotzari  
esperantza ur bizia.

Oi kanta berri gure herriak  
behar du bide ta zubi,  
etxeetan ere baitezpadako  
argiarekin ur garbi.  
Horiek denak ez dire aski  
bizi dadien Euskadi,  
hainbat oraino beharko ditu  
kanta bat eta kanta bi.

## OI PELLO PELLO

Oi ! Pello Pello logale nauk eta  
jinen hiza ohera ?

Irun ezan eta gero gero gero  
irun ezan eta gero gero bai.

Oi ! Pello Pello irun diat eta  
jinen hiza ohera ?

astalka zan eta gero gero gero  
astalka zan eta gero gero bai.

Oi ! Pello Pello astalkatu diat eta  
jinen hiza ohera ?

Harilka zan eta gero gero gero  
harilka zan eta gero gero bai.

Oi ! Pello Pello harilkatu diat eta  
jinen hiza ohera ?

Jos ezan eta gero gero gero  
jos ezan eta gero gero bai.

Oi ! Pello Pello josi diat eta  
jinen hiza ohera ?

Argia dun eta, bihar bihar bihar  
argia dun eta, jinen hiz bihar.



Olentzero joan zaigu mendira lanera  
Intentzioarekin ikatz egitera  
Aditu duenenan Jesus sortu dela  
lasterka etorriko da Berri ematera.

Horra, horra gure Olentzero  
pipa hortzetan duela eserita dago.  
Kapoiak ere baitu arroltzetxoekin  
bihar meriendatzeko botil ardoakin.

Olentzero, buru handia  
entendimentuz jantzia,  
bart arratsean edan omen du  
Hamar arroako zahagia

Ai urde tripa handia !  
tralalala tralalala  
Ai urde tripa handia !  
tralalala tralalala

Olentzero gurea ezin dugu ase  
bakarrik jan dizkigu hamar txerri gazte  
saiheski ta solomo makina bat heste  
Jesus sortu da eta kontsola zaitetze

Horra, horra gure Olentzero  
pipa hortzetan duela eserita dago.  
Kapoiak ere baitu arroltzetxoekin  
bihar meriendatzeko botil ardoakin

Olentzero pentsatu Eguberriari.  
Guzieri eskaini nasaiki opari.  
Ez badakizu, zuzen, nori zer ekarri,  
begiratu zuk ere, oi telebistari !

Eguberri, Eguberri, dena kantu, dena irri,  
Herriz herri izan gaiten, bakearen mezulari !

Haur maiteak, entzun dut nik zuen galdea,  
baina amestu hura oraikoan badea ?  
Miserian da, egun, nun nahi jendea,  
duguna zati, dela neure ordrea !

Eguberri, Eguberri, dena kantu, dena irri,  
Herriz herri izan gaiten, bakearen mezulari !

Oparien heltzea nik ez dut hastio,  
zakuetan badut bake eta amodio.

Zu, ez kezkatu, haurra, ez baitu balio,  
ni jin artino erein zazu bozkario!

Eguberri, Eguberri, dena kantu, dena irri,  
Herriz herri izan gaiten, bakearen mezulari !

Olentzeroren oparia

Astoa gaixo dago.  
Olentzero tristerik.  
Txabola ikatzez beterik,  
pilan-pilan udazkenetik.  
Ez dauka txabola uzterik,  
ez etxez etxe ibiltzerik.

Horra, Olentzero  
pipa hortzetan.  
Gauetz ibiltzen da  
negu hotzetan.

Larri daude auzoan.



Ikatzik ez neguan.  
Han egongo da Olentzero,  
suaren ondoan txit bero.  
"Noiz jaitsiko da txabolatik?"  
galdetzen du Josepantonik.

Horra, Olentzero  
pipa hortzetan.  
Gauetz ibiltzen da  
negu hotzetan.

Bi lagun joan dira  
elurretan mendira.

"Aizu, Olentzero, zergatik  
ez duzu ekartzen ikatzik?"

"Ezin dut ikatzik banatu,  
mesedez, astoa sendatu".

Horra, Olentzero  
pipa hortzetan.  
Gauetz ibiltzen da  
negu hotzetan.

Arrantzaka astoa  
sendatu da gaixoa.  
Eskerrik asko amonari  
eta bere kataplasuari.  
Geroztik gure Olentzero  
herrira jaisten da urtero.

Horra, Olentzero  
pipa hortzetan.  
Gauetz ibiltzen da  
negu hotzetan.

## ORHIKO XORIA

1

Jende gaztia dabila  
etxetik urrun lanila...  
Ez erran galdurik dela,  
itzul ditaike berehala.

Jin bedi gure artila  
Orhiko xoria Orhila! ] bis

2

Xorittuaren hegala  
arin aida bezala...  
Gaztek begira dezala  
azkar euskaldun odola!

Jin bedi gure artila  
Orhiko xoria Orhila! ] bis

3

Xoriak jiten zaizkula  
huts egin gabe sekula...  
Lehenik bat, gero mila  
xortak egiten ixtila...

Jin bedi gure artila  
Orhiko xoria Orhila! ] bis

4

Xoria izan dadila  
euskaldun gazten mudela!  
Mutiko ta neskatila,  
ziauzte denak sorleküla!

Jin bedi gure artila  
Orhiko xoria Orhila! ] 4 aldiz

## OTXAGABIAN

Karlixtoekin hasi ginan-ta  
reketekilan segitu  
gerra haundiak irabazi-ta  
auziak ditugu galdu.  
Hilarrietan loreak dire  
goizalderako zimeldu  
mendi gainetan elurrak dire  
jorraila gabe gesaldu  
bainan halere primaderarik  
Nafarroarat ez heldu.



Otxagabian, Otxagabian zer dute  
kantuak galdu, cantuak galdu zaizkote  
eskuara galdu, erdera sartu zaiote  
Lizaso alden, Lizaso alden zer dute  
etxeak husten, etxeak hustu zaizkote  
Lizaso alden, Lizaso alden zer dute  
herria saltzen, herria saldu omen dute  
Nafarroaren, Nafarroaren auhena  
arrozturikan, arrozturikan hil dena.

Karlixtoekin hasi ginan-ta  
reketekilan segitu  
salbatu omen... España oro  
oro Nafarroa salbu.  
Zuhain onaren erostekotan  
artaldea dute saldu  
pentze larretan xoriak dire  
uda jin gabe ixildu  
bainan halere primaderarik  
Nafarroarat ez heldu.

## PASAIKO HERRITIK

Pasaiako herritik dator notizia  
zezen bat izan dala jenioz bizia  
kontatutzero nua bistan ikusia  
alegratzeko triste dagoen guzia.

Santiago eguna Pasaian sinale  
ailegatu eztanak egin beza galde  
hasieran jendia zezenaren alde  
azkenian etziran arrimatu zale.

Torillotik atera zuten lehendabizi  
behi zahar bat gidaria bandera ta guzi  
harrapatzen zuena purrukatzen hasi  
azkenian kanpora plazatik igesi.

...

Gure Pasaia beti sonatua dago  
errapin gabe ezta urte bat igaro  
hurrengoan jarriko dituztela nago  
barrera estuago edo zezena haundiago.

Hiru komertziantek plazatik kanpoan  
poxpolo ta barkillo labaina tratuan,  
pareta egon arren hamar oin altuan  
panparroi joanak dira putzura saltuan.

Hoiek horrela eta gehiago ere bai  
lurrian ziraldoka egin zuten lasai  
ezkonberriak eta zenbait dama-galai  
zezenaren mendian etzuten jarri nahi.

Plazatik itsasora salta da igeri  
adarrak besterikan etzuen ageri  
bakerua begira bere zezenari  
eserita jan ditu hiru libra ogi.

...

## PELLO JOXEPE

Pello Joxepe tabernan dala  
haurra jaio da Larraulen  
etxera joan da esan omen du:

-Ez da neria izanen,  
beraren amak topa dezala  
haur horrek aita zein duen.  
Pello Joxepe tabernan dala  
haurra jaio da Larraulen

Hau pena eta pesadunbria,  
senarrak haurra ukatu!  
Haur horrentzako beste jaberik  
ezin liteke topatu.  
Pello Joxepe bihotz neria  
haur horrek aita zu zaitu.  
Haur horrentzako beste jaberik  
ezin liteke topatu.

Fortunatua nintzala baina  
ni naiz fortuna gabia;  
abade batek eraman dizkit  
umia eta andria:  
haurra berea bazuen ere  
andria nuen neria.  
Abade batek eraman dizkit

umia eta andria.

Pello Joxepe tabernan dala  
haurra jaio da Larraulen  
etxera joan da esan omen du:

-Ez da neria izanen,  
beraren amak topa dezala  
haur horrek aita zein duen.  
Pello Joxepe tabernan dala  
haurra jaio da Larraulen

## POTTOKA

Pottoka mendian jauzika ibilki  
buztana airean salbaia iduri.  
Ezin harrapatuz Txomin da erori  
pottoka nausi da gure gizonari.

Denboran pottokak ez emaiten sosa  
ez zuen ez egiten Parisen afera.  
Neuilly-n ibiltzeko ez zuen usain ona  
adiskidendako ez aski ederra.

Txominek menditik jautsi du pottoka  
ileak mozturik pentzetan emana.  
Egun guziez hartzen du sukrea  
iduri du orain Vincenn-en sortua.



Primaderako florian,  
Hoitabigarren urtian!  
Neskatxa gazte inozent bat naiz  
pena xangrinen erdian.  
Ene bizia uztera noa,  
adinik ederrenian!

Badu jadanik lau urte  
Badudala norbeit maite;  
Burasoeri deklaratu,  
orai duela bi urte...  
Heiek ere, axola gabe,  
saldu nahi izan naute!

Aitak erran zautan neri,  
Zoin bihotz-erdiragarri!  
Esposarazi nahi(i) naute  
Markes baten semeari !...  
Hir' aberastasunarentzat,  
ez dun aski maite hori.

Otoiztu ditut ait'-ama...  
Alferretan e'in dut dena!  
Neur' aberatasunarentzat  
dela nik maite bakarra ;  
Sekulan ez duela hartuko  
maite ez dudan laguna !

Geroztik nago penetan.  
Etzana ohe batetan!  
Me(e)dikuak ekartzen dauztet,  
bainan oro alferretan,  
Ustez ni se(e)ndaturen nauten  
barber eder horietan !

Ni sendatzeko barbera  
Da neure maite bakarra.  
Otoiztu ditut ait'-amak  
utz dezaten ikustera...  
Atsegin ho'i ez e'in nahirik,  
uzten naute finitzera !

## PRIMA EIJERRA

Prima eijerra, zütan fidatürik,  
anitx bagira, oro tronpatürik.  
Enia zirenez, erraizü bai ala ez,  
bestela, banua  
desertiala, nigarrez urtzera.

Desertiala juan nahi bazira  
arren, zuaza; oi, bena berhala.  
Etzitala jin, hartzara nigana,  
bestela, gogua  
dolütüren zaizü, amoros gaixua

Lara lala...

dolütüren zaizü, amoros gaixua



## SALAMANKARA

Aita jainkoak egin banindu  
zeruetako giltzari,  
azken orduan jakingo nuke  
atea nori iriki.

Lehenengo aitari,  
gero amari, gero anai-arrebari  
ta azken orduan ixil-ixilik,  
nere maite politari.

Txiki-txikitik aitak eta amak  
praile ninduten nonbratu,  
estudioak ikasitzera  
Salamankara bialdu.  
Salamankara ninjularik,  
bidian nuen pentsatu  
estudiante tunante baino  
hobe nuela ezkondu.

Ezkondu nintzan,  
bai ni ezkondu,  
baita ere ongi damutu,  
praka beltzian hari zuria  
sekula ez zait faltatu.  
Praka beltzian hari zuria,  
txaketa mangagabea,  
horregatikan deitzen didate  
arlote miserablea.



San Simon eta San Juda  
joan zen uda eta negua heldu da.

Ez baletor hobe  
bizi gera pobre  
eremu latz honetan,  
ez gera hain onak benetan.

Ez dugu zaldirik, ez gera zaldunak  
ez dugu abererik, ez gera aberatsak  
euskara guk dugu, gu gera euskaldunak  
euskara guk dugu, gu gera euskaldunak.

San Simon eta San Juda  
joan zen uda eta negua heldu da.

Ez baletor, hobe  
bizi gera pobre  
eremu latz honetan,  
ez gera hain onak benetan.

Ez dugu zaldirik, ez gera zaldunak  
ez dugu abererik, ez gera aberatsak  
euskara guk dugu, gu gera euskaldunak  
euskara guk dugu, gu gera euskaldunak !





Saratarra naizela orok badakite orok badakite

Senperen badudala xoriño bat maite

Hura bezen pollitik hura bezen pollitik

Bertze bat balaite...

Baina zer probetxu da nik hura dut maite

Guziek badakite naizela Piarres naizela Piarres

Xoriño bat galdurik nagola nigarrez

Bera ibili baitzaut bera ibili baitzaut

Ondotik beharrez

Ederki ase bainau kafe'ta likurrez !

## TOPA DAGIGUN

Erriozar, Baigorriko,  
Bakio nahiz Getariko,  
topa dagigun eta bakean  
bizi gaitezen betiko.

Umeak arretaz horni,  
gazteei hitza eskeini  
gaztetxoago eta haurrago

izan gaitezen geroni.

Errioxar, Baigorriko,  
Bakio nahiz Getariko,  
topa dagigun eta bakean  
bizi gaitezen betiko.

Ez uka amonei hitzik,  
entzun agureei pozik,  
zaharra ez da izandakoa,

luzaroan dena baizik.

Errioxar, Baigorriko,  
Bakio nahiz Getariko,  
topa dagigun eta bakean  
bizi gaitezen betiko.

Hierarkia da lehorra,  
harremana emankorra;  
errespetuan dago gordeta

emakumeen altxorra!

Erriozar, Baigorriko,  
Bakio nahiz Getariko,  
topa dagigun eta bakean  
bizi gaitezen betiko.

# TRAPU ZAHARRAK

1

Egunez trapu biltzen  
gabean dantzan lehertzen  
beti umore onean  
degu pasatzen,  
eta goizean goiz  
kalera irtenda  
Jo goxuan daudenak  
esnatzen ditut.

Trapero! Trapu zaharrak!

2

Atera, atera, trapuak saltzera  
nik erosten ditut  
modu onean  
arditean prakak kuartuan albarkak  
ta burni zaharrak txanponean

3

Erosten ditut trapuak  
praka zahar urratuak  
gona gorri zaharrak eta  
atorratxuak.  
Jo zak zurrumuzki

Trapero! Trapu zaharrak!

4

Atera, atera, trapuak saltzera  
nik erosten ditut  
modu onean  
arditean prakak kuartuan albarkak  
ta burni zaharrak txanponean

5

Eltze elbarrituak  
pertzazulorik badu  
arranparrillik edo  
trebera zaharrik.  
Inork saltzeko badauzka  
librako txanponean  
Ramon Batistak  
erosten ditu.

Trapero!

Treberiak, eltziak...  
Trapu zaharrak!

Atera, atera, trapuak saltzera

bis





## TRISTE BIZI NAIZ ETA

Triste bizi naiz eta  
hilko banintz hobe,  
badaukat bihotzian  
hainbat atsekabe.

Maite bat maitatzen det  
bainan haren jabe  
sekulan izateko  
esperantzik gabe.

Bihotz baten lekuan  
mila banituzke,  
zuretzako maitia  
izango lirake.

Baina mila'n lekuan  
bat besterik ez det;  
hartzatzu, ba, maitia  
bat hau mila bider.

Nere maite polita  
nola zeran bizi ?  
Zortzi egun honetan  
etzaitut ikusi.  
Badakit zabiltzala  
nigandik igesi,  
ez didazu ematen  
atsekabe gutxi.

1

Ttiki ttikitik aitak eta amak  
fraide ninduten asmatu  
bai eta ere Salamankara  
ixtudiante bidaldu ;  
Salamankara nindoalarik  
bidean nuen pentsatu  
ixtudiante tunante baino  
hobe nuela ezkondu.

2

Ostatu xume pollit batean  
gosez gelditu bainintzen  
neska xarmant bat ari zitzaidan  
mahainean zerbitzatzan ;  
begia kartsu, ezpaina lore,  
enekin aise mintzatzan,  
aingeru hori ordu berean  
ene bihotzian sartu zen.

### 3

Hitz erdi batez maite nuela  
erran nion beharrira,  
bainan gaixoa, herabetua,  
ihesi joan zen kanpora ;  
Ez ahal nuzu, izar ederra,  
kondenatzen ifernura,  
ez da sekulan ene gogotik  
histuko zure itxura.

4

Jainko maitiak egin banindu  
zeruetako giltzari,  
azken orenean jakingo nuke  
atea nori ideki :  
lehenik aitari, gero amari,  
gero anai-arreberri,  
azken orenean segetuan  
ene maite pollitari.



5

Ezkondu nintzen ezkondu

Bai eta ere dolutu

Galtza beltxian hari xuria

Sekulan eztzait faltatu

Galtza beltzean hari xuria

Atorra mauka gabea

Hortarakotzat deitzen naute ni

Arnote miserablea

## TXATXAMATXALINATXU

Txatxamatxalinatxu jaio zan urtian  
herria ta kofradia hasarratu ziran.

Tirikite~~n~~ena beltza morena  
ontza bat txokolate goizian onena.

Txikia izan arren izan leike abila  
biba Elantxobeko tanbolintxerua.

Tirikite~~n~~ena beltza morena  
ontza bat txokolate goizian onena.

Txatxamatxalinatxu jaio zan urtian  
herria ta kofradia hasarratu ziran.

Tirikite~~n~~ena beltza morena  
ontza bat txokolate goizian onena.

Txikia zuen guda-izena  
bera gizon osoa izan arren  
Mendizabal, Sasetaren hurrena  
biak txiki, bizkor eta lerdan  
Saseta hil zen gudarien aurrean

Mendizabal hil zaigu bakarrik  
bainan biek daukate Herri osoa  
atzo ta gaur heien atzetik  
Euskadi' rentzat hil dire-ta  
gorputzak arantzaz beterik.

Harro hadi Kantauri Itsasoa  
ta heien betiko loa  
betiko kanta zak.

Geroari esaiok olatuetan  
Herri-izarrak ez direla itzaltzen,  
gure haurrek biharko ikastoletan  
heien izenak abestu ditzaten,  
arantzetan biak hil bait ziren.

Harro hadi Kantauri Itsasoa  
ta heien betiko loa  
betiko kanta zak.

Geroari esaiok olatuetan  
Herri-izarrak ez direla itzaltzen,  
gure haurrek biharko ikastoletan  
heien izenak abestu ditzaten,  
Herriarentzat biak hil baitziren.

## TXORI TTIKIA

Txori ttikia nintzelarik esan zidaten  
kaiolan bizitzeko sortua nintzela.

Gero arrano bihurtu nintzenean  
kaiola hautsita aldegingo nuen beldurrez,  
libro nintzela sinistarazi nahi zidaten.

Horregatik ireki zizkidaten ateak  
egin nezan hegaz  
baina luze gabe ohartu nintzen  
hanka harkaitz bati  
lotu zidatela kate motz eta astun batez.

Gero arrano bihurtu nintzenean  
kaiola hautsita aldegingo nuen beldurrez,  
libro nintzela sinistarazi nahi zidaten.



Horregatik ireki zizkidaten ateak  
egin nezan hegaz  
baina luze gabe ohartu nintzen  
hanka harkaitz bati  
lotu zidatela  
kate motz eta astun batez

Gero arrano bihurtu nintzenean  
kaiola hautsita aldegingo nuen beldurrez,  
libro nintzela sinistarazi nahi zidaten.



## TXORIA TXORI

Hegoak ebaki banizkio,  
neria izango zen,  
ez zuen alde egingo;

bainan, horrela,  
ez zen gehiago txoria izango;  
eta nik...

txoria nuen maite;  
eta nik...

txoria nuen maite.

Lara-larara-laa...

bainan, horrela,  
ez zen gehiago txoria izango;

eta nik...

txoria nuen maite;

eta nik...

txoria nuen maite.

Lara-larara-laa...

UME EDER BAT  
(Nere maitarentzat)

Ume eder bat ikusi nuen  
Donostiako kalean,  
hitz erditxo bat hari esan gabe  
nola pasatu parean ?  
Gorputza zuen liraina eta  
oinak zebiltzan aidean...  
Politagorik ez det ikusi  
nere begien aurrean.

Aingeru zuri, paregabea,  
Euskal Herriko alaba,  
usterik gabe zugana beti  
nere bihotzak narama :  
Ikusi nahian beti hor nabil,  
nere maitea hau lana !...  
Zoraturikan hemen naukazu  
beti pentsatzen zugana...

Galai gazteek galdetzen dute :

"Aingeru hori non dago ?"

Nere maitea nola deitzen dan  
ez du inortxok jakingo.

Ez berak ere, ez luke nahiko :  
konfiantza horretan nago  
amori-dun bihotz hoberik  
Euskal Herrian ez dago.

## URTXINTXAK

Urtxintxak oihanian jauzika,  
aldaxkatik aldaxkara...

"Zuk erradazu, ama Zendako  
ez diren erortzen lurrerat ?.."

Nik ere nahi nuke izan urtxintxak bezala !  
Hain gora, hain trebe, izaiteko libre !...



Urtxintxak oihanian zintzilik,  
buruz behera buztanetik !...  
"Zuk erradazu, ama, zendako  
ez duten buruko minik ?.."

Nik ere nahi nuke izan urtxintxak bezala !  
Hain gora, hain trebe, izaiteko libre !...

Urtxintxak oihanian karruxkaz,  
neguko bildu heltzaurrekin...  
"zuk erradazu, ama, zendako  
ez dezaketan egin berdin ?.."

Nik ere nahi nuke izan urtxintxak bezala !  
Hain gora, hain trebe, izaiteko libre !...

Adiskide bat bazen  
orotan bihotz bera,  
poesiaren hegoek  
sentimentuzko bertsoek  
antzaldatzen zutena.  
Plazetako kantari  
bakardadez josia,  
hitzen lihoa iruten  
bere barnean irauten  
oinazez ikasia... ikasia.

Nun hago, zer larretan  
Urepeleko artzaina,  
mendi hegaletan gora  
oroitzapen den gerora  
ihesetan joan hintzana.

Hesia urraturik  
libratu huen kanta,  
lotura guztietatik  
gorputzaren mugetatik  
aske senditu nahirik.  
Azken hatsa huela  
bertsorik sakonena,  
inoiz esan ezin diren  
estalitako egien  
oihurik bortitzena... bortitzena.

Nun hago, zer larretan  
Urepeleko artzaina,  
mendi hegaletan gora  
oroitzapen den gerora  
ihesetan joan hintzana.

Xarmegarria zira, eder eta gazte,  
ene bihotzak ez du zu baizikan maite,  
bertze zenbait bezala, ote zira libre ?  
Zurekin ezkontzeaz dudarik ez nuke.

Xuri gorria zira, arrosa bezala;  
profetak ere dira mintzo hola hola.  
Araberan bazinu gorputza horrela,  
iduriko zinuke ... zeruko izarra.

Oi, maitea, zatozkit, plazer duzunean,  
nehork, ikusi gabe, ilun-nabarrean;  
lagun bat badukezu joaiteko bidean,  
hark ezarriren zaitu trankil bihotzean.

Plazer eginen duzu, ixiltzen bazira,  
haur iñorantak hola tronpatzen baitira.

Ez da enetzat ina holako segida...  
bertzalde zure baitan ez naiteke fida.



Adios beraz orai, ene arraroa,  
hori dela medio herritik banoa;  
bihotza trixte eta kexuan gogoa,  
beti jarraikiren zait zur' amodioa.

1

Xorieri mintzo zen,  
mintzo zen errekarri,  
oihaneko zuhaitzeri ta  
zeruko izarrerri,  
mintzo zen haizeari,  
xoro batentzat zaukaten.  
Xorieri mintzo zen,  
xoro batentzat zaukaten.

2

Ez zakien irakurtzen  
gizonen liburutan,  
bainan ongi bazakien  
zeruko seinaletan  
zeruko seinaletan  
ta jendeen bihotzetan.

Xorieri mintzo zen,  
mintzo zen errekarri,  
oihaneko zuhaitzeri ta  
zeruko izarrerri,  
mintzo zen haizeari,  
xoro batentzat zaukaten.  
Xorieri mintzo zen,  
xoro batentzat zaukaten.

3

Haurrek zuten harrikatzen,  
zahar gaztek trufatzen,  
etxekoek berek ongi  
laneko baliatzen,  
laneko baliatzen  
eta gosez pagatzen.

Xorieri mintzo zen,  
mintzo zen errekarri,  
oihaneko zuhaitzeri ta  
zeruko izarrerri,  
mintzo zen haizeari,  
xoro batentzat zaukaten.  
Xorieri mintzo zen,  
xoro batentzat zaukaten.

4

Hil da xorua bakarrik,  
bakarrik da ehortzi.

Ez zen han kristau bat ere  
salbu lau hilketari,  
salbu lau hilketari  
ta apeza kantari.

Xorieri mintzo zen,  
mintzo zen errekarri,  
oihaneko zuhaitzeri ta  
zeruko izarrerri,  
mintzo zen haizeari,  
xoro batentzat zaukaten.  
Xorieri mintzo zen,  
xoro batentzat zaukaten.



5

Hil hobian ezartzean  
haizea zen gelditu,  
xoriak ziren ixildu,  
zerua zen goibeldu,  
zerua zen goibeldu  
ta jendea oroitu.

Xorieri mintzo zen,  
mintzo zen errekarri,  
oihaneko zuhaitzeri ta  
zeruko izarrerri,  
mintzo zen haizeari,  
xoro batentzat zaukaten.  
Xorieri mintzo zen,  
xoro batentzat zaukaten.

## ZAKU BEREAN

Orain bost urte iritsi  
ziren etxeko atera,  
txamarra zaku, gizon bat  
Patroleraino atera.  
Argazkitan azaldu zen  
txamarra burutik behera,  
begiratua oinetan,  
bideko har-legarrera.  
Zer ote zeukan aurrean?  
Zer uzten zuen atzera?  
Nork egin zuen oihua:  
"EGUNKARIA aurrera!"?  
Zihoana zihoala  
ez zihoan soilik bera  
mordoska bat gindoazen  
zakupe hartan batera.

Ziega batean sarturik  
zeinek babestu behar nau?  
Berriro krisketa-hotza  
bizia, mingarria, rau!  
"Todos son del mismo saco"  
gizalege-eza arau...  
"Ez al duzu erantzun nahi?  
zutitu, biluztu, barau!"

Kaleratu zituzten bai,  
denbora igaro ahala...  
"Zaku berekoak dira"  
hasi zen berriz fiskala  
"Zaku beretsuan daude"  
Audientzia Nazionala...  
Justizia irudiaren  
begietako oihala  
esan liteke zaku zahar  
zirrikituduna zala  
neurtzen zuen momentuko  
aukera koiunturala  
Justiziak koiunturaz  
baldin baleki bezala...  
horrexek erakusten du  
hain Justizia ez dala.

Zakua uler dezake  
bakoitzak bere gisara  
gure hau emana dugu  
euskal nahiz herrigintzara.  
Epaiketaren atetan  
aurkitu gintezke jada...  
izenak hamabi dira,  
baina epaitu ilara.

bis

Zaku bat burutik behera  
zaku zaku zakua hau!  
Dena zulo beltz bihurtuz  
den-dena bilakatuz gau  
oihu ta umilazio  
txilio eta alarau  
denbora asko joan da...  
izu-ikarak hor dirau.

Gu ere sar baikintezke  
akusatuen pilara  
ozen esango dizugu  
epailea, entzun, hara:  
"zaku hortan egotea  
delitua baldin bada...  
gu're gaizkile gaituzu,  
zaku berekoak gara".



1

Mundu guztiak aditutzen du  
euskaldunaren negarra  
alde batera nahiago nukeez banintz  
hemengotarra.

Enpeinatzea ez bada libre,  
alferrik dugu indarra,  
hau da txoriak gari tartean  
goseak egon beharra.

2

Antzerki hontan lau pertsonaia  
ta jokalaria bakarria  
arbolak berak erakusten du  
hostoa eta adarra.

Enpeinatzea ez bada libre  
alferrik dugu indarra,  
hau da txoriak gari tartean  
goseak egon beharra.

3

Sutan pizturik darrai oraindik  
sugai, berriz, lehengo gerra,  
oharkabeen ez zen mintzatu  
Txirrita poeta zaharra.

Enpeinatzea ez bada libre  
alferrik dugu indarra,  
hau da txoriak gari tartean  
goseak egon beharra.



4

Zazpi ahizparen gai den oihala  
ebakirikan erditik,  
alde batera hiru soineko,  
utzirikan lau bestetik.

Guraiziakin bereizi arren  
bakoitza bere aldetik,  
ezagutzen da jantzi direla  
zazpiak oihal batetik.

# 5

Oihal bera da gure jantzia  
sortu gintuzten unetik  
ez du munduak kemenik sortu  
kentzeko gure soinetik.

Guraiziakin bereizi arren  
bakoitza bere aldetik,  
ezagutzen da jantzi direla  
zazpiak oihal batetik.



## ZENBAT GERA

Zenbat gera

Lau, bat,

hiru, bost, zazpi

Zer egin degu

Ezer ez.

Zer egiten degu

Alkar jo.

Zer egingo degu Alkar hil

Gure asmoak, esperantzak,  
herria, askatasuna,  
justizia, pakea,  
egia, maitasuna...  
mitoak, hitz hutsak

Zenbat gera  
Lau, bat,  
hiru, bost, zazpi

Zer egin degu  
Ezer ez.  
Zer egiten degu  
Alkar jo.

Zer egingo degu Alkar hil  
Hori ez Hori ez! Hori ez ...

## ZIBILAK ESAN NAUTE

### 1

Zibilak esan naute,  
biziरो egoki,  
Tolosan behar dala  
gauza erabaki,

giltzapian sartu naute,  
poliki-poliki,  
negar egingo luke  
nere amak baleki.

2

Jesus tribunalian  
zutenian sartu,  
ez zion Pilatosek  
kulparik bilatu

neri ere arkitu ez arren  
ez didate barkatu  
zergatik ez dituzte  
eskuak garbitu.



3

Kartzelatik atera,  
fiskalen etxera,  
abisatu zidaten  
joateko berehala,

ez etortzeko gehiago  
probintzi honetara  
orduan hartu nuen  
Santander aldera.

## ZIBURUTIK SARARA

Ziburutik sarara izatu naiz joana  
Neure lehenagoko maite baten gana  
Han arribatu gabe entzun nuen fama  
Guarda gazte batekin zela hitzemanana.

Sara hortan badute neskatxa politik  
Zu, dendari gaztia, ororen gainetik  
Abandonatu nauzu maitatuz geroztik  
Nihun ez dut ikusi zu bezen arinik.

Urtxo xuri pollita, fin eta fidela  
Deus makurrikan gabe joan zaizkit gibela  
Jende hitsak badakit anitz badirela  
Nik ez nuen pentsatzen zu hala zinela

Zuk hemezortzi urte nik beste hanbeste  
Amodiotan ginen ginelarik gazte  
Zu maltzurra zinela nik ez nuen uste  
Ni pena xangrinetan zu kontsola zaitte

Ez zaitela xangrina herritar gaztia  
Lehen izana gatik ni zure maitia  
Ni ere hemen nago trixte baratia  
Guarda gazteño horrek emanik kolpia

Loale zinela kotz zinena lokartu ?  
Zendako etzinuen atea zerratu ?  
Etzinena lotarik berant iratzartu ?  
Denborak behar dautzu kolpia sendatu...

Guarda gazte horietan konfidatzen denak  
Ardura izanen tu bihotzian penak  
Horiek nahi dituzte gazte pollitenak  
Arrakasta guti du zahartua denak !

Maitia bizi zaitte gazte ta lorios  
Bai eta fidel egon hitz eman ez geroz  
Ondoko urrikiak ez dira serios  
Hortan kitatzen zaitut maitia adios !

## ZUGANA MANUELA

1

Zugana, Manuela,  
nuanian pentsatu,  
uste det ninduala  
deabruak tentatu;  
ikusi bezinekin  
naiz enamoratu,  
ojala ez bazina  
sekulan agertu!

2

Amorioz beterik,  
esperantzik gabe,  
zergatik egin zinan  
bihotz honen jabe;  
zuk esan behar zenduen  
hemendikan alde,  
egiazki ez naiz ni  
bizardunen zale.

3

Barkatu behar dituzu  
nere erokeriak,  
zuri begira daude  
nere bi begiak;  
garbi-garbi esan ditut  
nere ustez egiak,  
zoraturikan nauka  
zure aurpegiak.

4

Gauean ibili naiz  
guztizko ametsetan,  
Donostian nengoela  
Andre Marietan,  
eta ikusi nuela  
herri hartako plazan,  
erdian zebilela  
Manuelatxo dantzan. ] bis.

## ZURE BEGIEK

Zure begiek  
ene maitia  
badute biek  
dirdir eztia.

2

Zeruko lore  
miresgarriak  
izarren pare  
zoragarriak.



3

Gazte gaztia  
zira oraino  
egun guzia  
nago zuri so...

4

Zure begiek  
erotzen naute  
eta guziek  
nahi luzkete.



5

Gaua delarik  
mundurat jausten,  
Jauna zerutik  
da urrikaltzen.

6

Zure begien  
goxoño hori  
egon dadien  
eder ta garbi.

7

Ene nahia  
zinez handia  
zu izaitia  
nere andria.

8

Zure begiek  
ene maitia  
badute biek  
dirdir ezta.

9

Zeruko lore  
miresgarriak  
izarren pare  
zoragarriak.

10

Gazte gaztia  
zira oraino  
egun guzia  
nago zuri so...

11

Ene nahia  
zinez handia  
zu izaitia  
nere andria